



## **Euskadiko irakaskuntzaren egoerari buruzko txostena, 2006-2008**

Osoko Bilkurak onartutako Txostena, 2010/01/28an

1. atala. Hezkuntza-sistemaren plangintza. Eskola-mapak
2. atala. Prestakuntza eta berrikuntza
3. atala. Ikastetxeen antolakuntza eta zuzendaritza
4. atala. Hezkuntza sistemaren finantzazioa

## Gai-zerrenda

---

### **1. Hezkuntza-sistemaren plangintza. Eskola-mapa.**

- 1.1. Jaiotze-tasaren bilakaera
- 1.2. Matrikulen bilakaera
  - 1.2.1. Haur Hezkuntzako lehen zikloa (0-3 urte)
  - 1.2.2. Haur Hezkuntza (2. zikloa), Oinarrizko Hezkuntza eta DBHO
  - 1.2.3. Hezkuntza-sareen arteko geografia-banaketa
- 1.3. Ikasle etorkinak
- 1.4. Hezkuntza-sistemaren hizkuntza-plangintza
- 1.5. Balorazioak eta proposamenak

### **2. Prestakuntza eta berrikuntza**

- 2.1. Hezkuntza-berrikuntza
  - 2.1.1. Eskola inklusibo baten alde. Guztientzako eskola bat lortzea xede duten programak
  - 2.1.2. Kalitatezko eskola baten alde. Eskola hobea lortzea xede duten programak
  - 2.1.3. XXI. mendeko eskola baten alde. Ezagutzaren gizarterako eskola bat lortzea xede duten programak
- 2.2. Irakasleen etengabeko prestakuntza
  - 2.2.1. Zentroko prestakuntza
  - 2.2.2. Banakako prestakuntza
- 2.3. Aniztasunarekiko arreta
- 2.4. Lanbide Heziketako irakasleen berrikuntza eta etengabeko prestakuntza
- 2.5. Balorazioak eta proposamenak

### **3. Ikastetxeen antolakuntza eta zuzendaritza**

- 3.1. Ikastetxeen antolakuntza Euskadiko, Espainiako eta nazioarteko esparruan
  - 3.1.1. Autonomia
  - 3.1.2. Irakasleak
  - 3.1.3. Eskolako giroa
- 3.2. Ikastetxeen zuzendaritza Euskadin
  - 3.2.1. Legediaren berrikuntzak
  - 3.2.2. Zuzendaritza arazo
  - 3.2.3. Lidergo-estiloak Espainian eta ELGEn
  - 3.2.4. Euskadiko zuzendaritza-taldeei buruzko iritzia
  - 3.2.5. Zuzendaritzari buruzko Azterlan Berriaren sei proposamenak
- 3.3. Ikastetxeen zuzendaritza ELGEko herrialdeetan
- 3.4. Balorazioak eta proposamenak

#### **4. Hezkuntza sistemaren finantzazioa**

- 4.1. Irakaskuntzaren gastuari eta finantzazioari buruzko estatistikak
  - 4.1.1. Ikastetxeen gastua
  - 4.1.2. Diru-sarrerak
- 4.2. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurrekontuak
  - 4.2.1. Hasierako aurrekontua eta erabilitakoa
  - 4.2.2. Aurrekontuen banaketa, kapituluaren arabera
  - 4.2.3. Aurrekontuen banaketa, programen arabera
  - 4.2.4. Programen helburuak eta azpiprogramen arabera banaketa
  - 4.2.5. Itunpeko sare pribatuaren finantzaketa Sailaren aurrekontuetan
  - 4.2.6. *Hezkuntza-sustapena* programaren banaketa
  - 4.2.7. Azpiegiturak eta ekipamendua
- 4.3. Titulartasun pribatuko haur-eskolentzako laguntzak
- 4.4. Balorazioak eta proposamenak

## 1. atala. HEZKUNTZA-SISTEMAREN PLANGINTZA

### Sarrera

---

Plangintza-gaiak modu sistematikoan aztertu dira (gehiago ala gutxiago) Euskadiko Eskola Kontseiluaren aurreko txostenetan. 2005-06ko txostenean, gai horiek 3 kapitulutan landu ziren, eta, horrenbestez, zehaztasunez aztertu ziren gure hezkuntza-sistemako matrikulen bilakaera, ikastetxeen tipologia eta euskalduntze-prozesua.


Txosten honetan, Kontseiluak atal hori mugatzea erabaki du, beste gai batzuei lehenetsuna emateko, esaterako: hezkuntza-berrikuntza edo ikastetxe-antolaketari. Nolanahi ere, azken bi urteetan Eskola Maparen inguruan burututako jarduerak direla-eta, bidezkoa da 21/2009 Dekretuaren Irizpenean Kontseilu honek egindako iradokizun nagusietako batzuk kapituluaren amaieran sartzea; dekretu horretan, zehazki, Euskadiko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikastetxeen sarearen antolakuntza-eta plangintza-irizpideak arautu dira (EHAA, 2009/02/12).

Ondorengo lerroetan, kapitulu honen antolaketaren berri emango da. Lehenik eta behin, jaiotze-tasaren bilakaera aztertu da, eta, gero, hezkuntza-etapa desberdinetan matrikula-kopuruari dagokionez izan den bilakaera; zehazki, arreta berezia jarri da Haur Hezkuntzako lehen zikloan. Segidan, immigrazioaren fenomenoari buruz eta horrek eskolatzean duen eraginari buruz hausnartu da, eta, gero, hezkuntza-eredu desberdinen bilakaera aztertu da, bai eta faktore horrek ekitatean nahiz ikasleen emaitza akademikoetan izan duen eragina ere. Azkenik, kapituluaren amaieran, emandako informazio guztia aztertuz egindako balorazioak eta proposamenak sartu dira. Kapitulan, halaber, aurreko txostenetatik hartutako argumentuak eta Euskadiko Eskola Kontseiluaren beste iritzi batzuk jaso dira, eta hori guztia etorkizunean egingo duten Eskola Maparen esparruan kokatzen dugu.

## 1.1. Jaiotze-tasaren bilakaera


EAEko jaiotze-tasak hazkunde-erritmoarekin jarraitu du hamalagarren urtez jarraian —salbuespen bakarra 1998an izan zen—, eta, gainera, urtean %2ko hazkundera baino erritmo biziagoa izan du, batez beste (1.1. eranskina); beheko taulako erregresio-zuzenean hazkunderako joera txiki bat hauteman daiteke. 2007an eta 2008an (aztertutako azken urteak) jaiotze-tasak %2,8ko hazkundera izan du urtean.

### Euskadiko jaiotze-tasaren urteko hazkunderaren indizea, 1995 eta 2008 artean



Azken 14 urteetan metatutako hazkundera %38koa izan da EAE osoan; zehazki, Araban, %50 baino handiagoa izan da.

**Euskadiko jaiotzen bilakaera, lurraldeen arabera** (oinarritzat 1994 eta 1995 arteko batez bestekoa hartu da)



Azken 10 urteetan, hiru hiriburuetan (Gasteiz, Bilbo eta Donostia) %29, %20 eta %5eko hazkundera izan da, hurrenez hurren, eta Euskadiko batez bestekoa, aldiz, %27,6koa izan da; beraz, jaiotze-tasaren joera oso desberdinak dituztela adierazten dute.

### Hiru hiriburuetakoko jaiotze-tasaren aldakuntza, 1996 eta 2008 artean

	1996-1998ko batez bestekoa	2006-2008ko batez bestekoa	10 urtean izan den hazkundera
Gasteiz	1.756	2.268	%29,2
Bilbo	2.558	3.072	%20,1
Donostia	1.463	1.535	%4,9
Euskadi	16.142	20.604	%27,6

10.000 bizilagun baino gehiagoko udalerrietatik 18tan jaiotze-tasa Euskadiko batez bestekoa baino handiagoa da. Besteak beste, Erandio, Beasain eta Andoain nabarmendu behar dira, batez bestekoa bikoizten duten tasak baitituzte. Biztanleria handiko beste udalerrri handi batzuetan (esaterako, Barakaldo, Irun eta Durango), jaiotze-tasaren hazkundera hain handia ez izan arren, plaza berri gehiago sortu behar dira (1.2. eranskina).

**10.000 biztanle baino gehiagoko udalerrriak, azken urteetan Euskadiko batez bestekoa baino jaiotze-tasaren hazkunde handiagoa izan dutenak**

	1996-1998ko batez bestekoa	2005-2007ko batez bestekoa*	9 urtean izan den hazkundera	Urteko batez besteko hazkundera
Erandio	149	257	%72,5	%6,3
Beasain	98	162	%64,7	%5,7
Andoain	103	161	%56,8	%5,1
Elgoibar	74	106	%44,3	%4,2
Durango	212	304	%43,6	%4,1
Azkoitia	86	122	%42,2	%4,0
Lasarte-Oria	140	193	%38,4	%3,7
Mungia	135	185	%37,4	%3,6
Barakaldo	604	822	%36,1	%3,5
Irun	485	654	%35,0	%3,4
Bermeo	108	146	%34,9	%3,4
Arrigorriaga	115	155	%34,5	%3,3
Eibar	185	247	%33,9	%3,3
Zumarraga	78	103	%33,0	%3,2
Amorebieta-Etxano	129	170	%31,5	%3,1
Hondarribia	136	173	%27,3	%2,7
Gernika-Lumo	127	161	%26,8	%2,7
Sopela	124	155	%25,1	%2,5
Euskadi	16.142	20.118	%24,6	%2,5

(\*) Txostena egiteko unean, 2008ko jaiotze-tasaren datu batzuk baino ez zeuden argitaratuta.

Eskolatzeko-premiak kalkulatzeko, jaiotze-tasaren oinarritzko batugai honi ikasle etorkinen gehitzea batu behar zaio; aldagai horren banaketa ez da erregularra geografari eta ikastetxe-motari dagokionez (1.3. atalean aztertu dira).

## 1.2. Matrikulen bilakaera

Jaiotze-tasaren bilakaerarekin eta immigrazioaren ekarpenarekin bat etorritik, eskola-biztanleriaren multzoak sistematikoki hazi dira eskolatzeko unibertsalaren lehenengo etapetan —Haur Hezkuntzako 2. zikloa eta Lehen Hezkuntza—, DBHn egonkortzea lortu dute, eta Batxilergoan nahiz Lanbide Heziketan behera egiten jarraitu dute.

### 1.2.1. Haur hezkuntzako lehen zikloa (0-3 urte)

Bestalde, Haur Hezkuntzako 1. zikloan (0-3 urte) izan den matrikula-igoera Gobernu Akordio bat betetzeari dago lotuta. Bere garaian, Familia Planean bi helburu zehaztu ziren 2005erako: 5 hilabete eta 2 urte arteko biztanleriaren %40rentzat plazak eskaintzea —0tik 2 urtera arteko tartea, “0-2 urte tartea”—, eta 2-3 urte arteko haur guztiei plaza bat ematea (“2 urteko maila” izena du).

Aurreko helburua lortzeko aurreikusitako epea gainditu eta ehuneko horiek lortzeko zailtasunak ikusita, helburu hori birformulatu zen; hau da, ikastetxe publikoetan urtero 1.000 plaza berri sortzeko konpromisoa hartu zen, “ahal zela, hiri-eremuetan”, eskariaren eta eskaintzaren artean desoreka handienak hautematen diren lekuan.

2005-06 eta 2007-08 ikasturteen arteko matrikulak alderatuz (aurreko txostenean eta txosten honetan aipatu dira), hain zuzen egiaztatu ahal izan da sare publikoan plaza berri gehiago sortu direla hartutako konpromisoan baino; hau da, 1.822 plaza 0-2 tartean (batez ere, Haurreskola partzuergoaren bitartez) eta beste 387 plaza 2 urteko mailan (1.3. eranskina).


**2005-06 eta 2007-08 ikasturteen artean, 0-3 urteko zikloaren matrikulan izandako bilakaera, bi tartetan: 0-2 tartea eta 2 urteko maila.**

		2005-06 ikasturtea		2007-08 ikasturtea		Azken bi mailletako $\Delta$	
		Matrikula	Estalduraren %	Matrikula	Estalduraren %	Matrikula	Estalduraren %
0-2 tartea	Publikoa	3.605	%10,9	5.427	%16,1	1.822	%5,2
	Pribatua	4.888	%14,8	5.751	%17,0	863	%2,2
	Guztira	8.493	%25,8	11.178	%33,1	2.685	%7,3
2 urteko maila	Publikoa	10.053	%52,2	10.440	%53,0	387	%0,8
	Pribatua	7.414	%38,5	7.751	%39,3	337	%0,8
	Guztira	17.467	%90,7	18.191	%92,3	724	%1,6
0-3 zikloa osorik	Publikoa	13.658	%26,2	15.867	%29,7	2.209	%3,5
	Pribatua	12.302	%23,6	13.502	%25,2	1.200	%1,6
	Guztira	25.960	%49,7	29.369	%54,9	3.409	%5,2

Bestalde, titulartasun pribatuko haur-eskolek, tipologia desberdinagoa dutenek, hazkunde txikiagoa izan dute: 1.200 plaza, guztira. Baimendutako haur-eskola horiez gain, baimena emateko baldintzak betetzen ez dituzten haurtzaindegien kopuru handia dago, eta horiek dagokien udalaren baimenarekin funtzionatzen dute. Azken establezimendu horiek ez daude Sailaren erroldan sartuta, eta 3 urtez azpiko haurren arretarako zentro pribatuen partaidetza-kuota erreala areagotzen dute.

Berriro ere 2005erako iragarritako lehen helburua oinarri hartuta —%40ko estaldura 0-2 tartean eta %100ekoa 2 urteko mailan—, egiaztatu ahal izan da helburua lortzeko oraindik 7 eta 8 puntu falta zaizkiela, hurrenez hurren. 0-2 tartean, hazkundera aipagarria izan da (%26tik %33ra pasa da), eta, beraz, erritmo berean jarraituz gero, urte gutxian helburua lortu ahal izango zen.

**0-2 tartean eta 2 urteko mailan artatutako haurren ehunekoak, dagozkien urteetan izandako jaiotzen arabera (matrikularen estaldura). 2005-06 eta 2007-08 arteko bilakaera.**



Aldiz, 2 urteko mailan plaza berriak sortzeari dagokionez —maila hori, normalean, geroko etapak ere eskaintzen dituzten zentroi atxikita egon ohi da, hezkuntza-sare batean zein bestean—, erritmoa nahiko baxua izan da, 724 plaza berri sortu baitira; hau da, %1,6ko igoera izan da, eta %92,3ra iritsi da.

- **0-2 tartearen bilakaera**

Euskadin, adin-tarte horri dagokionez, hazkunde handiagoa izan da sektore publikoan. Hazkunde horrekin bat etorriz, geografia-banaketan egiaztatu ahal izan da fenomeno hori konstantea dela hiru lurraldeetan; zenbakiei erreparatuta, Gipuzkoan dago kopururik handiena, estalduraren %40ko helburua lortu baita, eta, gainera, sektore publikoaren ezarpena handiagoa izan da<sup>1</sup>.

Aldiz, Bizkaian zentro pribatuek publikoen plaza-kopuru bikoitza dute; orain bi urte, aldiz, hirukoitza zuten.

Arabako eskaintza publikoa da batez ere; gainera, indartu egin dute, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zentro publikoetan 2 urteko gelak sortuz. Horren ondorioz, Gasteizko udal-haurtzaindegietan maila horren eskaintza gutxitu egin da, eta, horri esker, 0-2 tartearen eskaintza handitu ahal izango dute; era berean, ikastetxe kontzertatuak etapa hori eskaintzera bultzatuko ditu, bi sareen arteko orekari eusteko.


<sup>1</sup> Horri dagokionez, aurrez ohartarazi da udal-eskola batzuk, zehazki Gipuzkoan, neurri batean soilik direla publikoak, titulartasun pribatuko hezkuntza-proiektuekin baitaude lotuta (ikastolak).



**0-2 tarteko matrikularen bilakaera 3 lurralde historikoetan, sareen arabera.**

		2005-06 ikasturtea		2005-06 ikasturtea		Azken bi ikasturteen $\Delta$	
		Matrikula	Estalduraren %	Matrikula	Estalduraren %	Matrikula	Estalduraren %
Araba	Publikoa	829	%18	1.126	%23	297	%5
	Pribatua	322	%7	418	%8	96	%1
Bizkaia	Publikoa	1.050	%6	1.629	%10	579	%4
	Pribatua	3.125	%19	3.337	%20	212	%1
Gipuzkoa	Publikoa	1.726	%15	2.672	%23	946	%8
	Pribatua	1.441	%13	1.996	%17	555	%4
Euskadi	Publikoa	3.605	%10,9	5.427	%16,1	1.822	%5,2
	Pribatua	4.888	%14,8	5.751	%17,0	863	%2,2

Azken batean, Euskadi osoan orain bi urte zegoen eskaintzari dagokionez sareen arteko aldeak, %4koa, behera egin du, eta, orain, %1ekoa da: %17 ikastetxe pribatuetan eta %16 publikoetan.




Zehazki, biztanle gehiagoko udalerrien mailari dagokionez —azterketa lehenengo sei udalerrietara mugatu da—, intentsitate handiagoz hauteman dira eskaintza-egoeraren aldeak. Bereziki, eskaintza publikoari dagokionez, oraindik hutsala da zenbait udalerritan (esaterako, Getxon eta Leioan), non titulartasun pribatuko haurtzaindegiek %33ko estaldura izan duten 2007-08 ikasturtean; Bilbo, Barakaldo edo Irungo bi sareak elkartuta ere ez dira balio horretara iristen, ezta Gasteizen ere (1.4. eranskina).

**0-2 tarteko matrikula-kuotak biztanleria gehien duten Euskadiko udalerrietan, sareen arabera. 2005-06 eta 2007-08 ikasturteen arteko bilakaera.**

0-2 TARTEA	2005-06		2007-08		Azken bi ikasturteen $\Delta$	
	Ikastetxe publikoak	Ikastetxe pribatuak	Ikastetxe publikoak	Ikastetxe pribatuak	Ikastetxe publikoak	Ikastetxe pribatuak
Bilbo	%5	%19	%6	%18	%1	-%1
Gasteiz	%17	%7	%22	%9	%5	%2
Donostia	%11	%20	%15	%28	%4	%8
Barakaldo	%6	%21	%4	%19	-%2	-%2
Getxo + Leioa	%0	%20	%0	%33	%0	%13
Irun	%11	%8	%10	%13	-%1	%5

Eskaintako plaza guztiei dagokienez, Donostia nabarmendu behar da %43ko estaldurarekin: %28 zentro pribatuetan eta %15 publikoetan.




• **2 urteko mailaren bilakaera**

Maila honetan, matrikula orokortu egin da ia, eta, adierazi bezala, %92,3koa izan da 2007-08 ikasturtean; erdia baino dezente gehiago ikastetxe publikoetan eskolatu da —%53, eta pribatuan %40—, baina maila hau izan da era horretako alde bat izan den maila bakarra.

**2 urteko mailako matrikularen bilakaera hiru lurraldeetan, sareen arabera.**

2 URTEKO MAILA		2005-06		2007-08		Azken bi ikasturteen $\Delta$	
		Matrikula	Estalduraren %	Matrikula	Estalduraren %	Matrikula	Estalduraren %
Araba	Publikoa	1.623	%61	1.690	%61	67	%0
	Pribatua	710	%27	784	%28	74	%1
Bizkaia	Publikoa	5.001	%51	5.281	%52	280	%1
	Pribatua	3.850	%39	3.903	%39	53	%0
Gipuzkoa	Publikoa	3.429	%51	3.469	%51	40	%0
	Pribatua	2.854	%42	3.064	%45	210	%3
Euskadi	Publikoa	10.053	%52,2	10.440	%53,0	387	%0,8
	Pribatua	7.414	%38,5	7.751	%39,3	337	%0,8

Azken biurtekoan, bi sareetan zituzten kopuruek antzeko igoera izan dute, baina, bereziki, Gipuzkoako zentro pribatuetan izandako igoera nabarmendu da —jaiotza guztien %42 izatetik %45 izatera pasa baita—; hain zuzen, lurralde horretan izan da matrikulazio-indize orokor altuena (%96), Euskadiko batez bestekoa baino %3 handiagoa. Gainerako balioek antzeko mailetan jarraitu dute.




Biztanleria gehieneko udalerrien artean, Irun, Gasteiz eta Bilbo izan dira matrikulen ehuneko txikiak (%68, %83 eta %84, hurrenez hurren); izan ere, orain bi urteko datuekin alderatuz, igoera txikiak izan dira, eta, halakorik ezean, kopuruek behera egin dute, Bilbon gertatu den bezala (1.5. eranskina).

**2 urteko mailako matrikulen kuotak biztanleria gehien duten Euskadiko udalerrietan, sareen arabera. 2005-06 eta 2007-08 ikasturteen arteko bilakaera.**

2 URTEKO MAILA	2005-06			2007-08		
	Ikastetxe publikoak	Ikastetxe pribatuak	Estaldura, guztira	Ikastetxe publikoak	Ikastetxe pribatuak	Estaldura, guztira
Bilbo	%39	%45	%84	%41	%42	%83
Gasteiz	%56	%25	%81	%57	%27	%84
Donostia	%45	%53	%98	%44	%64	%108
Barakaldo	%58	%32	%90	%62	%38	%100
Getxo + Leioa	%40	%56	%96	%42	%52	%94
Irun	%36	%29	%65	%36	%32	%68

Eskaintza sareen arabera alderatuz, Donostia eta Getxo-Leioa nabarmendu behar dira sektore pribatuan, eta Gasteiz eta Barakaldo sektore publikoan.



## • 2 urteko mailaren okupazioa

Aurreko txostenean, 2005-06koa, hainbat adierazleri egin zitzaion erreferentzia, eskaintako plazen nahikotasuna kalkulatzeko; batez ere, 2 urteko maila honetan, funtsezkoa baita familiek egiten duten zentro-aukera zehazteko. Zentro publikoetan atzera botatako eskaerei buruzko zenbait datu sartu ohi ziren zuzeneko adierazletzat, eta, horiez gain, beste hiru erabiltzen ziren, zentro-mota guztietan ezartzen zirenak: udalerrri bateko ikasgelen batez besteko okupazioa, maila horri dagokionez guztiz beteta dauden zentroen eta horien ikasgelen proportzioa, eta araututakoa baino ikasle gehiago eskolatzen dituzten zentroen kopurua.

Horri dagokionez, kalkulua biztanle gehien dituzten udalerrietako ikastetxe publikoetara mugatu dugu; aurrekoan hauteman bezala, 2 urteko haurrentzako ikasgelen okupazioa oso handia da zentro kontzertatuetan, eta oso gutxik dituzte plazak libre.

Zentro publikoen batez besteko okupazioari dagokionez, biztanleria handiko 9 udalerrietatik 8tan izandako balio handiak nabarmendu behar dira (%90etik gertu edo gorago daudenak), Donostiakoan izandakoak izan ezik. Azpimarratu behar da neurri horren baitan sare publikoko zentro eta hizkuntza-eredu guztiak aztertu direla; horrenbestez, kasuren batean edo bestean, zentro bat herri-gunetik kanpo edo sarrera zaileko gune batean egoteak nahiz matrikula gutxiko hizkuntza-eredu bat izateak (normalean, A erdua) okupazioaren ehunekoa hainbat puntu jaistera eragiten dute.

**Zentro publikoetako 2 urteko mailako ikasgelen okupazioa, biztanle gehien duten udalerrietan. 2007-08 ikasturtea.**

2 URTEKO MAILA	Ikastetxe-kopurua	Ikasgela-kopurua	Eskaintako plazak	Matrikula	Okupazioaren %	Behar baino okupazio handiagoa duten zentroak/ikasgelak	Beteta dauden zentro eta ikasgelak
Bilbo*	35	70	1.260	1.198	%95	5 / 10	17 / 34
Gasteiz	32	71	1.278	1.224	%96	9 / 22	10 / 20
Donostia	17	48	864	662	%77	0 / 0	1 / 2
Barakaldo	13	26	468	454	%97	3 / 6	6 / 9
Getxo+Leioa	13	27	486	422	%87	1 / 2	3 / 4
Irun	7	15	270	236	%87	0 / 0	2 / 4

(\*) Bilbori dagokion datuak zonen arabera banatu dira 1.6. eranskinean.

Duten okupazio-maila altua dela-eta, Barakaldo, Gasteiz eta Bilbo nabarmendu dira; hiru hirietan, adin horretako ikastetxeen eta ikasgelen erdia baino gehiago beteta edo araudiak ikasgela bakoitzerako zehazten duen ratioaren (18 ikasle/ikasgela) gainetik daude. Bilbori dagokionez, 2 urteko mailaren eskaintza publikoan dagoen eskasia handia da oso Alde Zaharrea, Abandon eta Errekalden (Bilbo bere 6 barrutitan banatu da, eta banaketa hori 1.6. eranskinean aurkeztu da).

0-3 tarteko finantziazio-gaiak txostenaren azken kapituluaren sartu dira.


### 1.2.2. Matrikularen bilakaera orokorra, hezkuntza-etapen eta -sareen arabera

- **Haur Hezkuntzako 2. zikloa**

Matrikula, oro har, %3 baino gehiago hazten da urtean, modu iraunkorrean, eta azken ikasturte honetan %3,9 arte hazi da; Arabari dagokionez, %5,7 arte iritsi da ehuneko hori (1.7. eranskina).


#### Haur Hezkuntzako 2. zikloko ikasleen bilakaera orokorra, lurraldeen arabera.

Lurraldea	99-00	00-01	01-02	02-03	03-04	04-05	05-06	06-07	07-08	1999-2003 aldiko urteko $\Delta$	2003-07 aldiko urteko $\Delta$	Azken ikasturteko $\Delta$
Araba	6.411	6.612	6.800	6.992	7.340	7.613	7.825	8.077	8.534	%3,6	%4,1	%5,7
Bizkaia	24.314	24.559	24.801	25.627	26.333	27.372	28.414	29.265	30.315	%2,1	%3,8	%3,6
Gipuzkoa	16.370	16.768	17.045	17.607	17.937	18.440	18.867	19.376	20.090	%2,4	%3,0	%3,7
Euskadi	47.095	47.939	48.646	50.226	51.610	53.425	55.106	56.718	58.939	%2,4	%3,6	%3,9



Igoera kuantitatibo hori antzera banatzen da bi sareen artean; **sare publikoa** Araban nabarmendu da, %56 lortu baitu (etapa horretako eta beste batzuetako datuak 1.7. eranskinean daude).

**Sare publikoko ikasleen ehunekoaren bilakaera. Haur Hezkuntzako 2. zikloa**




• **Lehen Hezkuntza**

Ikasleek hazkunde-erritmoa bizkortu dute, eta, azken urtean, %3 baino hazkunde handiagoa izan da.


**Haur Hezkuntzako ikasleen bilakaera orokorra, lurraldeen arabera.**

Lurraldea	99-00	00-01	01-02	02-03	03-04	04-05	05-06	06-07	07-08	1999-2003 aldiko urteko Δ	2003-07 aldiko urteko Δ	Azken ikasturteko Δ
Araba	14.224	13.726	13.531	13.629	13.722	13.879	14.239	14.871	15.446	-%0,9	%3,1	%3,9
Bizkaia	53.020	51.542	50.673	50.661	50.698	50.809	51.761	53.353	55.161	-%1,1	%2,2	%3,4
Gipuzkoa	32.839	32.246	32.156	32.849	33.382	33.774	34.600	35.635	36.722	%0,4	%2,5	%3,1
Euskadi	100.083	97.514	96.360	97.139	97.802	98.462	100.600	103.859	107.329	-%0,6	%2,4	%3,3



Sare publikoa %49,2ra iritsi da, eta Araban gora egin du (%55,7).

**Sare publikoko ikasleen ehunekoaren bilakaera. Lehen hezkuntza**




- **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)**

Etapa honetako ikasle-kopurua egonkortu egin da, bi hamarkadatan etengabe behera egin eta gero; Gipuzkoan, gainera, gora egiten hasi da berriro.


**DBHko ikasleen bilakaera orokorra, lurraldeen arabera.**

Lurraldea	99-00	00-01	01-02	02-03	03-04	04-05	05-06	06-07	07-08	1999-2003 aldiko urteko $\Delta$	2003-07 aldiko urteko $\Delta$	Azken ikasturteko $\Delta$
Araba	12.581	11.844	11.134	10.722	10.483	10.181	10.136	10.022	9.986	-%4,2	-%1,2	-%0,4
Bizkaia	47.011	44.400	42.120	39.763	38.401	37.354	36.750	36.145	35.891	-%4,6	-%1,6	-%0,7
Gipuzkoa	26.547	25.318	24.495	23.662	23.336	22.968	22.758	22.731	23.004	-%3,0	-%0,4	%1,2
Euskadi	86.139	81.562	77.749	73.747	72.220	70.503	69.644	68.898	68.881	-%4,0	-%1,2	%0,0



Sare publikoak (%44,0) hazten jarraitzen du 2002-03 ikasturtean izandako %41eko gutxienekotik abiatuta; baina, oraindik, oso urrun du sare pribatua. Salbuespena Araba da, zentro kontzertatuetako matrikula %57ren inguruan egonkortu baita (%43 zentro publikoetan).

**Sare publikoko ikasleen ehunekoaren bilakaera. DBH**




- **Batxilergoa**


Derrigorrezko irakaskuntzaren ondoko ikaskuntzetan, oro har, matrikula-kopuruaren gorakada 2010. urtetik aurrera hasiko da berriro, jaiotze-tasaren mailarik baxuena 1994 eta 1995 urteetan izan baitzen; hain zuzen, %3,1 jaitsi da azken ikasturte honetan, eta, zehazki, Gipuzkoan, zerbait gutxiago (%1,6).

**Batxilergoko ikasleen bilakaera orokorra, lurraldeen arabera**

Lurraldea	00-01	01-02	02-03	03-04	04-05	05-06	06-07	07-08	1999-2003 aldiko urteko $\Delta$	2003-07 aldiko urteko $\Delta$	Azken ikasturteko $\Delta$
Araba	5.843	5.525	5.386	4.910	5.040	4.963	4.664	4.462	-%5,3	-%2,3	-%4,3
Bizkaia	21.155	19.428	17.850	16.963	16.740	15.911	15.438	14.873	-%6,6	-%3,1	-%3,7
Gipuzkoa	12.656	11.892	11.233	10.758	10.398	10.289	9.941	9.777	-%5,0	-%2,3	-%1,6
Euskadi	39.654	36.845	34.469	32.631	32.178	31.163	30.043	29.112	-%5,9	-%2,7	-%3,1



Sareen araberako banaketan, egiaztatu ahal izan da batxilergoko matrikulen beherakada orokorrak eragin berezia duela sare publikoan; zehazki, azken bi urteetan, ehuneko bat jaitsi da, eta %52,5era iritsi da.


**Sare publikoko ikasleen ehunekoaren bilakaera. Batxilergoa**

- **Lanbide Heziketa**

Eta horretako matrikulen jaitsiera Batxilergoan hautemandakoaren antzekoa da, %3 baino apur bat baxuagoa; dena den, erritmoa moteldu egin da, apur bat.

**Lanbide Heziketako ikasleen bilakaera orokorra, lurraldeen arabera.**


Lurraldea	99-00	00-01	01-02	02-03	03-04	04-05	05-06	06-07	07-08	1999-2003 aldiko urteko $\Delta$	2003-07 aldiko urteko $\Delta$	Azken ikastur. $\Delta$
Araba	3.962	4.398	4.528	4.584	4.627	4.598	4.413	4.166	4.060	%4,2	-%3,1	-%2,5
Bizkaia	12.169	14.157	15.218	15.087	14.705	14.435	14.134	12.954	12.645	%5,2	-%3,5	-%2,4
Gipuzkoa	10.134	10.653	10.544	10.158	9.771	9.684	9.406	8.819	8.509	-%0,9	-%3,2	-%3,5
Euskadi	26.265	29.208	30.290	29.829	29.043	28.717	27.953	25.939	25.214	%2,6	-%3,3	-%2,8





Sareen araberako banaketari dagokionez, ziklo bakoitzean duten ezarpen-maila desberdina aipatu behar da: Erdi Mailan sare publikoa da nagusi (%56,7), eta Goi Mailan sare pribatu kontzertatua apur bat aurretik dago (%50,6); etapa osoa kontuan hartuta, berriz, sare publikoak %52,4 du guztira.


Sare publikoko ikasleen ehunekoaren bilakaera. Lanbide Heziketa



- **Etapen laburpena**

Sare publikoak sistema osoan izan duen parte-hartzearen bilakaera laburtzeko, honako taula hau erabil dezakegu, etapa desberdinen arabera.


Sare publikoko matrikulen ehunekoa, 1999-2000 eta 2007-08 ikasturteen artean, etapen arabera.



### 1.2.3. Hezkuntza-sareen arteko geografia-banaketa

Egungo eskola-mapako 56 zonen banaketan (1. mapa), Oinarrizko Hezkuntzako bi etapak aztertuz, argiago ikusten dira sareen arteko desberdintasunak; horrez gain, hauteman da Bilbo Handian eta Donostialdean daudela ikastetxe pribatuen ezarpen handiena, ia guztiak kontzertatuak.

1. mapa. Oinarrizko Hezkuntzako (6-16 urte) ikastxe publikoetan matrikulatutako ikasleen ehuneko, Euskadiko eskola-mapako 56 zonen arabera. 2007-08 ikast.




Bilbo Handiari dagokionez, hiria banatzen den sei barrutietatik maila sozio-ekonomiko baxuena dutenetan soilik gainditzen da matrikulen %40ko hesia sare publikoan (Errekalden eta Txurdinagan); eskuinaldeari dagokionez, berriz, Erandio udalerrian da ehuneko hori baino handiagoa.

Era berean, Donostiako 3 barrutietan, ikastetxe publikoetako matrikula %40ren azpitik edo inguruan dago; aldiz, Hernani eta Lasarte inguruko zonetan, %90 eta %70 hartzen dute, hurrenez hurren.

Zentro kontzertatuen partaidetza handiko hirugarren zona (nahiz eta ikaslebolumena txikiagoa izan) Gipuzkoa barrualdean dago, Arrasaten eta Urola Garaian.

Azken bi urteetako bilakaeran, Euskadi osoko Oinarrizko Hezkuntzaren sare publikoan izan den matrikula %1,1 hazi da, eta %47,2ra iritsi da; matrikula-kopurua gehien hazi den hiriburua Gasteiz izan da, eta Bilbon ere gora egin du, nahiz eta batez bestekoaren azpitik izan (1.8. eranskina).

**Sare publikoko matrikularen bilakaera hiru hiriburuetan. Oinarrizko Hezkuntza, azken biurtekoa (2006-2008)**




Bilboko (%39) eta Donostiako (%34) balioen arteko konparazioari dagokionez, aurrez ohartarazi da udalerrri horietako zentroetan matrikulatutako ikasleei dagokiela eta ez horietan bizi direnei. Hain zuzen, Bilboko matrikula-kopuru handi bat inguruko zonetara joaten da, Txorierrira, batez ere; aldiz, Donostian ugariak dira inguruko zonetan bizi diren ikasleen matrikulak. Bi kasuetan, matrikula horiek egiten diren zentroak pribatuak dira. Azken batean, zentro publikoetara joaten den biztanleria egoiliarra neurtzen bada, aurreko proportzioak buelta ematen du eta Bilbo Donostiaren azpitik gelditzen da.

### 1.3. Ikasle etorkinak

Euskadiko ikastetxeetan, ikasle etorkinak metatze-sistemaren bidez neurtzen dira, eta ez du bereizketarik egiten, ikasle horrek gure sisteman daraman eskolatzedenboraren arabera. Informazio-iturritzat Sailak 2008ko irailean Eusko Legebiltzarrera bidalitako dokumentu bat hartu dugu; 2007-08 ikasturte-amaierari buruzko datuak ditu, eta, beraz, denbora-epe zehatz bateko (2 urte) bilakaera azter daitekeela esan nahi du, aurreko datuak 2006ko ekainekoak baitziren. Erreferentziatzat hartutako dokumentuaren ezaugarrien arabera, 2005-06 aldiko aurreko txostena neurtuta, arreta Oinarrizko Hezkuntzan jarri da; hau da, Lehen Hezkuntzan eta DBHn (1.9. eranskina).

Immigrazioak etapa horietan duen eragina %7koa da; zehazki, Araban eta Bizkaian handiagoa da ehuneko hori, eta hazkundera ere handiagoa da.


**Oinarrizko Hezkuntzako ikasle etorkinen ehunekoa, lurraldeen arabera. 2006-2008 aldiko bilakaera**



Mapa zonen arabera banatzeari dagokionez, hauteman da Bilbon eta inguruetan multzo hori gero eta gehiago ari dela hazten, eta, horrenbestez, Gasteiz bigarren lekura pasa da. Bereziki, ikasle etorkinak %10 baino gehiago diren 8 zonei dagokienez, Bilboko 6 eskola-zonetako 4 sartzten dira bertan, Erandioz gain; Vitoria-Gasteizko hiru zonetatik bi ere erregistro horretan sartzten dira. Aldiz, Donostiako 3 zonetako bitan, portzentajea %4 ingurukoa da.

Errekalden, ikasle etorkinak %19 dira, Alde Zaharrea %17 eta Gasteiz iparraldean %15 (1.10. eranskina eta 2. mapa).

2. mapa. Oinarrizko Hezkuntzako ikasle etorkinen ehunekoa, Euskadiko eskola-mapako 56 zonen arabera. 2008ko ekaina.




Azken biurteko honetako hazkundeari dagokionez, Igorreren (%5 baino gehiago) atzetik Errekalde agertu da berriro (%4), Bermeo, Barakaldo, Amurrio eta Oria Garaiarekin batera.

**Ikasle etorkinen matrikulan hazkunde handia izan den zonak. Oinarrizko Hezkuntza, azken biurtekoa (2006-2008)**

		Ikasle etorkinen %		
		2006ko ekaina	2008ko ekaina	Azken 2 urteetako $\Delta$
436	Errekalde	%15,0	%18,9	%3,9
434	Alde Zaharra	%14,2	%16,6	%2,4
394	Erandio	%10,2	%13,0	%2,8
341	Igorre	%7,4	%12,8	%5,4
432	Uribarri	%8,2	%10,7	%2,5
311	Bermeo	%6,5	%9,9	%3,4
125	Mendebaldeko Araba	%7,2	%9,7	%2,5
411	Barakaldo	%6,0	%9,1	%3,1
111	Amurrio	%5,0	%8,1	%3,1
141	Mendebaldeko lautada	%5,6	%8,1	%2,5
231	Oria Garaia	%5,0	%8,0	%3,0


Horrenbestez, bertako ikastetxeetan duten ikasle etorkinen ehunekoari dagokionez, Bilbo da hiru hiriburuetatik lehena.

**Ikasle etorkinen matrikulan bilakaera, hiru hiriburuetan. Oinarrizko Hezkuntza, azken biurtekoa (2006-2008)**



Hezkuntza-sareen araberako banaketari dagokionez, zentro publikoek (%9,3) ia bikoiztu egiten dute zentro pribatuetako portzentaia (%5,0); dena den, banaketa-ekitatearen aldeak oso handiak dira, lurraldeen arabera. Hau da, zentro pribatuetako tasak ez du aldaketa handirik lurralde batetik bestera —batez bestekoaren %5en inguruan dago—; aldiz, zentro publikoetan aniztasuna da nagusi; %13 Araban, %11 Bizkaietan eta %5 Gipuzkoan.

**Oinarrizko Hezkuntzako ikasle etorkinen ehunekoa, sareen eta lurraldeen arabera. 2008ko ekaina.**




Ikasle etorkinen kopuru handia duten zentroak aztertuz ondorioztatu da gehienak publikoak direla, aurreko datuarekiko koherentziari eutsiz; nolana ere, badira ikasle etorkinak ikasle guztien %40 baino gehiago diren ikastetxe kontzertatuak ere.

**Ikasle etorkinak eskolatzen dituzten zentroak, ikasle horiek ikastetxearen guztizkoan duten ehunekoaren eta hezkuntza-sareen arabera. Euskadi, 2008ko iraila.**

Eskolatutako biztanleria etorkinaren ehunekoa	Ikastetxe publikoak		Ikastetxe pribatu-konzertatuak	
< %5	198	%44	142	%63
%5-10	96	%21	39	%17
%10-20	93	%21	27	%12
%20-40	40	%9	11	%5
> %40	20	%4	5	%2
<b>Ikastetxe guztiak</b>	<b>447</b>	<b>%100</b>	<b>224</b>	<b>%100</b>

Patronal desberdinen arteko aldeak oso nabarmenak dira; izan ere, Kristau Eskolak Euskadiko batez bestekoa du (%7), eta, aldiz, Partaidek nahiz gainerako patronalek %2 baino apur bat gehiago dute.

**Oinarrizko Hezkuntzako ikasle etorkinen ehunekoa, sareen eta patronalen arabera. 2006-2008 aldiko bilakaera**



Bereizketa-joera hori izan arren, zenbait zonatan, ikasle etorkinak eskolatutako ikasle guztien proportzio berean banatzen dira sareetan; esaterako, bai Gipuzkoan (ohikoa da), bai Bizkaiko zenbait zonatan (Errekalde, Deustu, Barakaldo edo Sestao), bertan bizi diren ikasle etorkinak maila berean banatzen dira sare bateko zein besteko zentroetan (1.11. eranskina).


Aldiz, beste zona batzuetan egoera bestelakoa da. Esaterako, Getxok eta Leioak osatzen duten zonan, zentro publiko gutxi daude, eta horietan ikasle etorkinen ehunekoa (%17) sei bider handiagoa da zentro pribatuetakoa baino (%3tik behera); zona horretako zentro pribatu guztiak kontzertatuak dira, bat izan ezik. Mungian, proportzioa bost bider baino handiagoa da, eta Gasteiz hegomendebaldean, Abando eta Sestaon ere etorkinen tasa hirukoitza baino gehiago da.

**Ikasle etorkinen matrikulen aldea, sareen arabera, talde horrek Euskadiko batez bestekoa (%7) baino agerpen handiagoa duen zonetan. Oinarrizko Hezkuntza. 2007-08 ikasturtea**

Kodea – Eskola-zona		Ikasleak guztira	Ikasle etorkinen %			Publikoen eta pribatuen ratioa
			Ikastetxe guztiak	Publikoak	Pribatuak	
436	Errekalde	1.995	%18,9	%19,0	%18,7	1,0
434	Alde Zaharra	3.323	%16,6	%21,3	%14,0	1,5
122	Gasteiz iparraldea	4.352	%15,1	%16,9	%11,0	1,5
435	Abando	6.985	%12,3	%23,3	%6,0	3,9
432	Uribarri	3.433	%10,7	%18,1	%8,2	2,2
123	Gasteiz – hegomend.	11.071	%9,7	%20,1	%4,4	4,6
431	Deustu	3.965	%9,3	%7,4	%10,4	0,7
411	Barakaldo	4.360	%9,1	%10,3	%7,7	1,3
382	Mungia	1.866	%8,9	%14,4	%2,6	5,5
312	Urdaibai	2.042	%8,4	%5,1	%11,8	0,4
391-392	Leioa-Getxo*	10.186	%8,2	%16,7	%2,8	6,0
231	Oria Garaia	3.691	%8,0	%7,2	%9,3	0,8
421	Sestao	1.887	%7,3	%10,2	%2,9	3,5
273	Donostia ekialdea	2.581	%7,1	%7,4	%6,8	1,1

\* 391 eta 392 zonak (“Leioa” eta “Getxo”) geografia-irizpide desberdinen arabera daude eraturita Lehen Hezkuntzan eta DBHn; hemen, bi zonetako emaitzak metatzea hartu da irizpide orokortzat.


Hiru hiriburuak alderatuz, alderik handiena Gasteizen dago, Getxo eta Leioaren erregistroetatik oraindik urrun (1.12. eranskina).






Aldiz, hizkuntza-ereduen arteko aldeak oso nabarmenak dira. Bi hezkuntza-sareak batera hartuta, A ereduiko ikasgeletan, ikasle etorkinak ikasle guztien %18 dira ia; ostera, D ereduari ez dira %4 iristen, nahiz eta orain dela bi urte zuten %2tik gora egin.

**Oinarrizko Hezkuntzako (6-16 urte) ikasle etorkinen ehunekoa, hizkuntza-eredu bakoitzean. 2006-2008 aldiko bilakaera.**



Bi faktoreak, sareak eta ereduak konbinatzean, aldeak muturreraino iristen dira; hau da, %38 sare publikoko A ereduari, eta %2,5eko gutxienezko zentro kontzertatuak D ereduari.

**Ikasle etorkinen ehunekoa ikasgeletan, sarean eta hizkuntza-ereduen arabera. Oinarrizko Hezkuntza, 2008ko ekaina.**




Hurrengo atalaren amaieran, deskribapen bat egin da, eta, bertan adierazi denaren arabera, ikasleak hezkuntza-sarean eta hizkuntza-ereduen arabera sailkatzean, beren maila sozio-ekonomiko eta kulturalaren arabera ere geratzen dira sailkatuak.

## 1.4. Hezkuntza-sistemaren hizkuntza-plangintza

Eskola-plazen eskaerak hizkuntza-ereduen arabera hainbat etapatan izaten duen bilakaera aztertuz, argi ikusten da familiek lehenengo eskolatze-unean egiten duten aukera, aldaketa gutxi izaten baitira. Zehazki, Haur Hezkuntzan, D ereduaren aldeko aukerak guztizkoaren bi heren izan du 2007-08 aldian, eta, ostera, A ereduaren, matrikulen %7 izan da.

Etenak dituen etapa bakarra Lanbide Heziketarena da, bost ikasletik batek egiten baititu ikasketak euskaraz; aldiz, Batxilergoan, D ereduaren %50era iristen da ia (1.13. eranskina). Lanbide Heziketaren euskalduntzea bultzatzeko, eta D ereduko beste lerro batzuk irekitzeko adina matrikula lortzeak dituen zailtasunak aintzat hartuta, Sailak euskaraz eskaintzen ditu A ereduko zenbait modulu, betiere hori eskatzen duten gutxieneko ikasle-kopuru bat badago; horretarako, taldea bitan banatzen da gai horiek lantzean. Lanbide Heziketako matrikulen %3 egoera horretan dago, zentro kontzertatuetan, bereziki (azken hauen matrikulen %6).

**Hainbat hezkuntza-etapatako ikasleen banaketa, hizkuntza-ereduen arabera. 2007-08 ikasturtea. Ikastetxe guztiak**



Euskalduntzearen etengabeko aurrerapen hori honakoa izan da azken biurtekoan (2007-08): %2,7ko hazkundea Oinarrizko Hezkuntzako D ereduaren eta %3,2ko jaitsiera korrelatiboa A ereduaren.


**Oinarrizko Hezkuntzako hizkuntza-ereduen bilakaera, 2005-06 eta 2007-08 ikasturteen artean**

Ereduak	2005-06		2007-08		Azken bi mailetako $\Delta$	
	Matrikula	%	Matrikula	%	Matrikula	%
A	31.549	%18,5	26.907	%15,3	-4.642	-%3,2
B	47.939	%28,2	50.696	%28,8	2.757	%0,6
D	90.756	%53,3	98.607	%56,0	7.851	%2,7
Guztiak	170.244	%100,0	176.210	%100,0	5.966	%0,0

Sareak elkarren artean alderatuz, sare publikoko euskalduntzea askoz ere handiagoa izan da 2007-08 ikasturtean; hain zuzen, Haur Hezkuntzako 2. zikloan D ereduaren eskaera %85ekoa izan da, eta A ereduarena, berriz, %2ra soilik iritsi da,

nahiz eta azken eredu horretan ikasgela bakoitzeko ikasleen ratioak txikiagoak izan diren orokorrak baino.

**Hainbat hezkuntza-etapatako ikasleen banaketa, sareen eta hizkuntza-ereduen arabera. 2005-06 ikasturtea**




Euskalduntzeari dagokionez hezkuntza-sisteman izan den bilakaera geografiaren arabera kuantifikatzeko, zenbakizko adierazle bat erabili da, aurreko txostenean bezala (e.i.: euskalduntze-indizea). Eredu bakoitzak zonan dituen ezarpen-mailak konbinatzen ditu indize horrek, 0-100 arteko eskala batean; beraz, 100 zenbakiak adieraziko du zentro guztiek D ereduan soilik irakasten dutela, 0 zenbakiak guztiek A ereduan irakasten dutela eta, azkenik, 50 zenbakia B eredua adierazteko erabiliko da.

DBH etapa aukeratu da, aurreko bi etapak baino alde handiagoak islatzen baititu; gainera, adin-tarte bereko ikasle guztiak hartzen ditu, derrigorrezko etapa baita. Horrez gain, ISEI-IVEI erakundeak egindako B2 hizkuntza-mailaren probetara aurkeztu diren ikasleen eskolatzee-unea islatzen du.

Euskadiko mapak oso desberdinak diren bi zona bereizten ditu, ia tarteko eremurik gabe. Iparraldean eta ekialdean, euskalduntze-indizea 80 baino handiagoa da eta 100era iristen da 4 zonan; ostera, mendebaldean, Bilbo Handian eta Gasteizen, indizea ez da 50eko mugara iristen 11 zonan, eta, Euskadi osoan, 65 da etapa horretako indizearen batez bestekoa.

Bilbo inguruan, honako udalerrri hauek azpimarratu behar dira, dituzten balio baxuak direla-eta: Uribarri (33), Abando (34), Barakaldo (40), Txorierrri (40), Gurutzeta (42), Errekalde (43), Getxo-Leioa (46) eta Abanto (50) (3. mapa eta 1.14. eranskina).

3. mapa. DBHko euskalduntze-indizea, Euskadiko eskola-maparen 56 zonen arabera. 2007-08 ikasturtea. Ikastetxe guztiak



2007-08 ikasturterako adierazitako euskalduntze-indizearen balioen baitan, bilakaera-erritmo desberdinak egiaztatu dira 2005-06koarekin alderatuta. Euskalduntze-maila txikiagoa edo atzeratuagoa duten barrutien taldean, Gasteizen eta Getxon erritmo motelagoan ari dira aurreratzen Bilboko beste zona batzuetan (Uribarri, Errekalde eta Deustun) edo ezkeraldekoko beste batzuetan (Gurutzeta, Santurtzi edo Abanto) baino.

**DBHn euskalduntze-maila txikiagoa duten zonen bilakaera 2005-06 eta 2007-08 ikasturteen artean**

Zona		Euskalduntze-indizea		
		2005-06	2007-08	Azken bi ikasturteen $\Delta$
122	Gasteiz iparraldea	49	59	10
434	Alde Zaharra	48	53	5
431	Deustu	47	54	7
423	Santurtzi	45	52	7
121	Gasteiz mendebaldea	44	49	5
372	Abanto	43	50	7
391-392	Leioa/Getxo	42	46	4
123	Gasteiz - hegomendebaldea	37	37	0
436	Errekalde	36	43	7
381	Txorierri	34	40	6
411	Barakaldo	34	40	6
412	Gurutzeta	33	42	7
435	Abando	29	34	5
432	Uribarri	25	33	8
125	Mendebaldeko Araba	12	18	6

*A ereduari* dagokionez, hainbat egoera islatzen ditu hiru hizkuntzak lantzeko intentsitatean. Curriculumeko hizkuntza bakoitzean irakasten diren orduen ehunekoa aintzat hartuta, guztietan gaztelania da gehien erabiltzen den irakas-hizkuntza; bestalde, zenbait zentrotan, bi edo hiru hizkuntza lantzen dira ingelesa bigarren edo hirugarren irakas-hizkuntzat hartuta.

Kopuruari dagokionez, ezar daitezkeen modalitate horien bereizketa alde batera utzita eta sarrera-mailak oinarri hartuta, A ereduak %7 lortu du 2007-08 ikasturtean sistema osoko Haur Hezkuntzaren 2. zikloan —3-5 urteko haurrak—; zehazki, %11 sare pribatuan eta %2 publikoan.

3 urteko mailan, A eredu eskaintzen duten ikastetxeen artean 33 dira 20 ikasle baino gehiago matrikulatu dutenak; horietatik bi bakarrik dira publikoak. Bestalde, 3 urteko mailako A ereduarekin jarraituz, 7 zentrotan daude 40 ikasle baino gehiago, eta horietatik bakarra da sektore horretako patronal nagusiarena, Kristau Eskolarena.

**3 urteko mailako A (edo X) ereduari 20 ikasle baino gehiago matrikulatuta dituzten zentroak, hezkuntza-sareen eta patronalen arabera. 2007-08 ikasturtea.**


		3 urteko ikasleen kopurua A ereduari			
		>60	41-60	21-40	Guztira
Ikastetxe publikoak		0	0	2	2
Ikastetxe pribatuak	Kristau Eskola	0	1	12	13
	AICE	2	0	4	6
	Sailkatu gabeko pribatuak	1	2	4	7
	Irakaskuntza-kooperatibak	0	1	4	5
Ikastetxe guztiak		3	4	26	33

*Hizkuntza-ereduen sistemari ezarritako ekitate-adierazleei* dagokienez, aurreko atalean jada ikusitakoaren arabera, "hezkuntza-sarea — hizkuntza-eredua" bikoteak lotura du ikasle etorkinen banaketa ez proportzionatu edo zuzenarekin (ekitatiboarekin). Oro har, elkarlotutako bi aldagai horiek 6 taldeko sailkapen bat eratzen dute; hain zuzen, sailkapen horren arabera, sare publikoko A eta B ereduari ikasleak errenta baxuagoko gizarte-sektoreei dagozkie; sektore publikoko D ereduari eta sektore pribatuari B ereduari ikasleak tarteko mailan kokatzen dira; eta, azkenik, sektore pribatuari A eta D ereduari, maila sozio-ekonomiko eta kultural handiagoko ikasleak sartzen dira.

Ikasleak sareen eta hizkuntza-ereduen arabera sailkatzean, banaketa ez da proportzionatua eta orekatua; hain zuzen, PISAren azterketek hala adierazten dute, ikasleen maila sozio-ekonomiko eta kulturalaren indizearen (ISEK) bidez. Eskalaren balio ertaina 0 da; balio positiboek batez bestekoa baino maila sozio-ekonomikoaren eta lan-estatusaren indize altuagoa adierazten dute, eta, ostera, negatiboek kontrakoak. Aurreko txostenaren finantziario-kapituluan, jada azaldu zen Euskadiko ikasleen maila sozio-ekonomiko eta kulturalaren indizea (ISEK) baxuagoa dela apur bat ELGEko batez bestekoa baino, nahiz eta errenta-sarrera askoz handiagoak izan.

Nolanahi ere, euskal ikasleen maila sozio-ekonomiko eta kulturalaren batez besteko indizeak gora egin du 2003an eta 2006an ezarritako bi proben artean; hau da, -0,10 izatetik -0,04 izatera pasa da, ELGEko herrialdeen batez bestekotik oso gertu. Aldi berean, joera orokor horri jarraiki, adierazitako sei sektore horietatik lautan estatus-maila hobetu egin da; zehazki, behera egin duten biak honako hauek izan dira: sare publikoko B ereduari —apur bat jaitsi da, -0,42tik -0,44ra— eta, funtsean, sare publikoko A ereduari, -0,30etik -0,75era jaitsi baita.

PISAk egindako probetan ikasleen maila sozio-ekonomiko eta kulturalaren indizeak (ISEK) izan duen bilakaera, hezkuntza-sareen eta hizkuntza-ereduen arabera, 2003 eta 2006 ikasturteen artean (15 urteko ikasleak).



Aintzat hartu behar da proba egiteko unean (2006an), zentro publikoetan DBHko 4. mailan zeuden A ereduko ikasleak promozio edo adin-tarte hartako ikasle guztien %8,5 zirela, ikuspegi kuantitatibotik ere kontuan izan behar den sektore bat.

Erreferentziazko nazioarteko adierazle hori (ISEK) osatu egin da Kontseiluaren txostenetan, ikasle bekadunen ehunekoaren adierazleekin —behin bakarrik neurtu ziren 2004-05 aldiko datuak oinarri hartuta— eta ikasle etorkinen ehunekoaren adierazleekin —orain eguneratuta daude—. Hiru adierazleen artean korrelazio handia dagoela hauteman daiteke, unean uneko irregulartasunekin.

#### Hezkuntza-sareen arabera hizkuntza-ereduen, maila sozio-ekonomikoaren eta ebaluazio-emaitzen arteko korrelazioa

		Ikastetxe publikoak			Ikastetxe pribatuak			Guztira
		A eredua	B eredua	D eredua	A (edo X) eredua	B eredua	D eredua	
DBHko 4. Mailako ikasleen % (2007-08)		%7	%5	%30	%19	%18	%21	%100
Adierazle sozioeko.	ISEK (PISA 2006)	-0,75	-0,44	-0,10	0,18	0,03	0,09	-0,04
	Ikasle bekadunen % (2004-05)	%70	%49	%39	%32	%38	%28	%35
	Ikasle etorkinen % (2007-08)	%38	%15	%4	%8	%5	%2	%7
Ebaluazio-adierazleak	Curriculum Aniztasunaren % (2007-08)	%18	%8	%7	%6	%2	%3	%6
	Graduatuen % (2007-08)	%69	%88	%92	%89	%91	%94	%90
	PISA 2006ko punt.-Matematikak	416	485	497	508	517	517	501
	PISA 2006ko punt. - Zientziak	436	477	487	514	505	501	495
	TIMSS 2007ko punt.- Matemat.	432	500	496	510	497	510	499
	TIMSS 2007ko punt. - Zientziak	448	502	493	514	494	503	498

(\*) DBHko 3. eta 4. mailako ikasleak

Era berean, aipatutako adierazleen eta ebaluazio-emaitzen arteko korrelazioa hauteman daiteke. Curriculum anitzeko programan dauden ikasleen ehunekoaren nazioarteko proben emaitzak aurreikusteko balio dezake, curriculum egokitzen zaien

ikasleak baitira, bai edukiei dagokienez, bai metodoei dagokienez. Graduatuen ehunekoak zentroek egiten duten ebaluazioari emandako erantzuna da, eta, egindako ikaskuntzen emaitzez gain, etorkizuneko eskolatze-prozesuak eta -ikuspegiak ere kontuan hartzen dituzte. Aurreko bi horiek ez bezala, nazioarteko ebaluazioa eredu estandarizatuek arautzen dute; txosten honetan, zehazki, ISEI-IVEI erakundeak azken bi urteetan argitaratutako emaitzak jaso dira: PISAren 2006ko azterlanaren Zientziak eta Matematikak atalak, eta TIMSSen 2007ko azterlanaren irakasgai berdinak.

Kasu guztietan, ikasleak “hezkuntza-sarea — hizkuntza-eredua” bikotearen arabera sailkatzean, sailkapen sozio-ekonomiko bat egiten da, eta horrekin batera emaitzak ere mailakatzen ditu; mailakatze horren arabera, sare publikoko A eredu diskriminatuta gelditzen da, zentzu negatiboan. Honen jarraian, Euskadiko eta nazioarteko batez bestekotik askoz ere hurbilago, sare publikoko B eredu dago. Gainera, bi segmentuetan duten nagusitasun-posizioa dela-eta, ikasle etorkinek batez bestekoa baino emaitza askoz ere txarragoak izaten dituzte.

Arazoi horien ondorioz, Euskadiko Eskola Kontseiluaren erabakietan hizkuntza-ereduen egungo esparrua aldatzeko premia azpimarratzen denean, ikaskuntza-emaitzak hobetzea lortzeaz gain, sareen eta ereduaren sistemak berak egiten duen sailkapena gainditu nahi da; horrela gizarte-kohesio handiagoa lortu nahi da.

## 1.5. Balorazioak eta proposamenak

---

Hezkuntza-plangintzaren hastapena premiak identifikatzea da. Txostenean adierazi bezala, oinarrizko planoan gehien hautematen den premia sisteman behar beste eskola-plaza izatea da, biztanleriaren hezkuntza-premiei erantzuteko adina; horrela, bermatuta egongo da norberak nahi duen zentroa libreki aukeratzea. Aurreko helburuak bezain garrantzitsuak dira desberdintasunak berdintzea, aukera-berdintasuna bermatzea eta ekitatea sistemaren oinarrizko ardatz bihurtzea.

Plangintza orok proiektu bat eskura izatea adierazten du, helburu zehatz batzuk lortzeko abian jarritako proiektu bat eskura izatea; proiektu horrek, zehazki, ezinbesteko ditu neurri eta estrategia batzuk aipatutako helburuak lortzeko.

*Horri dagokionez, Kontseiluarentzat funtsezkoa da proposatu diren helburuak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak definitzea ikastetxe-sarearen plangintza- eta programazio-ikuspegia oinarri hartuta, helburu horiek bideratuko baitute prozesu guztia, bai eta zertara eta nora iritsi nahi den zehaztu ere.*

- **Jaiotze-tasaren eta immigrazioaren bilakaera**

Azken urteetan gizartean eta hezkuntza-sisteman bertan izan den bilakaeraren ondorioz, eskola-plangintzaren gaia arreta berezia behar duen elementu bihurtu da,



horren arrazionalizazioaren mesedetan, bai eta herritar guztien hezkuntzan kalitate nahiz arrakasta handiagoa lor dezan ere.

Ugari dira gai horretan zuzenean eragiten ari diren faktoreak; honako hauek azpimarragarriak: jaiotze-tasaren bilakaera, immigrazioa fenomenoaren indarra eta eskola-eskaintza Haur Hezkuntza etapako lehen ziklora arte zabaltzeko asmoa.

Lehenengo faktoreari dagokionez —jaiotze-tasaren bilakaera—, aipatu behar da aurreko eskola-mapa egin zenean (1996an) jaiotze-tasak behera egin zuela, urtean 15.000 jaiotza izatera iritsi arte; beraz, premien plangintza hurrengo urteetako jaiotze-tasak maila berean jarraituko zuela pentsatuz egin zen. Nolanahi ere, hasiera batean hezkuntza-sistema une hartako premien arabera egokitzeko balio izan zuen arren, errealitatea bestelakoa izan da; izan ere, 1996an, jaiotze-tasaren indizeak gora hasi ziren berriro, eta, 2003tik aurrera, kopuru handiagoak lortu dira. Egun (2008an), 21.000 jaiotza baino gehiago izan dira, une hartan aurreikusitakoa baino %40 gehiago.

Geografia-banaketari dagokionez, jaiotze-tasaren igoerak eragin berezia izan du Araban eta, udalerrien neurria dela-eta, Bilbon, Barakaldon edo Irunen, bai eta 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerri-multzo batean ere, hazkundea Euskadiko batez bestekoa baino handiagoa izan baita.

Bigarren faktoreari dagokionez —immigrazioa fenomeno—, eragin handia izan du eskola-plazen eskaeraren hazkunderan, eta horrek, gainera, beste premia espezifiko batzuk ekarri ditu, hizkuntzarekin lotutakoak, bereziki.

Immigrazioaren eragina Oinarrizko Hezkuntzaren batez bestekoaren %7ra iritsi da; baina, Bilboko zenbait eskola-zonatan (Errekalden edo Alde Zaharreen, esaterako), %15etik gora dago. Oro har, Bilbon eta Gasteizen immigrazioaren eragina %10 baino handiagoa da.

Aipatutako bi fenomenoak konbinatuz, Haur Hezkuntzako 2. zikloko matrikula %4 hazi da urtean, eta Lehen Hezkuntzako %3 baino gehiago; horrek guztiak, beraz, plaza gehiagoren premia adierazten du, beharrezko diren lekuetan.

Hirugarren faktoreari dagokionez, eskolatze-aldia Haur Hezkuntzako lehenengo ziklora zabaltzea orokortu egin da, poliki-poliki, azken urteetan, eta, lehentasunezko arreta jaso du Kontseiluaren txostenetan.

- **Haur Hezkuntzako 1. ziklorako plazen eskaera (0-3 urte)**

Egindako azterketari esker, ondoriozta daiteke 2005-06 eta 2007-08 ikasturteen artean bete egin dela ezarritako helburua: ikastetxe publikoetan urtean 1.000 plaza sortzea.

Dena den, beste helburu bat ere ezarri zen, 2 urte arteko biztanleriaren (0-2 tartea) %40 eta 2 urteko mailaren %100 artatu ahal izatea, hain zuzen; helburu hori, ordea, betetzetik oso urrun dago. Lehenengo tarteari dagokionez, %33ko estaldura lortu da, eta, 2 urteko mailari dagokionez, %93koa.

Eskaintzaren banaketan, bestalde, alde handiak daude lurraldeen, udalerrien eta zonen artean. Bizkaia beste lurraldeak baino dezente beherago dago 0-2 tarteko eskaintza publikoari dagokionez, eta, zenbait udalerrri garrantzitsutan (Getxo eta Leioa, esaterako), oraindik ez dago eskaintza publikorik; udalerrri horietako haurtzaindegi pribatuek, aldiz, oro har izan daitezkeen matrikulen %33 dute. Beste udalerrri batzuetan (Bilbon eta Barakaldon, esaterako), eskaintza publikoa urria da eta pribatua askoz ere ugariagoa.

0-3 tarteko hezkuntza-eskaintza publikoaren aniztasunaren arrazoiak aztertzean, historiak bere eragina du; egun, oraindik ere, 2003ko hasierako egoera da elementurik erabakigarriena. Udalek eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak haurtzaindegi publiko berriak sortzeko eratu duten partzuergo-formulari esker, hezkuntza-zerbitzu hori areagotu egin da; dena den, agerikoa da zenbait udalerritan ez duela funtzionatu edo ez dela nahikoa izan.

Horrenbestez, haur txikien arretari dagokionez lan- eta familia-jarduerak bateratzeko aukera ematen dieten neurriak izateko familiek duten eskubidea ez dago beti bermatuta; era berean, Haur Eskolen Dekretuaren arabera euskal administrazio publikoek duten konpromisoa ez da betetzen zenbait udalerritan, leku egokien eskaintzarik ez izateagatik edo administrazio desberdinen arteko desadostasunagatik.

*Hori dela-eta, Euskadiko Eskola Kontseiluak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatzen dio beharrezko neurriak har ditzala familiek beren seme-alaben lehenengo arretarako duten eskubidea orokorra izan dadin; bereziki, 0-2 tarteko eskaintza publikoa egindako eskaeratik oso urrun dagoenean —lehenetsuna horrelako eskaintzarik ez duten udalerriei emango zaie—.*

Partzuergo-erregimena ez bada behar besteko tresna, beste formula batzuk pentsatu behar dira, jada nahikoa denbora pasa baita Dekretua ezarri zutenetik; beste formula horiek eskaintza bermatu beharko dute, Sailak egingo duen plangintza oinarri hartuta. Horrenbestez, etorkizuneko eskola-mapan sartu beharreko lehenengo atala da.

*Eskaintzaren kalitatea bermatzeari dagokionez, Kontseiluak Haur Hezkuntzako lehenengo zikloa bere osotasunean arautzeko premia berresten du; plangintza horretan, gainera, egungo haurtzaindegiak sartuko lirateke. Horrez gain, uste du 0 eta 2 urteko haurrak eskolatzen edo artatzen dituzten establezimendu guztiek Haur Eskolen Dekretuan zehaztutako baldintzak bete behar dituztela, aitortu eta funtzionamenduan jar ditzaten; baldintza horiek bete beharko dituzte, halaber, egun Sailaren erroldan sartu gabe dauden eta dagokien udalaren baimenarekin (inolakoa hezkuntza-araudirik bete gabe) funtzionatzen duten haurtzaindegiek.*

Erabiltzaileek kontratatutako zerbitzu honi dagokionez, gutxieneko baldintzak bermatzea da helburua. Behin-behinean, haurtzaindegi horiek irekitzea baimendu duten udalei Kontseiluak eskatzen die bere gain har dezatela haurtzaindegiok ematen duten laguntza- eta hezkuntza-zerbitzuaren kalitatea bermatzeko erantzukizuna.

Azken urteetan, **2 urteko maila** bihurtu da biztanleria hezkuntza-sisteman sartzeko maila; zehazki, biztanleriaren %93k egiten du aukera hori. Familiak, oro har, gainerako etapak ematen dituzten zentroak aukeratzen dituzte, eta, beraz, lehenengo aukera hori izaten da, ia beti, behin betikoa, zentro horrek ematen dituen etapa guztiei dagokienez.

Nolanahi ere, lehenengo matrikulazio horrek zenbait desdoitze izan ditu azken urteetan, eta, beraz, egokia litzateke horiek behar bezala konpontzea. Ikasleak Onartzeko Dekretu berria argitaratu arte, familiak matrikula egin behar izaten zuten, bai bi urteko gelan sartzeko, bai Haur Hezkuntzako bigarren zikloan sartzeko (hau da, 3 urteko gelan); noski, horrek ezinegon handia sortzen zuen gurasoengan, seme-alabak 2 urteko mailan onartu arren eskola-plaza ez baitzuten bermatua. Dekretu berria argitaratzeari esker, ordea, egoera hori konpondu nahi izan da; hala ere, bertan zehaztutakoak beste ondorio batzuk eragin ditzake. Zehaztutakoaren arabera, zentro publikoetan ez da beharrezkoa izango beste onarpen-prozesu bat egitea, ez eta Haur Hezkuntzako lehen zikloa ematen duten zentro kontzertatuetan ere, baldin eta Dekretuan araututakoa oinarri hartzen bada. Berdin jokatuko da Haur Hezkuntzako lehen zikloa soilik ematen duten eta bigarren zikloko beste zentro batzuekin atxikitze-hitzarmenak dituzten zentro pribatuetan eskolatutako ikasleekin ere.

Horrek eragin negatiboak izan ditzake; besteak beste, familiak beren haurren eskolatzea aurreratzera bultzatzen ditzake, gustuko duten zentro batean plaza bermatuta izan dezaten. Nolanahi ere, neurri horren ondorioz, beharrezkoa da plangintza egoki bat izatea, bai plazei dagokienez, bai zentroen arteko atxikitzei dagokienez, horiek zehaztuko baitituzte ikasleen hezkuntza-ibilbideak.

*Ildo horretan, Kontseiluak proposatzen du Sailak ikasleen onarpen-prozesuak eta ikastetxeetako atxikitze-prozesuak azter ditzala, sortzen ari diren premiei erantzun egokiago bat eman ahal izateko.*

2 urteko mailaren eskaintzari dagokionez, zenbait udalerritan ez da eskola-plaza bat bermatzen eskatzen duen ororentzat, eta, beste zenbaitetan, badira zentro publiko batean plaza bat lortu ezin duten familiak. Une honetan, Euskadiko Eskola Kontseiluak ezin du zehaztu 2007-08 ikasturtean zenbat familiak matrikulatu zuten beren semea edo alaba zentro kontzertatu batean, nahiz eta aurrematrikula zentro publiko batean egin. Aurreko txostenean zenbait zehaztapen egin ziren, eta Sailak tresna egokiak ditu, artatu gabeko eskaeren zenbatekoa zehaztasunez jakiteko.

Jakina denez, baremo bat ezarri behar izanez gero, kanpoan uzten dira maila sozioekonomiko altuagoko familiak, gutxienez zentro publikoetan sartzei dagokionez; horrenbestez, areagotu egiten dira sareen arteko gizarte-aldeak, PISA azterketetan maila sozio-ekonomikoen eta kulturalen indizearen (ISEK) bilakaera ondo aztertzean adierazi bezala. 2 urteko gelak osorik betetzen diren sare publikoko zenbait leku aztertzean —zeharka, behar adinako eskaintza ez dagoela adierazten du—, beste bi faktoreekin lotu daiteke: batetik, zona horretan Oinarrizko Hezkuntzaren sare publikoak ezarpen-maila baxua duela, eta, bestetik, sareen artean alde handia dagoela ikasleen maila sozio-ekonomikoari eta kulturalari dagokionez.

Testuinguru horretan, hezkuntza-sistema publikoak ez badu onartzen maila sozio-ekonomiko ertain-altuko familiak bere inguruan dauden maila ertain-baxuko zentro publikoetan (inguruko zentro publiko bakarrak) integratzea, beste mezu bat izan dezake: beren lekua ez dagoela eskola publikoan.

*Hori guztia dela-eta, Euskadiko Eskola Kontseiluak Sailari proposatu dio plaza-eskaera guztiei erantzuteko baliabideak ezar ditzala 2 urteko maila irakasten duten zentro publikoetan.*

Eskola-mapa egitea dela bide eta erabilitako oinarrizko informazioa aztertu eta gero, Kontseiluak lau leku proposatzen ditu premien azterketa zehatz bat egiteko: Bilbo, Barakaldo, Getxo-Leioa eta Irun.

*Edozein kasutan, Kontseiluak Haur Hezkuntzako 1. zikloa era adostuan planifikatzea beharrezkotzat jotzen du.*

- **Ikasle etorkinen matrikulazioa**

Kontseiluak egiaztatu du matrikularen banaketa zuzena lortzeko administrazio-neurriek emaitza irregularrak dituztela hiru lurralde historikoetako bakoitzean. Bereziki, ikasleak hezkuntza-sareen arabera banatuz, hauteman da Gipuzkoan etorkinen batez besteko tasak antzekoak direla zentro publiko nahiz pribatuetan; Bizkaian, zentro publikoetako tasa pribatuetakoen bikoitza da; eta, azkenik, Araban, ia hirukoiztu egiten du.

Eskolatze-batzordeak Hezkuntza-sisteman berandu sartu diren ikasleei zentroak esleitzeko sortutako tresna dira; dena den, lortutako emaitzen arabera, eraginkortasun oso mugatua dute.

Gure hezkuntza-sisteman matrikula-epetik kanpo sartzen diren ikasleei zentroak esleitzen dizkiete batzorde horiek; ordea, esleipen horiek egin eta hilabete batzuk pasatzean, familia horiek ikastetxea aukeratzeko eskubideaz baliatzen dira eta beren seme-alabak behin-behinean sartu zituzten zentro kontzertatuetatik ateratzen dituzte, beste zentro batzuetan sartzeko, publikoetan, batez ere.

Matrikula-aldaketa horien atzean, jasotako arreta dago, eskasa erabiltzaileen iritziz; askotan, arrazoi ekonomikoak ere izaten dira, izena eman zuten zentro kontzertatuak doakoak ez izatearen ondorioz sortuak. Egiaz, beste zenbait kasutan familia etorkinek dituzten zilegizko interesek eragiten dute, beren seme-alabak nazionalitate edo kultura bereko ikasleekin taldekatu nahi izaten baitituzte.

*Hori guztia dela-eta, Euskadiko Eskola Kontseiluak Sailari eskatzen dio lehenik eta behin eskolatze-batzordeen funtzionamendua berrikus dezala, horien helburuak hobeto bete ditzaten.*

*Era berean, Kontseiluak ikasle etorkinen eskolatze-prozesua kontrolatzeko eskatzen dio Sailari, eskolatze-batzordearen lehenengo esleipena egin eta gero; horrela, familiek hezkuntza-zentroa aukeratzeko duten eskubidea bermatu eta,*

*aldi berean, ikasle horiek alferrik mugitzea saihestuko da. Halaber, hautemandako kasuen arrazoiak aztertzeke eskatzen dio Sailari.*

- **Hizkuntzen ikaskuntzaren beste antolaketa bat**

Hizkuntzari dagokionez, Kontseiluak onartu du hizkuntza-ereduen sistemari aldaketa bat egin behar dela; ildo horretan, beraz, Sailaren eskariei jarraiki nahiz ekimen propioz, gaiari buruz hitz egin du orain gutxi, zehazki hiru alditan: sailburua Legebiltzarrean aurkeztu aurretik egindako Akordioan, 2005-06 Txostenean eta lege-proiektuaren irizpenean 2008 amaieran —azkenean, lege-proiektu hau ez zen Legebiltzarrean eztabaidatu—.

*Oso zabaldua dauden proposamen horiek laburtzeko, Kontseiluak berretsi egiten du pertsona guztiek derrigorrezko eskolatzeko-aldia amaitzean euskara eta gaztelania menderatzeko duten eskubidea, bai eta ingelesa behar beste jakiteko eskubidea ere.*

Kontseiluko kide guztiek badute euskarari dagokionez lan horrek duen zailtasunaren berri, aurrez izan den esperientzia luzea dela-eta. Egindako ebaluazioaren emaitzak aztertuz, ondorioztatu da hizkuntzak irakasteko zenbait eredu ez diotela ikaskuntzari mesederik egiten; aldiz, hizkuntza bat hizkuntzarekin loturarik ez duten beste gaitasun batzuk lantzeko tresnatzat erabiltzen den heinean, hizkuntzaren beraren ikaskuntza indartuko da. Horrenbestez, bi hizkuntza ofizialen arteko aldea berdintzeko, gutxiaren edo gutxien baliatzen denaren erabilera handitu behar da; hau da, ikasleak gaitasun gutxien duen hizkuntzaren erabilera bultzatu behar da.

Proposamen arrazional edo tekniko horrek, Euskararen Erabilera Normalizatzeari eta Euskal Eskola Publikoari buruzko legeetan adierazitako helburuak betetzea xede duenak, orain talka egiten du arau horiek garatu zituen proposamen teknikoarekin: ereduaren sistema. Sistema horrek, hain zuzen, ibilbide luzea izan du, eta kasu askotan aurrerapen handiak egin dira horri esker; baina, aldi berean, ez du utzi euskal ikasle guztiengana orokortzea.

Atal honetan, proposamen logikoari jarraituz zenbait gai lotzen dira, haien artean curriculum-dekretuen bidez araudi-esparruan jada zehaztu dena:

- a) Hizkuntzetan ezarritako mailak, Oinarrizko Hezkuntza amaitzean ebaluazio-erreferentziatzat hartuko direnak.
- b) Hizkuntza bakoitzeko hizkuntza-gaitasunaren mailak —oso desberdinak norbanakoaren arabera—; ikasleak maila horiek izaten dituzte oinarri etapa bakoitzaren hasieran.
- c) Zentro bakoitzean hizkuntza bakoitzari eskainiko zaion irakaskuntza-denbora; finkatutako helburuarekiko duten aldearen arabera lehenetsiko da.

Formula hori gauzatzeko oinarriak honako hauek dira: ikastetxeen protagonismoa hizkuntza-proiektu partehartzaileen bidez; ebaluazioa; eta denborarekin, pertsonekin nahiz prestakuntzarekin lotutako baliabideak.

Orobat, aztertu ahal izan dugunez, ikasleak hainbat hizkuntza-ereduko zentroen eta ikasgelen arabera sailkatu eta sailkapen hori hezkuntza-sare desberdinekin konbinatzen denean, beste sailkapen-mota bat egiten da, ezaugarri sozio-ekonomikoekin eta kulturekin lotura duena; talde horien egituraketak, bestalde, beste itzaropen akademiko batzuk zehazten ditu, eta, ondorioz, baita beste emaitza-itzaropen batzuk ere.

*Horrenbestez, Kontseiluak berretsi egiten du hizkuntza-ereduen egungo markoa gainditzeko premia, Euskadiko ikasle guztien hizkuntza-gaitasunak hobetzeko, gaitasun horiei esker lortuko baitute eska dakizkiekeen mailak eskuratzea; aldi berean, Sailari eskatzen dio prozesu bat abian jartzea azter dezala, akordioan oinarritutako beste lege-esparru bat sortzea xede duen prozesua.*

Bien bitartean, Sailak beharrezko diren hezkuntza-baliabideak eman behar dizkie sare publikoko A eta B ereduetan matrikulatuta dauden ikasleei, derrigorrezko eskolatze-aldia amaitzean gainerako ikasleek dituzten gaitasun-maila berak lor ditzaten irakasgai guztietan.

Ingelesari dagokionez, bide berriak hartu dira berrikuntza-alorrean: hiru hizkuntzako edo gehiagoko esperientziak, sarrera goiztiarra (4 urteko haurren gelatik hasita)... Ebaluazio sistematikorik ez izan arren, derrigorrezko eskolatze-aldia eta derrigorrezko ikaskuntzaren ondoko aldia amaitzean ikasleek ingelesean izan behar duten gaitasun-mailaren itzaropenaren arabera, asko dago hobetzeko.

*Hori guztia dela-eta, Kontseiluak ingelesaren irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak hobetzea proposatzen du, eta, aldi berean, irakas-hizkuntzatzat sartzeko duen bideragarritasuna aztertzea.*

Kontseiluaren informazioaren arabera, une honetan ez da bideragarria horrelako ekimen bati ekitea, ez baitago behar besteko gaitasuna duen nahikoa irakasle.

*Plangintza-azterketak egin daitezke, esperimentu gisa egindako ekimenak finkatu eta zabaldu, nahiz metodologia didaktikoaren hobekuntza-plan bat gauzatu; dena den, modu paraleloan, ingelesa irakas-hizkuntzatzat ezartzeko, aurrez irakasleak prestatuko dituen plan zabal bat eta kontrataziorako nahiz barne-sustapenerako sistema bat ezarri behar dira, ingeleseko hizkuntza-gaitasuna kontuan hartuko dutenak.*

Bien bitartean, hiru hizkuntzako plan orokorrak etorkizuneko proiektutzat hartuko dira.

Hizkuntzari lotutako atalarekin amaitzeko, gure hezkuntza-sistemak aldaketak ezartzen jarraitzeko duen ahalmenari buruzko gai bat gelditzen da. Kontuan izan behar da Euskadiko hezkuntza-sistemak helburu berezi bat duela, estatuko gainerako ia autonomia guztietan eta Europako herrialde ia guztietan ez bezala; estatuko autonomietan, antzekorik izatekotan ere, erronka kualitatibo txikiagoa dute, hizkuntzen arteko aldea ez baita hain handia. Helburu hori, zehazki, euskara berreskuratzea da, gizartean erabil dezaten; horretarako, beraz, eskola-orduen ehuneko handi bat esleitzen da, ordu-kopuru finko batez zehaztuta.

- **Bikaintasun-helburua hobetzeko eskakizunak**

Hizkuntzarekin lotu gabeko arloetan (esaterako, Matematikak eta Zientziak) izandako emaitzak oinarri hartuta, nazioarteko proben arabera Euskadi tarteko posizioan dago ELGEko herrialdeen artean; egoera hori koherentea da biztanleriaren kultura-maila ertainarekin, orain 20 urte nerabeek jasotzen zuten oinarrizko prestakuntzari dagokiona. Dena den, gure ahalmen ekonomikoaren eta berrikuntzan lider izateko dugun nahiaren arabera, urrun geratzen da egun Europan lortu nahi den posiziotik. PISA eskalako hogeita hamar puntuk zehazten dute aldea.

Dudarik gabe, bikaintasuna hobetzeko etengabeko jarduerak irakasleen prestakuntza eta zentroetako jardura pedagogikoaren berrikuntza dira. Dena den, gaitasunak lantzeko ikaskuntza-denboraren aldagaiak beti du garrantzia; aurrez adierazi bezala, beste herrialde eta autonomia-erkidego batzuekin alderatuz, Euskadin ikasleek denbora gehiago eskaintzen diote hizkuntza-gaitasunak eskuratzeari, eta, horrenbestez, orduak kentzen zaizkie beste irakasgai batzuei.

Egoera horretan, eskola-porrotaren lehen zantzuak agertzea gutxitu nahian irakasjarduna areagotzeko aukera —Lehen Hezkuntzako asteko orduak 25etik 30era ugartuz Katalunian egin den bezala— hemen ez da egingarria, ez baitago behar besteko irakaslerik epe laburrerako eta are gutxiago epe luzerako.

*Ildo horri jarraiki, eta etorkizuneko eskola-maparen esparruaren baitan, Euskadiko Eskola Kontseiluak Sailari eskatu dio banan-banako arreta ahalbidetuko duten formulak azter ditzala, iraupen luzeagokoak eta metodo nahiz teknologia berriak baliatuko dituztenak; banan banako arreta hori, bereziki, eskola-etapa goiztiarretako ikasleei eta gizarte-baliabide gutxien dituzten ikasleei dagokie, desberdintasunak gainditzeko baliabidetzat.*

*Eskola-jardunaldia luzatu ezina dela-eta, prestakuntza-eskaintza osagarria eta eskolaz kanpokoa koordinatu behar dira; koordinazio horren bidez, zentroei garrantzi handiagoa eman behar zaie, eta eskaintza hori zabaldu eta eskola-curriculumarekin lotu behar da, betiere oinarrizko hezkuntza-gaitasunen esparrua orain arte erakundeek landu gabeko beste dimentsio batzuetara hedatu ostean.*

- **Eskola-mapa sortzeko zenbait baldintza**

Mapa egiteko baldintza teknikoei dagokienez, Kontseiluaren azterketetan nahiz Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Legebiltzarrari eta hezkuntza-agenteei aurkeztutako dokumentuetan egiaztatu ahal izan denez garapen tekniko bat falta da: zona bat baino gehiago dituzten udalerrietan (Bilbo, Donostia, Gasteiz edota Barakaldo), eskola-zonen araberrako jaiotzen banaketari buruzko garapen teknikoak. Baldintza hori izan ezean, ezin da oinarritzko lotura hau egin: izan daitekeen eskaria – eskainitako plazak.

Era berean, aurreko oinarritzko eskeman zuzenketak egitera bultzatzen duen beste faktore bat desplazamenduarena da, ikastetxera joateko ikasle-kopuru handi batek bizi den zonatik beste eskola-zona batera mugitu behar izatea, hain zuzen; bigarren faktore hori ere ezin da zenbatu hori neurtzeko tresna teknikorik izan ezean, 2005-06 aldiko txostenean aipatu zen euskarri digitaleko Ikasleen Banakako Erregistroa, esaterako. Tresna hori, halaber, ezinbestekoa da eskola-ibilbideei eta -emaitzei buruzko informazio zentralizatua izateko.

*Horrenbestez, Kontseiluak Sailari eskatzen dio hautemandako premiei erantzungo dien eskola-mapa bat osatzeko beharrezko diren tresna teknikoak gara ditzala.*

Orain gutxi argitaratu duten Dekretuak bi berrikuntza ditu, Kontseiluaren derrigorrezko irizpena dela-eta jada baloratuta daudenak. Lehenik eta behin, zentroen tipologia zehaztu da berriro, eta, horren bidez, etapa bat baino gehiago eskaintzen dituzten zentro publikoak elkartzea bultzatu da; horrela, hezkuntza-ekintza bateratuago egongo da, eta familiei berme handiagoa emango zaie epe luzerako eskola-ibilbideari dagokionez.

Kontseiluak positiboki baloratzen du zentroen artean lankidetzaz-lerroak ezartzea, hezkuntza-proiektu komun bat zehaztea helburu dutenak, bakoitzaren autonomia landuz. Era berean, Kontseiluak uste du formula horiek aldeek parte hartzeko duten gogoan oinarritzen direla, eta prozesuaren ezaugarriek eragin handia dutela ondorengo emaitzetan; horrenbestez, zentroen arteko lankidetzaz-lan hori ikaskuntza-esperientziatzen hartzera bultzatzen du, zentro horien artean jarduera-ildo komunak ezartzea xede duen esperientziatzen.

Eskola-maparen Dekretuaren bigarren gai nabarmena familiek duten eskubide bati uko egitea da, indargabetu gabeko Euskal Eskola Publikoaren Legeak bermatzen zuena; hau da, eskatzen duen pertsona orok zentro publiko batean plaza izateko duen eskubidea. Dekretuak ezartzen duen ezabatze horri dagokionez, Kontseilu honek jada auzitan jarri zuen bere irizpenean.

*Horrenbestez, Kontseiluak Sailari eskatzen dio argi dezala ea gurasoek ikastetxe publiko bat aukeratzeko duten eskubidea oraindik ere indarrean den.*



*Amaitzeko, ikuspegi formal batetik, Euskadiko Eskola Kontseiluak Sailari gonbita egiten dio Eskola-mapa parte-hartze antolatuaren ikuspegitik landu dezan; horri esker, Euskadiko biztanleriaren hezkuntza-premiak zeintzuk diren argi eta garbi jakingo da eta horiei erantzun ahal izango zaie.*

Kontseiluak berretsi egin du ahalegin horretan lankidetzan aritzeko nahia, hemen aurkeztutako azterketak eta proposamenak direla-eta orain artean egin duen eta egiten ari den bezala.

## 2. atala. PRESTAKUNTZA ETA BERRIKUNTZA

### Sarrera

Etengabe aldatzen ari den egungo ezagutzaren gizartean, kalitatezko hezkuntza eskaintzeak ikasle guztiek eskola-arrakasta lortzeko ahalegina egitea adierazten du; izan ere, horri esker ikasleak errazago lortuko ditu eskumenak eta trebeziak, helduarora iristean bizitza egokia izateko aukera emango diotenak, bai alderdi pertsonalei dagokienez, bai gizarte- eta lan-arloko alderdiei dagokienez. Azken batean, kalitatezko hezkuntza-sistema inklusiboari buruz hitz egitea da.

Ezin da ahaztu, inola ere, erronka horiei aurre egiteko hezkuntza-lanaren prozesua berrikusten eta eguneratzen Hezkuntza Administrazioak duen erantzukizun-maila; dena den, ikastetxeek gauzatzen dituzte aldaketak eta hobekuntzak egiteko prozesuak, zaintzen dituzten ikasleen premiak eta testuingurua aintzat hartuta, eta, noski, hezkuntza-komunitatearen inplikazioarekin.

Aldaketa horien ondorioz, pentsaera berriak eta jarduteko modu berriak sortzen dira, praktika berriak, berrikuntzan eta ebaluazioan nahiz irakasleen etengabeko prestakuntzan oinarrituak.

Aztergai dugun kapituluaren lehenengo zatian, hezkuntza-berrikuntzaren programak eta horiekin lotutako proiektuak jaso dira, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak definitutako lehentasunezko ildoen arabera zehaztuta. Bigarren zatian, berriz, irakasleen etengabeko prestakuntza landu da, berrikuntza-proiektuei lotuta eta gauza daitekeen hainbat modalitatearen arabera aztertuta.

### 2.1. Hezkuntza-berrikuntza

Hezkuntza-berrikuntzaren atal honetan, aipatu behar dugu txostenean jaso den 2006-07 ikasturtea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 2003-2006 hirurtekorako zehaztu zituen lehentasunezko ildoen baitan sartu dela; zehazki, honako hauek dira aipatutako ildo horiek:

1. Eskola inklusibo baterantz.
2. Dimentsio soziokulturalak.
3. Hizkuntza-normalkuntza eta eleaniztasuna.
4. Zientzia, teknologia eta gizartea.
5. Ikastetxeen kalitatea eta hobekuntza.

Aldiz, 2007-08 ikasturteari dagozkion berrikuntza-programak 2007-2010 hirurtekorako definitu ziren lehentasunezko ildoak lotuta egongo lirateke; horiek aurrekoen jarraipena dira, eta, hausnarketa-, eztabaida- eta hobekuntza-prozesu baten ondoren, haiek sakondu eta aberastuko dituzte.

Azken hirurteko honetarako, Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak esparru orokor bat proposatu du, hiru printzipio hauek oinarri dituenak: inklusibitatea, kalitatea eta etorkizunerako itxaropenak; printzipio horien inguruan zehaztuko dira hiru ardatzak, proposatutako lehentasunezko ildoen eta, noski, zehaztuko diren programen, planen edota proiektuen oinarri izango direnak.

Ardatz horietan, aurreko hirurtekoan definitutako lehentasunezko ildoak jaso dira, nahiz eta modu desberdinean ordenatu; beraz, hezkuntza-berrikuntzaren atal hau garatzeko, azken hiru urte hauetarako proposatutako eskema jarraituko dugu.

#### 2007-2010 hirurtekorako ardatzak eta lehentasunezko ildoak

1. ardatza	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hezkuntza-premia bereziak</li> <li>- Gizarte- eta kultura-aniztasuna</li> <li>- Berdintasuna eta generoa</li> </ul>
2. ardatza	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lidergo- eta kudeaketa-prozesuak</li> <li>- Bizikidetzak eta hezkuntza-komunitatea</li> <li>- Ikaskuntza-kalitatea: eskola-arrakasta guztientzat</li> </ul>
3. ardatza	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Curriculum berria eta oinarrizko kompetentziak</li> <li>- Teknologia berriak</li> <li>- Euskadiko eta Europako gizarte-esparrua</li> <li>- Hizkuntzak</li> <li>- Hezkuntza zientifikoa</li> <li>- Garapen iraunkorra</li> </ul>

Lehentasunezko ildo bakoitzerako planak edo programak ezarriko dira, eta horiekin lotuta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak hainbat deialdiaren bidez ikastetxeetara bideratzen dituzten proiektuak daude; hain zuzen, deialdietan parte hartzeko zenbait baldintza ezartzen dira. (2.1. eranskina)

Programa, proiektu edota plan bakoitzak baldintza espezifiko batzuk bete behar ditu, horietako bakoitza aztertzean aipatuko ditugunak; dena den, guztiek bete behar dituzte honako baldintza orokor hauek:

- Tartean dagoen klaustro, etapa edo mailaren %80k parte hartzeko konpromisoa hartzea.
- Klaustroa informatzea eta OOGk onartzea.
- Ikastetxearen Urteko Planean sartzea.
- Koordinazioaz eta dinamizazioaz arduratzen den pertsona bat izatea.
- Ardura duen pertsonak prestakuntza espezifikoari laguntzea nahiz Berritzeguneetako zonaldeko mintegietan parte hartzea.

- Jarraipena egitea eta ebaluatzea.
- Memoria aurkeztea.

Era berean, proiektu guztietarako zenbait baliabide zehazten dira, diru-horniduren bidez, ordu-kredituen bidez edo ikastetxeko funtzionamendurako plantillan langile gehiago sartuta, bai eta baliabide horiek uztartuta ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 2006-07 ikasturterako egin zuen deialdian (EHAA, 2006/06/07) eta 2007-08 ikasturterako aginduan (EHAA, 2007/08/23), berrikuntza-proiektuen bi modalitate bereizi ziren:

1) *Hezkuntza Berrikuntzako proiektu globalak:*

Proiektu bakarra zentro bakoitzeko; bertan, hezkuntza-etapa oso baten esku-hartzea aurreikusi behar da gutxienez, eta, horrez gain, dagozkion irakasleen %80k, gutxienez, esku hartu behar du.

Ez du hiru ikasturte baino gehiago iraungo (proiektuarekin jarraitzeko urtero eskatu beharko da), eta, aldi horretarako, 9.000 € euroko diru-laguntza izango da, gehienez ere (%80 proiektua onartzean eta gainerako %20 dagozkion memoria aurkeztean).

2) *Berrikuntza-ekintzak:*

Ikastetxean irakasten diren hezkuntza-etapen adina ekintza egin daitezke, eta horiek ekintza berritzailea definitu den maila, ziklo, etapa, arlo, ikasgai edo esparruko irakasle-talde baten partaidetza eragin dezakete.

Gutxienez, maila, ziklo, etapa, arlo, ikasgai edo esparru horretan inplikaturako irakasle guztien %60k hartu behar du parte.

Ikastetxeak lortu nahi duen berrikuntza-proiektuaren modalitatea zeinahi izanda ere, zuzendaritza-taldeari dagokio hori eskatzea eta abian jartzea, eta, zehazki, proiektuaren koordinazioa ikasketa-buruaren esku egongo da.

Era berean, proiekturen bat onartuta duen ikastetxe orori, dagozkion Berritzeguneko aholkularia esleituko zaio; aholkulariok aholkulari-lana betetzeaz gain, proiektu horien jarraipen- eta ebaluazio-lana beteko dute, Hezkuntza Ikuskaritzarekin batera.

2007-08 ikasturteko deialdian ikastetxeek izan duten parte-hartzea 2006-07 ikasturtekoarekin alderatuz, jaitsiera handia gertatu da ikastetxeek gauzatu dituzten berrikuntza-proiektuen kopuruan. Modalitateak aztertuz, jaitsiera berrikuntza-ekintzetan hauteman da, eta, aldiz, proiektu globalen modalitatean igoera izan da.

**Berrikuntza-proiektuen guztizkoa eta modalitateen araberako zehaztapena**

2006-07			2007-08		
Berrikuntza-ekintzak	Proiektu globalak	Berrikuntza-proiektuak, guztira	Berrikuntza-ekintzak	Proiektu globalak	Berrikuntza-proiektuak, guztira
775	35	810	633	51	684

Aipatu behar da etapa oso bat hartzen duten eta irakasleen ehuneko handiagoak parte hartzea eragiten duten proiektu globalen aldeko irizpidea gehiago zabaldu dela ikastetxeetan, unean uneko berrikuntza-ekintzak burutzea baino; azken horiek, gainera, askotan ez dira hain erraz justifikatzen ikastetxeko hezkuntza-proiektuaren baitan.

Aurreko ikasturteekin alderatuz, 2005-06 ikasturtearen aldean 2006-07 ikasturteko berrikuntza-proiektuen kopuruak berriro ere gora egin duela hauteman da; dena den, txosten honetan aztergai dugun azken ikasturtean (2007-08) 2004-05 aldiko balioetara itzuli dela ikusi da.

#### Azken 5 ikasturteetako berrikuntza-proiektuen kopurua

	2003-04	2004-05	2005-06	2006-07	2007-08
Berrikuntza-proiektuen kopurua	855	695	610	810	684

Azken bi ikasturteetako datuak sareen arabera aztertuz, agerian geratzen da ikastetxe publikoetan berrikuntza-proiektu gutxiago gauzatu direla; aldiz, ikastetxe pribatu kontzertatuetan eutsi egin zaio era horretako proiektuen parte-hartze mailari. Datu horiek bi baldintzaren ondorio izan daitezke: batetik, ikastetxe publikoetan unean uneko ekintzak gutxitzea eta proiektu globalak orokortzea (horren ondorioz, berrikuntza-proiektuen gutzitzea gutxitu egin da), eta, bestetik, proiektuak esleitzean ikastetxe publikoekiko lehentasuna desagerraraztea. (2.2. eranskina)

#### Ikastetxeak eta berrikuntza-proiektuak sareen arabera, 2006-07 eta 2007-08 ikasturteetan

	2006-07		2007-08	
	Ikastetxe-kopurua	Proiektu-kopurua	Ikastetxe-kopurua	Proiektu-kopurua
Publikoa	366	583	304	456
Pribatu kontzertatua	121	227	132	228

#### Berrikuntza-proiektuetan esku hartzen duten ikastetxeen kopurua, sareen eta proiektu-modalitateen arabera

	Ekintzak	Proiektu globalak	Ekintzak	Proiektu globalak
Publikoa	335	31*	268	36*
Pribatu kontzertatua	117	4	117	15

\* 2006-07 ikasturtea: 22 proiektu Lehen Hezkuntzan eta 9 Bigarren Hezkuntzan. 2007-08 ikasturtea: 27 proiektu Lehen Hezkuntzan eta 9 Bigarren Hezkuntzan.

Ikastetxe berak berrikuntza-ekintza bat baino gehiago aurkez ditzakeela kontuan izanda, ekintza horien kopuruak ez du zehazki adierazten ekintzotan esku hartzen duten ikastetxeen kopurua. 2006-07 eta 2007-08 ikasturteetan, aurrekoetan bezala, ikastetxe publikoen parte-hartzea handiagoa izan da Berrikuntza Zuzendaritzaren deialdietan; hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da Euskadin ikastetxe publikoak gehiago direla ikastetxe pribatuak baino.

Ikastetxe publikoei dagokienez, berrikuntza-proiektuetako parte-hartzea ez da berdin banatzen Euskadin dauden ikastetxe-tipologiaren artean. Gauzatutako

berrikuntza-proiektu guztiei dagokienez, ugarienak Lehen Hezkuntzako ikastetxeak dira, eta, horien atzetik, Bigarren Hezkuntzako institutuak daude; nolahi ere, erkidegoan tipologia bakoitzetik dauden zentroen kopurua aintzat hartuta, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek ehuneko apur bat handiagoa dute.

**Ikastetxe publikoetako berrikuntza-proiektuak, ikastetxe-motaren arabera. 2006-07 eta 2007-08 ikasturteak**

Ikastetxe-tipologia	Euskadin dagoen ikastetxe-kopurua	2006-07		2007-08	
		Proiektu-kopurua	Proiektu/ikastetxe	Proiektu-kopurua	Proiektu/ikastetxe
Lehen Hezkuntza	355	385	1,1	309	0,9
Bigarren Hezkuntza	149	173	1,2	130	0,9
Helduen Hezkuntza	30	9	0,3	9	0,3
Goi Mailako Lanbide H.	18	8	0,4	1	0,5
Besteak	10	8	0,8	7	0,7

\* Tipologia horretan sartuta daude Bigarren Hezkuntzako zentro independenteak, DBH eta DBHO dutenak eta IPIak.

Berrikuntza-proiektuak lehentasunezko ildoekin lotuz, 2006-07 ikasturtean gauzatu ziren 775 berrikuntza-proiektuetatik gehienak (275) hizkuntzekin zeuden lotuta, eta, atzetik, teknologia berriekin (165) eta bizikidetzarekin (150); 2007-08 ikasturterako ere lehentasun-maila bera izan da, nahiz eta horietan ia guztietan islatu den proiektu-kopuruaren gutzitza (2.3. eranskina)

**Berrikuntza-proiektuen kopurua, lehentasunezko ildoen arabera**

Lehentasunezko ildoak	2006-07	2007-08
Ikaskuntza-kalitatea: eskola-arrakasta guztientzat	38	48
Bizikidetzeta eta hezkuntza-komunitatea	150	94
Hizkuntzak	275	189
Teknologia berriak	165	151
Curriculum berria eta funtsezko eskumenak	65	30

Berrikuntza-proiektu globalei dagokienez, ildo batzuen eta besteen arteko aldeak hain handiak ez izan arren gehienak hiru ildoren jiran bildu ziren 2006-07 ikasturtean, eta lau ildoren jiran 2007-08 ikasturtean.

**Berrikuntza-proiektu globalen kopurua, lehentasunezko ildoen arabera**

Lehentasunezko ildoak	2006-07	2007-08
Ikaskuntza-kalitatea: eskola-arrakasta guztientzat	10	8
Bizikidetzeta eta hezkuntza-komunitatea	9	14
Gizarte- eta kultura-aniztasuna	0	8
Teknologia berriak	8	11

Ikastetxeei egiten zaien deialdian, berrikuntza-proiektuak Euskadiko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egiteko aukera jasotzen da, bai eta bi hizkuntzetan nahiz atzerriko hizkuntzaren batean egiteko aukera ere.

2005-06 ikasturteko txostenean adierazi zenez, berrikuntza-proiektuak nahiz prestakuntzakoak egiteko euskararen erabilera handituz joaten da pixkanaka; zehazki, hiru ikasturtetan, %39tik %49ra ugartu zen erabilera. Era berean, jaitsiera bat hautematen zen gaztelaniaren erabileran (%49koa izatetik %38koa izatera pasa zen), eta, ingelesari dagokionez, %13ko erabilera izan zen, batez beste, hiru ikasturte horietan.

2006-07 eta 2007-08 ikasturteetako berrikuntza- eta prestakuntza-proiektuetako hizkuntza-erabilerari dagokionez, euskararen erabilerak gora egin duela ikus daiteke; gaztelaniari dagokionez, berriz, ehunekoak berdin jarraitu du, eta ingelesaren erabilera gutxitu egin da ehunekoetan. Berrikuntza moduan, aurreko ikasturteekin alderatuz zenbait berrikuntza-proiektu Euskadiko bi hizkuntza ofizialetan gauzatzen direla hauteman da; baina, horiek ez dute ehuneko altua.

**2006-07 eta 2007-08 ikasturteetan, prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuetan erabilitako hizkuntza desberdinen ehunekoak**

<i>Ikasturtea</i>	<i>Euskara</i>	<i>Gaztelania</i>	<i>Eusk./Gazt.</i>	<i>Ingelesa</i>
2006-07	%53,1	%25,9	%9,5	%11,5
2007-08	%60,4	%32,1	%0,6	%6,62

Berrikuntza-proiektuetan oinarritzen bagara, hizkuntza desberdinen erabileraren banaketak aurrez deskribatutakoa islatuz jarraitzen du.

**Hainbat hizkuntzen erabileraren ehunekoak berrikuntza-proiektuetan**

<i>2006-07</i>				<i>2007-08*</i>			
<i>Euskara</i>	<i>Gaztelania</i>	<i>Eusk./Gazt.</i>	<i>Ingelesa</i>	<i>Euskara</i>	<i>Gaztelania</i>	<i>Eusk./Gazt.</i>	<i>Ingelesa</i>
%48,8	%26,8	%2,2	%22,2	%61,7	%26,2	%0,3	%11,7

\* *Lehendabiziko aldiz, berrikuntza-proiektu global bat alemanez egin da*

Berrikuntza- eta prestakuntza-proiektuak egiteko, Sailak baliabide ekonomikoak ematen ditu, ikasturtetik ikasturtera areagotzen direnak; zehazki, 2006-07 eta 2007-08 ikasturteetan, honako baliabide hauek izan dira:

**Prestakuntzarako eta berrikuntzarako esleitutako baliabide ekonomikoak. 2006-07 eta 2007-08 ikasturteak**

<i>2006-07 ikasturtea</i>	<i>2007-08 ikasturtea</i>
1.590.950,00 €	1.878.909,00 €

Nolanahi ere, argi utzi behar da kopuru horiek *Ikastetxeetako prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuak* deialdian sartzen diren proiektuei esleitutako kopuruak direla; aurrerago ikusiko dugun bezala, ordea, lehentasunezko ildoetako programen baitan garatzen diren proiektu guztien deskribapenean, batzuek aparteko diru-hornidura dute, hemen aipatzen den kopuruan sartu gabe dagoena.

2007-08 ikasturteko kopuru guztitik (1.878.909 €), 590.805 € ikastetxe kontzertatuetarako izan dira (215.305 € prestakuntzarako eta 375.500 berrikuntzarako); horiek, zehazki, honela banatu dira, lurraldez lurralde:

**Prestakuntzarako eta berrikuntzarako ikastetxe kontzertatuei esleitutako baliabide ekonomikoak. 2007-08 ikasturtea**

<i>Lurraldea</i>	<i>Prestakuntza</i>	<i>Berrikuntza</i>
Araba	24.120€	58.730€
Bizkaia	91.720€	158.540€
Gipuzkoa	99.465€	158.230€
Euskadi	215.305€	375.500€

Era berean, ikastetxe kontzertatuei dagokienez, aipatu behar da bestelako laguntzak jasotzen dituztela irakasleen prestakuntza-jarduerak gauzatzeko; horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak federazio eta elkarteei zuzenean egiten dizkien deialdien bidez gauzatzen dira, esaterako: 2007-08 ikasturterako agindua (EHAA, 2007/07/06), 1.888.711 €-ko diru-laguntza esleitu zuena.

Berrikuntza-proiektuei buruzko azalpen orokor honen zehaztapena horietako bakoitzaren deskribapenean, garapenean eta partaidetza-mailan dago.

***2.1.1. Eskola inklusibo baten alde. Guztientzako eskola bat lortzea xede duten programak.***

2003-2006 hirurtekoaren lehentasunezko ildoetako bati jarraipena emateko, ardatz honek eskola inklusiboari egin dio erreferentzia, eta bertan sartzen diren programak eta proiektuak ekitatearen eta gizarte-kohesioaren ikuspegitik bideratu dira, betiere aniztasuna errespetatuz eta desberdintasunak gainditzeari arreta jarritz.

Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak egindako ardatz honen aurkezpenean jasotzen den bezala, *“hezkuntza-inklusioa etengabeko hobekuntza-prozesu bat da, aniztasunari erantzuteko modu egokienak aurkitzeko etengabeko bilaketa-prozesu bat. Inklusioaren ondorioz, hezkuntza-sistemen ikaskuntzarako eta bertan parte hartzeko hesiak identifikatzen dira, eta, horrez gain, parte-hartzezko eta lankidetzako estrategien, kulturen eta jarduteen alde egitea adierazten du, bai ikasleei, familiei eta profesionalei dagokienez, bai sistema hori sartzen den gizarte-komunitateari dagokionez ere”*.

Hori guztia dela-eta, esparru honetan definitzen diren programek oso egoera desberdinak lantzen dituzte, eta, horrez gain, hainbat arrazoi direla-eta (urritasun-motaren bat, gehiegizko adimena, kontrako gizarte- edo kultura-ingurunea, eskolara egokitzeko zailtasunak, ikaskuntza-zailtasunak eta gaitasun desberdinak) hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleen arreta xede duten proposamenak egiten dira, bai eta sexuaren arabera mugarik ez dagoen berdintasunezko gizarte bat lortzea xede duten proposamenak ere.

Lehentasunezko ildo hauetan proposatutako lanaren bidez, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren ikuspegi zabalago batera pasatzea da, kontuan izanda prozesu hori, batez ere, interakzioen mende dagoela, ikasleen artekoak, ikasle eta irakasleen artekoak, ikasle eta familien artekoak...; hau da, pertsonen hezkuntza garatzen den ingurua zenbat eta heterogeneoagoa izan, aukera handiagoak izango dituzte beren



curriculum-arloetan sartutako gaitasunak eskuratzeko, bai eta beren garapen pertsonalerako nahiz gizarteratzeko gaitasunak eskuratzeko ere.

### 2.1.1.1. Hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak

Lehentasunezko ildo honetan proposatutako lanaren bidez ikasgela arrunteko irakaskuntza-jarduera berrikusi nahi da, ikasle horiek eskola inklusiboaren eta kalitatezko eskolaren baitan dituzten premiei erantzuna emateko; hala jasotzen da, behintzat, 118/1998 Dekretuan (EHAA, 1998/07/13).

Ikastetxearen eskariz, Berritzeguneko talde multiprofesionalak diagnosi bat eta ebaluazio psikopedagogiko bat egiten du; horri esker, beraz, hezkuntza-premiaren mota zehaztu eta ikastetxean jarduteko modua proposatzen da. Ahal den guztietan, ikasleak ikasgela arruntetan eskolatzen dira, eta, soilik, beharrezko denean eskolatuko dira ikastetxe arruntetako ikasgela egonkorretan; horrez gain, ezinbestekoa denean, ikasle horiei hezkuntza bereziko zentroetan emango zaie prestakuntza.

Urritasunak (adimen-atzeratasuna eta/edo garapenaren erabateko nahasmendua, gorreria eta entzumen-urritasuna, ikusmen-urritasuna, mugitzeko ezintasun eta garuneko paralisia, eta gehiegizko adimena) izan arren ikasgela arruntetan dauden ikasleentzat Norbanako Curriculum Egokitzapenak burutzen dira (NCE). Jardute horren ondorioz, hainbat curriculum-elementu aldatu egingo dira (helburuak, edukiak, antolakuntza, metodologia, ebaluazio-irizpideak), ikasle bakoitzaren premiei erantzun ahal izateko.

Era horretako ikasleak dituzten ikastetxeetan, ikasgela arrunteko irakasleez gain, Pedagogia Terapeutikoa (PT) nahiz Entzumena eta Hizkuntza (EHI) espezialitateetako irakasle espezifikoak izango dira, bai eta beste espezialitate batzuetako Pertsonal Ez Irakasleak ere (PEI). Horien kopurua, hain zuzen, urritasunen bat dutela-eta ikasturte bakoitzean eskolatzen diren hezkuntza-premia bereziko ikasleen kopuruaren arabera izango da.

Irakasle espezifiko horiek aipatutako ikasleak dauden ikasgela arruntetan beteko dute beren lana, edo, bestela, laguntza-gela espezifikoetan, banan banako lana egiteko (2.4. eranskina).

**Laguntza-gelak Haur Hezkuntzako bigarren zikloan eta Lehen Hezkuntzan, eta/edo Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn, lurraldearen eta ikastetxe-motaren arabera. 2007-08 ikasturtea**

	<i>Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza</i>			<i>Bigarren Hezkuntza</i>		
	<i>Publikoa</i>	<i>Kontzertatua</i>	<i>Guztira</i>	<i>Publikoa</i>	<i>Kontzertatua</i>	<i>Guztira</i>
Araba	77	22	99	39	29	68
Bizkaia	290	102	392	135	110	245
Gipuzkoa	145	76	221	77	73	150
Euskadi	512	200	712	251	212	463

Langileak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzei daude atxikita. Horien jarduera-eremua Berritzegune bati dagokio, eta ikasturte bakoitzeko ikasleek dituzten

banakako premien arabera esleitzen zaizkie ikastetxeei; gainera, zenbait espezialitateri dagokienez (fisioterapeuta, igeriketa-irakaslea...) ikastetxe batean baino gehiagotan jardun dezakete.

#### **Pertsonal Ez Irakaslea 2006-07 ikasturteko lanpostu-zerrendaren (LPZ) arabera**

	<i>Araba</i>	<i>Bizkaia</i>	<i>Gipuzkoa</i>
Fisioterapeuta	10	10	7
Gizarte-langilea	2	1	--
Hezkuntza-laguntzako espezialista	101	247	136
Igeriketa-irakaslea	1	--	--
Okupazio-terapeuta	1	3	3
Transkribatzailea eta materialaren egokitzailea	1	2	1
Irakaskuntza espezifikoen irakaslea	--	--	1

Derrigorrezko eskolatze-aldia amaituta, urritasunagatik hezkuntza-premia bereziak dituzten eta lan profesionalen bat egiteko gaitasunak izan ditzaketen ikasleek Zereginen Ikaskuntzarako Geletan (ZIG) eskolatuta jarraitu ahal izango dute. Xedea gutxieneko gaitasun batzuk lortzea da, babestutako lantegietan edo beren premietara egokitutako lanpostuetan lanean has daitezen.

Ikasgela horietarako esleitutako irakasleak Pedagogia Terapeutikoko espezialistak eta Lanbide Heziketako teknikariak dira.

#### **Zereginen Ikaskuntzarako Gelak, sareen eta lurraldeen arabera**

	<i>Ikastetxe publikoak</i>	<i>Ikastetxe kontzertatuak</i>
Araba	9	2
Bizkaia	13	4
Gipuzkoa	15	4
Euskadi	37	10

#### **2.1.1.2. Gizarte- eta kultura-aniztasuna**

Eskola-arrakasta oztopatzen edo eragozten duten hesi askok ez dute zerikusirik zailtasunekin edo arazo pertsonalekin, baizik eta familien arteko desberdintasun sozio-ekonomikoekin nahiz eskola-kulturaren eta familia-kulturaren arteko aldearekin.

Hain zuzen, aniztasunaren faktore garrantzitsu bat ikasleen desberdintasun sozio-ekonomikoekin eta kulturalekin dago lotuta, bai eta eskolan sartu berri den ikaslearen kultura eskolan nagusi den kulturaren oso desberdina izatearekin ere. Aniztasun horren parte dira, halaber, gaztelaniaz hitz egin arren erabileran alde handiak dituzten ikasleak edota gizarte-egoera edo ezaugarri etniko berezi bati lotutako kultura propioa duten gizarte-taldeetako ikasle autoktonoak.

Jakina denez, aniztasun horren baitan, badira ikasleak arrazoi bat edo beste dela-eta hasiera-hasieratik desberdintasunak gainditu behar izaten dituztenak; desberdintasun horiek egoera sozio-ekonomikoarekin, egokitu ezinarekin edota

gizarte-bazterketako arriskuarekin daude lotuta, besteak beste. Hori dela-eta, ikasle guztiek eskola-arrakasta lor dezaten, gure zentroetan gauzatzen diren hezkuntza-indargarrien ohiko neurri guztiak ezartzen zaizkie, bai eta aparteko neurriak ere beharrezkotzat hartzen direnean: Errefortzu, Orientazio eta Laguntza Programa (EOLP), Hezkuntzan Berariaz Esku Hartzeko Proiektua (HBEHP), Curriculum Anitzeko Programa, Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak (HLPP) eta Eskolatze Programa Osagarriak; horiek, zehazki, kapitulu honen 3. puntuan jaso dira.

Lehentasunezko ildo horri lotutako programen eta proiektuen bidez, bitartekoak ezarri nahi dira hizkuntza-premia erantsiak dituzten ikasle etorkinek ekitatezko hezkuntza jaso dezaten, gainerakoen aukera erreal berberak izateko, beren hasierako egoera eta baldintzak zeinahi izanda ere.

- *“Kultura arteko hezkuntza” proiektua*

“Kulturartekotasunerako eta ikasle etorri berrien inklusiorako programa”ren baitan garatzen den proiektuaren bidez, egun gure ikastetxeetan dagoen aniztasun soziokultural handiak eragindako erronka berriei erantzun nahi zaie; zehazki, honako helburu hau du:

- Iritsi berri den ikaslearen eskola- eta gizarte-inklusioa sustatzea; horrela, harrera eta integrazio egokiak bermatu eta edonolako diskriminazio-motak saihestuko dira.
- Kultura arteko hezkuntza indartzea, berdintasunean, elkartasunean eta kultura-aniztasunarekiko errespetuan oinarrituta.
- Eskolatu berri den ikasleak arrakasta lor dezan laguntzea, gure erkidegoko bi hizkuntza ofizialak ikasiz, eta, bereziki, euskararen ikaskuntza indartuz.

Kalitatezko eskola inklusiboaren ildoari jarraiki helburu horiei erantzun egokia eman ahal izateko, hainbat esku-hartze mota landu dira planen eta proiektuen bidez; horiek, hain zuzen, Administrazioa inplikatzan dute (horietako batzuek diru- eta/edo baliabide-hornidurak ematen baitizkiete ikastetxeei), bai eta irakasleak ere, ikasgeletan lantzen diren hezkuntza-metodologiekin eta -jarduteekin lotutako prestakuntza eta hausnarketa eragiten baitute.

Bereziki euskara erabiltzen ikastea errazteko, eta, aldi berean, gaztelaniaz hitz egiten ez dakitenek hizkuntza hori ere errazago ikas dezaten, hizkuntza-errefortzuko irakasleak joaten dira ikastetxetara, bai publikoetara, bai kontzertatuetara (2.5. eranskina).

**Hizkuntza-errefortzuko irakasleak ikastetxe publikoetan. 2006-07 eta 2007-08 ikasturteak**

	2006-07		2007-08	
	Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza
Araba	27	10,5	39	14
Bizkaia	73,5	32,5	94	46
Gipuzkoa	23	14	37	20
Euskadi	123,5	57	170	80
	180,5		250	

**Ikastetxe-kopurua eta hizkuntza-errefortzuko irakasleak ikastetxe kontzertatueta. 2006-07 eta 2007-08**

	2006-07		2007-08	
	Ikastetxeak	Irakasleak	Ikastetxeak	Irakasleak
Araba	13	8,6	13	8,5
Bizkaia	49	31,8	49	31,3
Gipuzkoa	60	31,3	60	31
Euskadi	122	71,8	122	70,8

Irakasle horiek izateko, ikastetxeek hizkuntza-errefortzuko proiektu bat aurkeztu behar dute, eta, horrez gain, adieraziko dute zein irakasle finko arduratuko den plana gauzatzeko. Ikastetxe publikoetan, eta irakasle horrek proiektuari eskainiko dizkion orduak konpentsatzeko, irakasle gehiago esleitzen dira funtzionamendurako behar den plantillarako. Ikastetxe kontzertatueta, berriz, diru-laguntzak ematen dira hizkuntza-errefortzu hori egingo duten irakasleak kontratatuzeko.

**Hizkuntza-errefortzuko proiektuetarako ikastetxe kontzertatuei emandako diru-laguntzak (eurotan). 2006-07 eta 2007-08 ikasturteak**

	2006-07	2007-08
Araba	222.175	245.500
Bizkaia	1.036.605	1.150.000
Gipuzkoa	957.703	1.080.000
Euskadi	2.216.483	2.475.500

Ikastetxe publikoetako irakasleen esleipenak edo ikastetxe kontzertatueta diru-laguntzen zenbatekoak zentro horietara iritsi berri den ikasle-kopuruaren arabera zehazten dira; ikasle horien iristea justifikatzeko, ikasturte bakoitzeko matrikulak hartzen dira kontuan. Aurreko tauletan ikus daitekeenez, ikastetxe publikoetan hizkuntza-errefortzuko irakasleen kopuruak nabarmen egin du gora, eta, aldiz, ikastetxe kontzertatueta, maila berean jarraitu du; horrek, beraz, beste behin ere adierazten du iritsi berri diren ikasle gehienek ikastetxe publikoetan matrikulatzen jarraitzen dutela (2.6. eranskina).

Hizkuntza-errefortzua zein ikaslek behar duen erabakitzeari dagokionez, ikastetxeetan arazo larriak sortzen dira ikasle etorkinak eta iritsi berriak bereizteko.

Hizkuntza Errefortzuko Programari dagokionez, ikasle etorkin bat iritsi berrizat hartuko da, baldin eta errefortzua eskatzen den ikasturtearen aurreko urteko urtarrilaren 1aren ondoren iritsi bada (esaterako, 2007-08 ikasturterako errefortzua eskatu behar izanez gero, 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera iritsi bada); beraz, kasu horretan soilik kontatu ahal izango da dagokion irakaslea eskatzeko. Hizkuntzen irakaskuntzako zenbait adituk<sup>2</sup> adierazi dutenez (irakaskuntza-jarduerak, gainera, berretsi egin du), gutxienez 5 urte behar dira hizkuntza bat maila akademikoan ondo erabiltzeko; hala ere, ikasle horiei bi urtez soilik ematen zaie errefortzua.

Halaber, ikasle horiek artatzen eta indartzen jarraitzeko ikastetxeetan bertan egiten duten ahalegina aitortu behar da, esleitzen zaizkien baliabideak zeinahi izanda ere.

Ikastetxeak aurkeztutako proiektua osatzeko, banakako esku-hartzeko plana gauzatu behar da hizkuntza-errefortzua jasotzen duen ikasle bakoitzarekin; horrez gain, Harrera Plan bat ere abian jarri beharko da, eskolan berandu sartu diren ikasleentzat.

Programa horretan esku hartzen duten irakasleek prestakuntza berezia jasotzen dute dagokien Berritzeguneetako mintegietan, bai eta irakaskuntza eleaniztunari nahiz hizkuntzen tratamendu integralari buruzko gaiak lantzeko bereziki antolatutako saioetan ere.

Bigarren Hezkuntzako zentroetan oso ohikoa da ikasle etorkinak edo berandu sartutako ikasleak hartzea; hain zuzen, ikasle horien adina dela-eta, DBHko 3. edo 4. mailan eskolatzen dira. Horren ondorioz, ezin izaten dira askotan ikasle horiek zentroan sartzean dituzten desberdintasunak gainditu (hizkuntzakoak nahiz curriculumekoak), ezta irakaskuntza-taldeek abian jartzen dituzten ohiko neurri guztiak (banan banakoak barne) agortuta ere.

Egoera horien aurrean, ikastetxeek ikasturte bakoitzean gauzatzen dituzten aparteko neurrien proposamenean sartzen dira ikasleok, bakoitzaren egoera bereziari erantzun ahal izateko. Kasuistika askotarikoa eta banan banakoa izan ohi da, eta, horrenbestez, ikasleak sartu nahi izaten diren programa-motak ere askotarikoak izan ohi dira; zehazki, kapitulu honen 3. puntuan jaso dira.

2007-08 ikasturtean, programa honetan sartutako beste neurri bat hartu da; zehazki, kulturartekotasunerako koordinatzailea jarri da honako zentro hauetan: ikasle etorkinak %30 baino gehiago diren Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, etorkinak %20 baino gehiago diren Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan eta %30etik gora diren ikastetxe kontzertatuetan.

---

<sup>2</sup> J. Cummins. "Escuela, poder y pedagogía". 94. orrialdea.

**Kulturartekotasunerako koordinatzaileak, sareen eta lurraldeen arabera. 2007-08 ikasturtea**

	<i>Ikastetxe publikoetako koordinatzaileak</i>		<i>Kontzertatuetan</i>
	<i>Lehen Hezkuntza</i>	<i>Bigarren Hezkuntza</i>	<i>Diru-laguntza duten zentroak</i>
Araba	5	5	1
Bizkaia	14	4	4
Gipuzkoa	0	3	3
8	4	12	8
	31		

Pertsona horri, besteak beste, honako funtzio hauek esleitu zaizkio: ikastetxeko proiektu eta dokumentu guztietan kulturartekotasun-ikuspegia sartzea; zentroan, ikasgeletan, materialetan eta baliabideetan eskola-komunitatean presente dauden kultura desberdinak aintzat hartzea; ikastetxea familiengana hurbiltzea; Harrera Planean parte hartzea...

Pertsona horiek esleitzeko prozedura hizkuntza-errefortzuko irakasleen kasuan erabilitako bera da: baliabide pertsonalak ikastetxe publikoetarako eta diru-laguntzak ikastetxe kontzertatuetarako.

**Kulturartekotasunerako koordinatzaileak kontratatzeko ikastetxe kontzertatuei emandako diru-laguntzak (eurotan). 2007-08 ikasturtea**

<i>Araba</i>	<i>Bizkaia</i>	<i>Gipuzkoa</i>	<i>Euskadi</i>
20.100	80.400	60.300	160.800

Kulturartekotasunerako Programa horren baitan, beste ikasle batzuen arreta ere aintzat hartzen da, bertakoak izan arren gutxietsitako taldeetako kide diren ikasleena (esaterako, ijito-etniakoak). Ikasle ijitoen eskolatzean positiboki eragiteko plan bat garatu da (*Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko plana*), *Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Euskadiko Planaren* baitan sartu dena.

Plan horren baitan, honako hauek zehaztu dira: ikasle horiekin lan egiten duten irakasleentzako prestakuntza berezia, ijito-familielikiko harremanak hobetzeko estrategiak, ijito-kulturaren aipamena curriculumean eta desberdintasunak gainditzeko neurrien abiatzea.

**2.1.1.3. Berdintasuna eta generoa**

Dударik gabe, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak dira emakumeen aurkako indarkeriaren jatorri, eta, horiek gainditzeko, prebentziozko lana egin behar da hezkuntza-alorrean; horrela, berdintasunean eta ekitatean oinarritutako bizikidetzaren bermatuko duten gizarte-eredu berriak emango zaizkie neskei nahiz mutili, estereotipatuta dauden eredu desberdinak.

Egia da, bai, eskolan genero-rolak aldatzen joan direla eta bilakaera positiboa izan dutela; nolana ere, badira hobetu beharreko gaiak, curriculum-eduki androzentrikoak eta neska nahiz mutilentzako balio eta itxaropen desberdinak

transmititzen jarraitzen baita eta, horrez gain, espazioak eta denborak ez baitira modu zuzenean erabiltzen.

Hori guztia dela-eta, oraindik ere beharrezkoa da generoaren araberako desberdintasun horiek gainditzeko bidean aurrerapen bat eragiten duten programa eta jardueretako parte-hartzea sustatzea. Horren adibide dira NAHIKO programa, Euskadiko ikastetxeek parte hartzen dutena, eta NARO foroa, Sailak erakundetzat parte hartzen duena; biak ala biak Emakundek jarri zituen abian.

- **NAHIKO programa**

Bikote-harremanetan emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko baterako hezkuntzaren programa da; 2003. urtean jarri zen abian, eta, geroztik, Lehen Hezkuntzako ikasleentzako programa hau bi urteko faseetan garatu da (2003-2005, 2005-2007 eta 2007-2009).

2003-2005 fasean, programa pilotutzat ezarri zen hiru ikastetxetan, eta, 2005-2007 biurtekoan, hedatu egin zen 37 ikastetxek hartu baitzuten parte; zehazki, lehen zikloko 67 taldek (1.500 ikaslek eta horien familiek) eta 100 bat irakaslek esku hartu zuten.

2007-2009 aldirako aurreikusitako fasean, 11 ikastetxek hartuko dute parte, Lehen Hezkuntzako 2. zikloko 21 talderekin (horiek guztiak 2005-2007 aldian parte hartu zutenen artean hautatu dira); horrenbestez, 440 ikaslerekin eta horien familiekin egingo da lan.

**2005-2007 eta 2007-2009 azken bi faseetan NAHIKO programan izandako parte-hartzea**

	<i>Ikastetxe-kopurua</i>	<i>Ikasgela-kopurua</i>	<i>Ikasle-kopurua</i>
2005-07	37	67	1.500
2007-09	11	21	440

Programa lau jarduera-ardatzetan dago egituratuta: irakasleen prestakuntza ikasturte bakoitzean egingo diren 4 mintegiren bidez; ikasleen sentsibilizazioa; familien sentsibilizazioa ikasturte-hasieran eta -amaieran egingo diren bi topaketen bidez, eta materialen elaborazioa (ikasgeletan erabiltzen diren unitate didaktikoak).

- **NARO foroa**

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foroaren izena da, eta 2004. urtetik dago indarrean; foroa urtero ospatzen da, hainbat instituziotan, taldetan eta elkartetan gai honi buruz egiten duten lana biltzeko eta koordinatzeko.

### **2.1.2. Kalitatezko eskola baten alde. Eskola hobea lortzea xede duten programak**

Ardatz honetan jasotako programen bidez, hezkuntza-sistemaren oinarritzko eta lehenetsuneko erronketako bat gainditu nahi da: pertsona guztiei kalitatezko eskola bat bermatzea.

Helburu horrek lotura zuzena du hezkuntza-zentroekin; izan ere, badira faktore batzuk, ikastetxearen funtzionamenduan eraginez horietan gauzatzen den hezkuntza-lanaren kalitatean eragin zuzena dutenak. Faktore horien artean, hiruk garrantzi berezia dute:

- Hezkuntza-komunitatearen lidergoa bere gain hartuko duen zuzendaritza, bai kudeaketa-alderdiei dagokienez, bai alderdi pedagogikoei dagokienez.
- Eskola-bizikidetzak, ikastetxeak bertako ikasleak hezteko oinarritzko tresna baita, curriculum-alderdiarekin batera.
- Familiak eta komunitateak ikastetxean duten parte-hartzea eta lankidetzak, hezkuntza-zentroa parte den gizarte-komunitatean ezarriko diren proiektuak proposatzeko.

#### **2.1.2.1. Lidergo- eta kudeaketa-prozesua**

XXI. mendeko eskola hau bilakaera azkarra ari da izaten, eta, horrez gain, bertan gertatzen ari diren aldaketak erronka bihurtu dira, inklusibitatea eta kalitatea oinarri hartuta aurre egin behar zaienak; hain zuzen, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko gure eskolarako ezarritako helburuen arabera, ikastetxeetako zuzendaritzek lidergoa izan behar dute, ez soilik kudeaketari dagokionez, baita ikastetxeko hezkuntza-proiektuen dinamizazioari eta hezkuntza-berrikuntzaren sustapenari dagokienez ere.

Horretarako, beraz, zuzendaritzaren beste ikuspegi bat izan behar da; hau da, hezkuntza-komunitateko elementu bat izango da, estrategikoki planifikatzen duena eta hainbat eremutan (administrazioak, pedagogikoak, giza baliabideak...) kudeaketa-eredu berriak erabiltzen dituena, taldeko eta sareko lana sustatzen duena, irakasleek ikasgelan egiten duten lana aitortu eta errespetatzen duena (garapen profesionala bultzatzen du), hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea indartzen duena, eta etengabeko hobekuntza sustatzeko kalitatea ebaluatzen duena.

Zuzendaritzaren ikuspegi berri hori zabalduz joateko, *Kalitatea Hezkuntzan* programa jarri da abian.

2003ko urtarrilaren 8ko Aginduaren bidez, orduko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak esperimentazio proiektu pilotu bat abian jartzea baimendu zuen; "Kalitatearen Kudeaketarako Sistemak" zuen izena, eta 2002-03 nahiz 2003-04 ikasturteetan gauzatu zen. Esperimentazio horretan lortutako emaitzen ebaluazioa positibotzat hartuz, 2004ko ekainaren 29ko Ebazpena argitaratu zen; horren bidez, Hezkuntza sailburuordeak Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren



Hezkuntzako beste ikastetxe publiko batzuei deialdia egin zien, hurrengo ikasturteetan "Kalitatea Kudeatzeko Sistemak" izeneko Hezkuntza-alorreko Ikerkuntza eta Esperimentazio Proiektuak egin zitzen.

Proiektu horretan parte hartu zuten 36 ikastetxeetatik 23 Bigarren Hezkuntzako Institutuak (BHI) ziren eta 13 Lehen Hezkuntzako Ikastetxeak (LHI).

**"Kalitatearen Kudeaketarako Sistemak" proiektuan inplikaturako ikastetxeen kopurua, lurraldeen eta ikastetxe-moten arabera. 2002-03 alditik 2005-06 aldira.**

	Araba		Bizkaia*		Gipuzkoa		Euskadi	
	BHI	LHI	BHI	LHI	BHI	LHI	BHI	LHI
2002-03 eta 2003-04 ikasturteak	1	--	3	9	11	--	15	9
2004-05 eta 2005-06 ikasturteak	--	2	5	--	3	2	8	4
Guztira	3		17		16		36	

\* Hezkuntza-zentroez gain, Getxoko Berritzeguneak ere parte hartu zuen.

Gerora, aginduari jarraiki (EHAA, 2005-07-08), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren "Kalitatea Hezkuntzan" Kalitatearen Kudeaketarako Sistema eta horri zegokion egiaztagiria sortu ziren; egiaztagiri horren bidez, Getxoko ikastetxe batzuk eta Berritzegunea egiaztatu eta akreditatu dira, aurreko lau ikasturteetan Berrikuntza Proiektu Esperimentaletan parte hartu baitzuten.

Geroztik, Berrikuntza Sailaren urteroko deialdietan parte hartzen duten ikastetxeek esku hartzeko esparru sistematiko bat proposatu behar dute etengabeko hobekuntzarako, honako eremu hauetan, zehazki: Zuzendaritzako ardurak, irakaskuntza-plangintza, irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesuak (harrera, programazioa, ikasgelako jarduerak, ebaluazioa eta tutoretza), adostasun ezaren kudeaketa, dokumentuen kontrola eta kudeaketa, nahiz barne-ebaluazioak eta -auditoriak.

Egiaztapena Hezkuntza Ikuskaritzak auditoria egin eta gero lortuko da, eta egiaztapen hori lortzen duten ikastetxeei jarraipeneko auditoria bat egingo zaie, dagokien egiaztapenarekin jarraitu ahal izateko.

**"Kalitatea Hezkuntzan" programan esku hartzen duten ikastetxeen kopurua. 2006-07 eta 2007-08.**

	Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza	Guztira
2006-07 ikasturtea	11	19	30
2007-08 ikasturtea	26	28	54

Kalitatearen kudeaketa bermatzeko beste edozein sistema bezala, ezinbestekoa da ikastetxeko irakasle guztien inplikazioa, eta, gainera, orain arte programan parte hartu izan duten ikastetxe gehienen balorazioa positiboa izan da; hain zuzen, bertan sartzen diren ikastetxeen kopuruak gora egin du nabarmen.

Ikastetxeek aholkuak eta prestakuntza jasotzen dute Garatu ikastaroen bidez, bai ikastetxeko prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuei buruzkoa, bai programaren garapena errazteko eratu den ikastetxe-sareari buruzkoa.

### 2.1.2.2. Bizikidetza eta hezkuntza-komunitatea

Elkarrekin bizitzen ikastea da gure hezkuntza-sistemaren helburuetako bat; hain zuzen, bere kalitate-printzipioen artean, honako hauek aipatzen ditu: oinarritzko eskubideak eta askatasunak errespetatuz heztea, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, tolerantziazko eta askatasunezko jokabidea bizikidetzarako printzipio demokratikotzat, gatazkak prebenitzeko eta horiek modu baketsuan konpontzeko prestakuntza, ikastetxeko antolakuntza-, bizikidetza- eta diziplina-arauekiko errespetua...

Eskola ingurune oso aberatsa da interakzioari eta bizipenei dagokienez, eta, beraz, egokia da hezkuntza-komunitateko pertsona guztien eta bakoitzaren ongizate emozionala bilatzeko. Testuinguru horretan, gatazkak aukera egokiak izan daitezke honako estrategia hauek garatzeko: indarkeriazkoak ez diren estrategiak, nagusikeriazkoak ez direnak, berdintasunezkoak, zilegiak, erantzukizunezkoak eta zuzentzaileak.

Eskolaren ikuspegi hori sustatu eta bizikidetza-eredu hori garatu nahian, *Bizikidetzaren, bakearen eta giza eskubideen aldeko heziketa* programa proposatu da.

2000. urtean, Bizikidetzarako lehenengo hezkuntza-programa ezarri zen abian, eta programa hori ebaluatuz, sakonduz eta zabalduz programa honen proposamenera iritsi gara; zehazki, programa honen xedea honako hau da: "Ikastetxeetan, eskubide nahiz betebeharrak eta pertsonen duintasunarekiko errespetua oinarri dituzten harremanak sortzea, hezkuntza-irizpideak eta irizpide inklusiboak izango dituztenak eta gizartearen aldeko jarrerak nahiz gatazken eraldatze etikoa sustatuko dituztenak"; horien xede nagusia, ordea, "ikastetxean Bizikidetzaren Behatokia sortzeko nahiz Urteko Bizikidetza Plana egiteko ideiak sustatzea izango da".

Ildo horri jarraiki, ikasturte berri bakoitzean zentroei deialdia egin zaie *Bizikidetza Plana egiteko eta ikastetxean Bizikidetzaren Behatokia sortzeko proiektuan* parte har dezaten. Hala egiten dutenek konpromisoa hartzen dute proiektuaren arduradun bat izendatzeko; arduradun horrek, hain zuzen, programan proposatzen den prestakuntza espezifiko jaso behar du, eta, horrez gain, dagokion Berritzeguneko mintegietan parte hartu behar du, koordinaziorako eta aholkularitzarako. Era berean, ikastetxean proiektua koordinatzeko talde bat sortzeko konpromisoa hartzen dute; talde hori eskola-komunitate guztiko ordezkariak osatzen dute, eta, gutxienez, zuzendaritza-taldeko pertsona bat egon behar da.

Modu berean, bete ikasturte bat hasten duten ikastetxeek Bizikidetzarako Urteko Plana egin eta Bizikidetzarako Behatokia eratu behar dute ikastetxean, lehenengo urtean; horretarako, koordinatzaileari bere irakastorduen erdia balio duen ordu-kreditua emango zaio. Horrez gain, ikastetxeek hezkuntza-komunitateko kide guztientzako prestakuntza jasotzeko konpromisoa hartuko dute.

Gauza jakina da bizikidetzak kezka sortzen duela ikastetxeetan, eta, gainera, guztiak inplikatzeko dira gai horretan, bakoitza bere erara; hain zuzen, gero eta gehiago dira proiektu horretan parte hartzen duten ikastetxeak. Gainera, proiektua bere

ondorio guztiekin garatzen denean, denbora-inbertsio handia eskatzen die bertan esku hartzen duten pertsona guztiei; are gehiago koordinazio-taldeari, eta, bereziki, koordinatzaileari. Nolanahi ere, bada harridura sortzen duen gai bat; hau da, proiektua abian jartzen den lehen urtean ematen den ordu-kredituaren baliabidea (9 ordu) ez da hurrengo ikasturteetan ematen, nahiz eta lanean jarraitu eta proiektuari denbora eskaini behar izan.

**Bizikidetzarako Plana egiteko eta zentroan Bizikidetzarako Behatokia sortzeko Proiektuan parte hartzen duten ikastetxeen kopurua. 2007-08 ikasturtea**

	<i>Araba</i>	<i>Bizkaia</i>	<i>Gipuzkoa</i>	<i>Guztira</i>
Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza	4	18	20	42
Bigarren Hezkuntza	7	24	17	48
Ikastetxe guztiak	11	42	37	90

**2.1.2.3. Ikaskuntza-kalitatea: eskola-arrakasta guztientzat**

Eskola-arrakasta lortzen duten eta eskola-zentroetan bizikidetzaz arazoak gainditzen dituzten hezkuntza-proiektuei eta -jardueri buruz egiten diren ikerkuntza guztien arabera nahiz gizarte-zientzien eta horien parte diren ikastetxeen ikuspegitik gizarte-eraldaketa sustatzen duten intelektualen arabera, ikaskuntza hainbat eta hainbat interakzioen emaitza da; gainera, horiek zenbat eta askotarikoagoak izan, are eta aukera gehiago izango dira ikaskuntzarako. Horren ondorioz, zenbait ikuspegi baztertu egiten dira, esaterako: ikaskuntza soilik irakasleen eta ikasleen arteko lana dela, eskola jakintzaren zentro bat dela eta ez duela zerikusirik testuinguruarekin, heziketa ikastetxeei soilik dagokiela...

Irakaskuntza-lana talde-lantzat soilik uler daiteke, koordinatua, hezkuntza-komunitate guztiak partekatutako hezkuntza-proiektu baten bidez bideratua; horietan, nesken eta mutilen ikaskuntza talde-lantzat hartzen da, eta, bertan, eskolak garrantzi berezia du.

Lehentasunezko ildo horri jarraiki proposatzen den eskola-ikuspegiaren eraldaketa-prozesua *Ikas-Komunitateen Programaren* bidez garatzen saiatzen da.

Ikas-komunitateen Proiektua hezkuntza-jarduera aldatzeko proiektu bat da, industriaren gizartea informazioaren gizarte bihurtzeko prozesuan sortzen diren erronkei eta premiei modu berean erantzuteko; horretarako, ikasleek eskola-porrotatzea eragiten duten desberdintasunak eta gizarte-bazterketako prozesuak gainditu behar dira, bai eta pertsona guztiei kalitatezko hezkuntza bat —egungo premiei erantzungo diena— eta eztabaida- nahiz kritika-gaitasuna eman ere, berdintasuna, kulturartekotasuna eta elkartasuna oinarri dituen gizartea eraikitzeko.

Hezkuntza-zentroak ikas-komunitate bihurtzeko proiektua ikaskuntza dialogikoan oinarritzen da; zehazki, bi xede ditu: ikasleen ikaskuntza gorena eta bizikidetzaz egoki bat. Horretarako, hainbat ekintza burutuz joango dira, poliki-poliki: hezkuntza-jarduera inklusiboak ezarri; ikasgelak interakzio taldeetan antolatu; gatazken prebentzio dialogikoa eta irakurketa dialogikoa egin; irakasleak, familiarrak,

pertsonal ez irakasleak, laguntzaileak eta ikasleekin elkarreragiten duten gainerako pertsonak prestatu...

Ikas-komunitate diren ikastetxe guztiek ez dituzte sartu aipatutako puntu guztiak, baina guztiek egin dute zerbait xede horrekin (gehiago ala gutxiago). Ikaskuntza instrumentalaren eta bizikidetzaren hobekuntza (bere hasierako egoerarekin alderatuz) handiagoa da hezkuntza-praktika inklusiboak areagotzen doazen heinean.

Hezkuntza-komunitateak eta, bereziki, familiek ikastetxeen antolaketan eta kudeaketan esku hartzen dute lan-batzordeen bidez; horrez gain, ikasgelan sartzen dira interakzio taldeen bitartez eta ikastetxeko bertako prestakuntza-jardueretan parte hartzen dute.

**Ikas-komunitateen Proiektuan parte hartzen duten ikastetxeen kopurua. 2006-07 eta 2007-08.**

	<i>Lehen Hezkuntza</i>	<i>Bigarren Hezkuntza</i>	<i>Guztira</i>
2006-07 ikasturtea	17	2	19
2007-08 ikasturtea	22	3	25

**2.1.3. XXI. mendeko eskola baten alde. Ezagutzaren gizarterako eskola bat lortzea xede duten programak.**

Etengabe aldatzen ari den XXI. mendeko gizarterako pertsonak hezteko beharrezkoa da ikasketekin eta diziplinarekin lotutako helburuez harago daudenak proposatzea, gizarte horretan integratzeko eta parte hartzeko aukera emango dieten eskumenak lortu ahal izateko.

Horren ondorioz, helburu hori lortu nahi duten ikastetxeek, inklusibitatearen eta kalitatearen erronkak beren gain hartzeaz gain, arreta berezia jarri behar diote curriculumari; izan ere, bertan, irakatsi beharreko eduki garrantzitsuez gain, ikasleen ikaskuntzan lortu beharreko helburuak eta horiek ebaluatzeko irizpideak zehazten dira.

Ardatz horretan sartzen diren programen bidez, ikasleak etorkizuneko gizartean behar izango dituen alderdi garrantzitsuak landu nahi dira.

**2.1.3.1. Curriculum berria eta funtsezko eskumenak**

Europako Batasunetik zehaztutako ildoak jarraiki, Euskadiko curriculum berriaren bidez ikasleek beharrezko eskumenak lortzea nahi da, pertsona, herritar eta langile gisa gara daitezen; hau da, izaten ikasi, ezagutzen ikasi, egiten ikasi, jendearekin bizitzen ikasi eta ekiten ikasi.

Ikuspegi horrek aldaketa handiak eragingo ditu irakaskuntza-jardueran, ikuspegi guztiz akademikoa alde batera utzi eta ikuspegi funtzionalago bat hartzea

adierazten baitu, diziplina eta jakintza finkatuetatik diziplinartekotasunera eta zeharkakotasunera pasatzea, ebaluazio-eredu integratuak abian jartzea...

Gaitasunen araberako curriculum-ikuspegi hori bultzatzearen ondorioz, irakasleek prestakuntza-lan handia egin behar dute, beren lanean garrantzi handiagoa eman behar baitiote gaitasunen araberako lanketari curriculum-arloen araberakoari baino; horrez gain, lan hori maila operatiboan gauzatu behar dute batez ere, eta ez hainbeste maila guztiz kognitiboan. Hori dela-eta, lehentasunezko ildo honetan proposatu den lana irakasleak prestatzearekin dago lotuta lehen lehenik; hori, zehazki, kapitulu honen bigarren zatian aztertuko da.

### 2.1.3.2. *Teknologia berriak*

Lehentasunezko ildo horren baitan proposatu diren jarduerak Eusko Jaurlaritzak 2002. urtean egin zuen "Euskadi Informazio Gizartean Plana" dute oinarri; zehazki, honako hau zen plan haren helburua: "*Euskal gizartea aro digitalera egokitzea; horretarako, kultura-aldaketa bultzatuko da eta teknologia berriak pertsona guztien eskura jarriko dira, bizi-kalitate hobea eta gizarte-oreka lortzeko nahiz gure ekonomian baloreak eta aberastasuna sortzeko*". Plana 2008ko apirilean eguneratu zen, eta "Euskadi Informazioaren Gizartean Plana (EIGP 2010)" izena hartu zuen.

Geroztik, IKTak sartu nahian ikastetxeetan egin diren esku-hartzeak ez dira kudeaketa-alorrera soilik bideratu; hau da, ikasgeletan zuzenean jardutea izan dute xede, curriculum-edukiak eta gaitasunen eskuratzeak hobeto garatzeko baliabidetzat.

Ikasleen %88,4k eskuragarri ditu Internetera konektatutako ekipo informatikoak bere ikastetxean, ordenagailu bakoitzeko 9 ikasle eta 3,7 irakasle daude, ikastetxeen %90ek banda zabaleko konexioa du Internetera...; nolana ere, teknologia berriak ez dira sartu ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan behar besteko indarrarekin.

Horren guztiaren ondorioz, eskolak berriro aztertu behar ditu curriculum-edukiak, bai eta ikaskuntzarako funtzio eta profil berriak ere; irakasleek, berriz, gaitasun berriak landu behar dituzte, eta, noski, horretarako ezinbestekoa dute prestakuntza.

Xede hori lortu nahian proposatu da *Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak* programa.

Programa horren helburu nagusia teknologia berriak prestakuntzan sartzen joatea da, ez ikasi beharreko edukitzat edota lortu beharreko trebetasuntzat, baizik eta prestakuntzan erabiltzeko tresnatzat; hau da, baliabide horien bidez, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak garatu nahi dira.

Helburu hori lortuz joan nahian, 2008 amaieran *Ikastetxeen heldutasun teknologikoaren eredia* definitu dute; eredu horren bidez, erreferentzia-marko bat eman nahi izan dute teknologien erabilerari dagokionez ikastetxe bakoitzak zuen egoeraren diagnosis egiteko: maila pedagogikoan nahiz administratiboan, irakasleen eta ikasleen prestakuntza-mailan... Horrez gain, hobekuntza-planak eginez, dituzten premien

araberako heldutasun digitala lortu nahi da, Sailak zehaztutako ildoaren baitan sartzen dena.

Testuinguru horretan, *IKT ikastetxearen eredia ezartzeko proiektuaren* deialdia egin dute 2007-08 ikasturtean, eta, bertan, 115 ikastetxek hartu dute parte.

**IKT ikastetxearen eredia ezartzeko proiektuan parte hartu duten ikastetxeen kopurua. 2007-08 ikasturtea**

	<i>Araba</i>	<i>Bizkaia</i>	<i>Gipuzkoa</i>	<i>Euskadi</i>
Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza	7	14	21	42
Bigarren Hezkuntza	7	27	39	73
Ikastetxe guztiak	14	41	60	115

Proiektuan parte hartu duten ikastetxeek IKTen dinamizatzailerik bat dute; pertsona horrek bere irakastorduen balioaren erdia duen ordu-kreditua du, deialdian eskatutako funtzioak betetzeko: zehaztutako prestakuntza-ikastaroetan eta mintegietan parte hartzea; ikastetxeko IKTak hobetzeko plana egitea; koordinazio-talde bat edo IKTen batzorde bat sortzea, familiariek, ikasleek eta irakasleek osatua; irakasleentzat prestakuntza-ikastaroak antolatzea, ikastetxerako zehaztutako IKTen heldutasun-maila lortzeko eta dinamizatzeko; edota IKTen alorrean egiten diren ekimen guztiak koordinatzea eta ikuskatzea.

Era berean, irakasleek eskura ditzaketen hainbat prestakuntza-modalitatearen baitan, ikastaroak ematen dira horiek euskarri digitaletan duten gaitasuna hobetzeko eta hezkuntza-plataforma digitalen erabilera sustatzeko.

**Egungo plataforma digitalak**

<i>Plataforma</i>	<i>Edukia</i>
www.hiru.com	Eusko Jaurlaritzaren etengabeko ikaskuntzarako ataria.
www.elkasi.net	DBHko aukerazko ikasgaiak eta batxilergoko hautazkoak lantzeko ataria.
www.eMintegi.net	Irakasleen teleprestakuntzarako gunea, Euskal Hezkuntza Sistemaren Berritzegune laguntza-zerbitzuen bidezkoa.
www.berritzeguneak.net	Prestakuntzan eta hezkuntzaren berrikuntzan laguntzeko zerbitzuen ataria.
www.elkarrekin.org	Euskadiko irakasleen lankidetzarako aukera ematen duen fundazio pribatua.
www.elkarrekin.net	Euskadiko ikastetxeen artean proiektu telematikoak partekatzea ahalbidetzen duen fundazio pribatua.
www.eGaratu.net	Euskal Hezkuntza Sistemako irakasleen hobekuntzarako gunea
http://www.ulibarri.info/	Euskadiko ikastetxeen hizkuntza-normalkuntzarako plataforma.
www.eDukiak.info	Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren hezkuntza-eduki digitalen ataria.

Oraindik, irakasle gutxik sartzen dituzte IKTak ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan; batzuetan, ekipamendu faltaren ondorioz, beste batzuetan euskarazko material didaktiko digitalik ez izateagatik, eta, beste batzuetan, agian, baliabide berri horien aurrean pertsona bakoitzak hartzen duen jarreragatik. Dena den, Euskadin esperientzia berritzaileak ageri dira, DBHn hautazko irakasgai telematikoak eskaintzea, esaterako.

**Hautazko irakasgai telematikoetako parte-hartzea. 2005-06 eta 2007-08 ikasturteak**

	2005-06	2006-07	2007-08
Ikasleak	46	746	1.476
Irakasleak	1	30	60
Ikastetxeak	6	41	56

Esperientzia horretan 56 ikastetxek hartu dute parte 2007-08 ikasturtean, publikoek nahiz kontzertatuek; gainera, ikastetxe ia guztiek (%97,8), familia gehienek (%95,7) eta irakasle guztiek (%100) positiboki baloratu dute. Zehazki, irakasleek uste dute ikasleei ematen zaien arreta banan banakoagoa dela (%78), IKTen erabilerak zentzua duela irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako (%91), eta ikaskuntza-prozesua autonomoagoa dela, sormena garatzeko aukera ematen duela eta denbora, zereginak... antolatzen erakusten duela.

Materialak eginda ematen zaizkie ikastetxean irakasgai arduratuko diren irakasleei; baina, pertsona horiez gain, teletutorea dago: ikastetxeko irakasle bat edo horrekin koordinatuta dagoen beste pertsona bat.

**2.1.3.3. Euskadiko eta Europako gizarte-esparrua**

Norberaren kultura ezagutzuz eta berretsiz soilik lor daiteke bestelako kulturak eta kultura arteko ezaugarriak onartzea eta nork bere egitea. Horri dagokionez, lehenetsuneko ildo horri jarraiki proposatu da Euskadi eta Europaren dimentsioak curriculumean sartzeko eta horien ezaugarriak ematea, curriculum-materialak eta hezkuntza-proiektuak erabiliz.

Euskal kulturari buruzko ezagutza eta euskararen normalkuntza landu nahian, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak NOLEGA atala sortu zuen Euskara Zerbitzuaren baitan 1984. urtean; atal horren xedea, besteak beste, eskola-eremuan euskararen dimentsioa lantzea da.

NOLEGAREN bidez, Euskadiko unibertsitatez kanpoko ikastetxe guztiei hainbat proiektu gauzatzeko aukera ematen zaie; proiektu horiek banan-banan aztertuz jarduera zehatzak diruditen arren, ikastetxeetan gauzatzeko ereduari dagokionez euskal dimentsioa lantzeko lan koordinatu eta koherentea egiten dute, Hizkuntza Normalkuntzarako Ulibarri programarekin batera (hizkuntzei buruzko atalean lantzen da).

Aipatutako proiektuak askotarikoak dira: deklamazio-lehiaketak (esaterako, Abelino Barriola saria), literatura-lehiaketak (Urruzuno saria), ikasleek idazleren baten obra irakurri eta gero idazle hori ikastetxera eramatea, edo hainbat jardueratan parte hartzea, besteak beste:

- Eskolaz kanpoko jarduerak (IKE proiektua). Ikasgelatik kanpoko hezkuntza-eremuetan eta -denboran (jantokian, jolas-orduan, eskolaz kanpoko jardueretan, autobusean, pasabideetan...) gauzatzen dira eta horien xedea

euskararen erabilera indartzea da; aldi berean, euskal kulturaren hainbat alderdi lantzen dira (jokoak, dantzak, musika...).

Txosten honetan aztertu diren bi ikasturteetako parte-hartzea lurralde guztietan gauzatu da; dena den, ikastetxe publikoei dagokienez, Lehen Hezkuntzan parte-hartze handiagoa izan da Bigarren Hezkuntzan baino.

#### **IKE Proiektuko parte-hartzea, hezkuntza-sareen arabera. 2006-07 eta 2007-08 ikasturteak**

		2006-07	2007-08
Araba	Ikastetxe publikoak	25	31
	Ikastetxe kontzertatuak	17	19
Bizkaia	Ikastetxe publikoak	103	109
	Ikastetxe kontzertatuak	55	61
Gipuzkoa	Ikastetxe publikoak	61	59
	Ikastetxe kontzertatuak	55	55
GUZTIRA		316	334

#### **IKE Proiektuaren parte-hartzea ikastetxe publikoetan, ikastetxe-motaren arabera. 2006-07 eta 2007-08 ikasturteak**

	2006-07	2007-08
Haur eta Lehen hezkuntzako ikastetxeak	124	132
Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak	63	65
Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak	2	2

Egindako inbertsio ekonomikoa 157.067 eurokoa izan zen 2006-07 ikasturtean eta 182.780 eurokoa 2007-08 ikasturtean.

- Ikastetxeen arteko trukeak (IKABIL proiektua). Proiektu honen xedea euskarak eta euskal kulturak presentzia oso aktiboa ez duten zonetako ikasleak eta eskolan edota familian euskal giroa duten ikasleak elkarrekin bizitzea da; horretarako, 39.528 euroko laguntza jaso zuten 2006-07 ikasturtean eta 39.300 eurokoa 2007-08 aldian.

Bi ikasturteetan 46 ikastetxek hartu dute parte proiektu horretan; horiek binaka lotu dira, bai lurralde berekoak, bai lurralde desberdinekoak.

#### **IKABIL Proiektuaren parte-hartzea, lurraldeen arabera. 2006-07 eta 2007-08 ikasturteak**

	2006-07	2007-08
Araba	11	10
Bizkaia	16	14
Gipuzkoa	4	4
Nafarroa	7	8
Lapurdi	5	8
Nafarroa Beherea	2	2



- Ahozko adierazpena. Proiektu honen baitan, antzerkiarekin, bertsolaritzarekin eta eskola-kantagintzarekin lotutako jarduerak biltzen dira, bai eta irratiko proiektuak ere.

2006-07 ikasturtean, Sailak 299.809 euro eman zituen hiru lurraldeetako ikastetxe publikoetan nahiz kontzertatuetan landu zituzten programa horietarako.

**Ahozko adierazpenaren proiektuko parte-hartzea, lurraldeen eta hezkuntza-sareen arabera. 2006-07 eta 2007-08 ikasturteak**

	2006-07		2007-08	
	Publikoa	Kontzertatua	Publikoa	Kontzertatua
Araba	28	13	26	12
Bizkaia	125	54	130	57
Gipuzkoa	100	58	96	66
GUZTIRA	253	125	252	135

2007-08 ikasturteko parte-hartzeari dagokionez, esan daiteke ez dela aldaketa handirik izan aurreko ikasturteko parte-hartzearekiko, ez eta xede horretarako esleitutako diru-kopuruarekiko ere (296.938 €).

Ikastetxeetan euskal dimentsioa indartzeko jarduera-multzo horren baitan, ikastetxetik kanpo egin beharreko beste hainbat jarduera daude, esaterako: *Euskal Girotze Barnetegiak eta Egonaldiak*; jarduera horiek 7-14 urte bitarteko ikasleentzat dira, eta, egun batzuetan, ikasle horiei euskal kulturarekin lotutako giroan murgiltzeko aukera ematea dute xede. Besteak beste, tailerrak eta jokoak egiten dira, eta horien xedea euskara indartzea eta ikasle horiei euskal kultura gerturatzea da.

Jarduera horiek egiteko zentroak Alkizan, Lemoizen, Barrian, Elgoibarren eta Seguran daude.

Era berean, Euskadiko ikasgeletan Europaren dimentsioa lantzeko xedearekin, ikasleek eta irakasleek Europako prestakuntza- eta berrikuntza-ekimenetan parte hartzea proposatu da —Sailak berak egiten dituen deialdietan—, bai eta euskal kulturaren ezagutzan sakontzen duten jardueretan ere.

Parte hartzen den Europako programei dagokienez, argi utzi behar da 2006-07 ikasturtetik aurrera 2007-13 *Etengabeko Ikaskuntzako Programa* jarri zela abian, Europako Parlamentuak onartu zuena eta garai bateko Sokrates programa ordezkatu zuena. Programa horren baitan hainbat jarduera daude sartuta, horietako bakoitza hezkuntza-etapa desberdin bati zuzendua; dena den, guztiek dute helburu komun bat, bertan parte hartzen duten Europako herrialdeetako hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen arteko trukea, lankidetzeta eta mugikortasuna erraztea.

**Etengabeko Ikaskuntzako Programaren parte diren proiektuak, 2007-13**

<i>Comenius</i>	<i>Erasmus</i>	<i>Leonardo da Vinci</i>	<i>Grundtvig</i>
Eskola-hezkuntza	Goi-mailako hezkuntza eta hirugarren mailako LH	Lanbide Heziketa	Helduen Hezkuntza
<b>Zeharkako programa</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Berrikuntza-politiken garapena: ikasketa-bisitak hezkuntza-adituentzat</li> <li>- Hizkuntzen ikaskuntza</li> <li>- IKTen bidezko edukien garapena</li> <li>- Emaizten hedapena eta ustiapena</li> </ul>			
<b>Jean Monet</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jean Monet ekintza</li> <li>- Europako erakunde espezifikoentzako laguntzak</li> <li>- Hezkuntzan eta prestakuntzan aktibo dauden Europako erakundeen eta elkarten laguntzak</li> </ul>			

Europako kulturen eta hizkuntzen aniztasuna ulertzeko Comenius Proiektuak bi modalitate ditu: bata ikasleei eta ikastetxeei zuzendutakoa (Comenius 1) eta bestea irakasleei edo etorkizuneko irakasleei zuzendutakoa (Comenius 2). Beti, onartzen diren proiektuak baino gehiago eskatzen dira, onarpen-prozesuan parte hartzen duten herrialdeetako hiruk, gutxienez, eman behar baitute oniritzia.

**Comenius Proiektuaren parte-hartzea. 2001-02 ikasturtetik 2007-08 ikasturtera.**

	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Eskola-proiektuak	39	30	22	23	31	32
Hizkuntza-proiektuak	4	15	13	9	10	10
Eskola-garapenerako proiektuak	0	1	5	5	6	3
Prestakuntzarako bisitak	10	8	10	4	2	6
<b>Comenius 1</b>	53	54	50	41	49	51
Irakasleen prestakuntza	40	32	27	12	23	23
Hizkuntza-laguntzaileak	1	5	5	5	3	5
Hizkuntza-laguntzaileak hartzeko erakundeak	6	8	10	4	4	4
<b>Comenius 2</b>	47	45	42	21	30	32
<b>Guztira</b>	100	99	92	63	79	83

Proiektu batzuetako parte-hartzeari eutsi egin zaio edo bestela parte-hartzea gutxitu egin da; horren azalpena, hain zuzen, Sailak 2002-03 ikasturtean egindako *Eskola-trukeak eta alde anitzeko topaketak* deialdiak eman dezake, deialdi horren izapideak eta kudeaketa egitea askoz ere sinpleagoa baita, nahiz eta ez den atzerriko bazkidea finantzatzen.

Hizkuntza-laguntzaileen modalitateari bere horretan eutsi zaio, Euskadiri esleitutako plaza-kopurua finkoa baita; irakasleen prestakuntzari dagokionez, 2004ko ikasturtera arte jaitziera bat gertatu zela hauteman daiteke, neurri handi batean atzerriko hizkuntzen ikastaroei GARATU prestakuntza-planaren baitan eman zitzaizen bultzadak eraginda.

Leonardo eta Erasmus programak, berriz, Lanbide Heziketako ikasleentzat dira, eta, horien bidez, praktikak egiten dira Europako herrialdeetako enpresetan.

#### Leonardo eta Erasmus programen onuradunen kopurua. 2006-07 eta 2007-08 ikasturteak

	2006-07	2007-08
Erasmus	663	617
Leonardo	423	556

Zeharkako programaren baitan, hezkuntza-adituentzat prestatutako ikasketa-bisitak daude: ARION proiektua. Espezialista- eta arduradun-talde txiki batek (10-15 lagun) egiten dituzten 3-5 eguneko bisita laburrak dira, beste herrialde partaide batean etengabeko ikaskuntzak duen alderdi berezi bat aztertzeko; pertsona horiek, zehazki, hezkuntzan eta lan-prestakuntzan interesa duten alderdiak ordezkatzan dituzte: aholkulariak, ikastetxeetako zuzendariak, departamentu-buruak, tokiko agintarien ordezkariak...

#### Euskadik Arion programan duen parte-hartzea. 2001-02 ikasturtetik 2007-08 ikasturtera

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Ikasketa-bisitak	5	7	6	8	3	6	9

Programa honetan, eskatzaile-multzoa oso mugatua da, atzerriko hizkuntzaren maila ona eskatzen baita, eta, gainera, urte batean onuradun izanez gero, hiru urtez itxaron behar da laguntza berriro eskatu ahal izateko.

Aurrez aipatu dugun *Eskola-trukeen eta alde anitzeko topaketen* Sailaren deialdian DBHko 3. eta 4. mailak, batxilergoa eta heziketa-zikloak irakasten dituzten ikastetxeek har dezakete parte, publikoek nahiz pribatu kontzertatuek; gainera, deialdi horietan parte hartzeko, ezinbestekoa da eskaera lan-proiektu zehatz batzuetarako egitea, honako hauetarako, zehazki: egonaldia eta elkarbizitza hasi aurretik, horiek iraun bitartean nahiz amaitu eta gero jarduerak izango dituzten proiektuetarako —bi herrialde partaideetan, trukeei dagokienez, eta herrialde bakarrean, topaketei dagokienez—.

Europako esparruan, badira garapenerako jarduera-mota horiek ezagutzen ez dituzten ikastetxeak; hala ere, igoera handia hauteman da, bai parte hartu duten ikastetxe-kopuruari dagokionez, bai aurkeztutako proiektuei dagokionez. Horrek, beraz, adierazten du ikasleek gero eta parte-hartze handiagoa dutela jarduera-mota horietan.

#### Sailaren deialdian egin diren trukeen/topaketen eta horietan parte hartu duten ikastetxeen nahiz ikasleen kopurua. 2002-03 ikasturtetik 2007-08 ikasturtera

	2002-03	2003-04	2004-05	2005-06*	2006-07	2007-08
Truke-kopurua	20	27	37	54	63	81
Ikastetxe-kopurua	20	27	37	43	46	63
Ikasle-kopurua		628	777	1.288	1.149	1.964

\* Ikasturte horretatik aurrera, ikastetxe bakoitzak truke-eskaera bat baino gehiago egin ahal izan ditu.

Batez ere, Europako honako herrialde hauekin egiten dira trukeak eta topaketak: Frantzia, Alemania, Erresuma Batua, Holanda, Suedia eta Italia (2.7. eranskina).

#### 2.1.3.4. *Hizkuntzak*

Gure ikastetxeetan, bi hizkuntza ofizialak, atzerriko hizkuntzak eta gero eta ugariago diren ama-hizkuntza desberdinak erabiltzen dira; beraz, aurre egin beharreko erronka horri erantzuteko, Hizkuntzen Erreferentziarako Europako Marko Bateratuan jasotako aurrerapenak eta ekarpenak baliatu behar lituzke eskolak.

Hizkuntza funtsezko faktore bat da gizakiaren garapenean. Izan ere, norbanakoari dagokionez, tresna horrek aukera ematen dio pertsona bakoitzari gauzak adierazteko, pentsatzeko, bere ezagutza aldatzeko edota bere jarduera arautzeko; oster, gizarte-esparruari dagokionez, kultura sortzeko eta horren oinarriak ezartzeko tresna da, pertsonen komunikaziorako eta ulermenerako tresna. Gainera, gizarteratzeko aukera ematen du, eta beharrezkoa da sentimenduak adierazteko, garapen zientifikorako, jarduera ekonomikorako...

Beraz, ez da hizkuntza-irakaslearen esku soilik dagoen lan bat, baizik eta ikastetxeko irakasle-talde guztiaren esku; gainera, ezinbestekoa da ikastetxean irakasten diren hizkuntza desberdinen irakasleen arteko lankidetzeta eta koordinazioa.

Asmo horrekin eta, mendeko hizkuntza izanik, euskarak une oro behar duen arreta berezia aintzat hartuta, honako berrikuntza-programa hauek proposatu dira:

- *“Hizkuntzen tratamendu integratua” programa*

Hizkuntza guztien xedea pertsonen elkarren artean komunikatzeko aukera ematea dela oinarri hartuta, hizkuntza horien guztien artean lotura-puntuak aurki daitezke, hizkuntzok ikastea eta erabiltzea errazteko.

Horregatik, programa honen bidez, edukiak ez gainjartzea lortu nahi da; hau da, hainbat hizkuntza-arloen arteko koordinazioa nahi da, hizkuntza-edukiak modu adostuan antola daitezten. Antolaketa hori, gainera, bateragarria izan beharko da Hizkuntzen Erreferentziazko Europar Markoarekin nahiz eskola inklusiboaren printzipioekin, eta, horrez gain, ikastetxeko Hizkuntza Proiektuan jaso beharko da.

Orain arte egindako lanean, Berritzeguneetako aholkularitza-zerbitzuek hizkuntzen Tratamendu Integratuari buruzko prestakuntza eman diete irakasleei; horrez gain, Euskadiko hainbat ikastetxetan unitate didaktikoak egin eta horiekin esperimenduak dute, bai eta materialak sarean<sup>3</sup> jarri ere, interesa duten guztien eskuragarri.

---

<sup>3</sup> *www.berrikuntza.net: Hizkuntza-normalkuntza eta eleaniztasuna atala, Hizkuntzen Tratamendu Integratuko Programa.*

Material horietan irakasleentzako jarraibideak eman eta hainbat proposamen egin dira (webquest, testuak, lan-gidoiak...), Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako hainbat mailatan erabiltzeko.

- **Hizkuntza-normalkuntzako "Ulibarri" programa**

2007-08 ikasturtean, 400 ikastetxek baino gehiagok hartu zuen parte Hizkuntza-normalkuntzako programa horretan: 408 ikastetxek, 8.700 bat ikasgelak, 17.000 irakaslek eta 177.000 ikaslek; programa hori 323/2003 Dekretuak arautu zuen eta horren helburu nagusia euskararen erabilera sustatzen laguntzea da.

**Ulibarri programaren parte-hartzea, lurraldeen eta hezkuntza-sareen arabera. 2005-06 eta 2007-08 ikasturteak**

ikasturtea	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Guztira
	Publikoa	Kontzertatua	Publikoa	Kontzertatua	Publikoa	Kontzertatua	
2005-06	24	16	118	52	109	64	384
2006-07*	19	19	118	55	112	70	393
2007-08	20	19	120	62	112	74	408**

\* 2004-05 ikasturterako jada programan sartuta zeuden ikastetxeen kanpo-ebaluazioa egin da

\*\* Ebaluazioa gainditu eta gero, 345 ikastetxek jarraitzen dute

Bertan parte hartzeko, hizkuntza-erabilerari dagokionez ikastetxeak hasieran bizi zuen egoera baloratu behar da, eta, horrez gain, neurri zehatzak ezarri behar dira, ikastetxeko eguneroko funtzionamenduan eta eskola-eremuan euskararen erabilera sustatzeko, bai ahoz, bai idatziz.

Ikastetxe horrek programaren teknikari arduradun bat izendatzen du, bere lana egiteko ordu-kreditu bat duena, eta Hizkuntzaren Normalkuntzarako Batzorde bat eratzen du, familien, irakasleen, ikasleen eta pertsonal ez irakasleen ordezkariak osatua.

**Ikastetxe-kopurua, Ulibarri programaren dinamizatzailerari esleitutako ordu-kopuruaren arabera. 2005-06 ikasturteetik 2007-08 ikasturtera**

Lurraldea	Ordu kopurua	Ikastetxe-kopurua		
		2005-06	2006-07	2007-08
Araba	9	20	22	20
	6	19	16	19
	3	1	0	0
Bizkaia	9	86	91	96
	6	79	74	77
	3	6	8	9
Gipuzkoa	9	76	80	90
	6	84	87	83
	3	6	7	5
	0	9	9	9

Ikastetxe kontzertatuei dagokienez, diru-laguntzak eman ohi dira programaren arduradunari dagokion ordutegi librea betetzeko.

**Ikastetxe kontzertatuei egindako esleipenak. 2005-06 ikasturtetik 2007-08 ikasturtera**

<i>ikasturtea</i>	<i>Laguntzaren balioa</i>
2005-06	1.807.628 €
2006-07	2.022.161 €
2007-08	2.214.805 €

- ***“Hezkuntza eleaniztuna” programa***

Aurreko atalean Europaren dimentsioa garatzeko proposatu diren programei zuzenean lotuta, eta dagokien kultura eta hizkuntza anitzeko gizartean komunikatzea errazagoa egingo dieten tresnak gure ikasleei eman nahian, hezkuntza eleaniztunaren programa hau proposatu da. Programa honek, hain zuzen, jarraipena emango dio Ingelesaren Sarrera Goiztiarra programari eta hori hobetzeko aukera emango du, bai eta INEBI eta BHINEBI programak hobetzeko aukera ere; azken bi programa horiek azken urteetan ezarri dira, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan, hurrenez hurren.

Derrigorezko Bigarren Hezkuntzan eta batxilergoan gauzatzen da, ingeles hizkuntzaren atalaz gain beste curriculum-arlo batzuk ere ingeles hutsean irakasten diren mailetan; hain zuzen, programa horren helburu nagusia hirueletasuna bultzatzea da, elebitasuna oinarri hartuta.

DBHn, gutxienez, 7 ordu irakatsi behar dira euskaraz, eta beste 7, gutxienez, ingelesez; batxilergoan, berriz, irakasgaien %25, gutxienez, euskaraz eman behar da, eta beste %25 ingelesez.

**Aipatutako programen parte-hartzea**

<i>Programa</i>	<i>Ikastetxeak</i>	<i>Ikasleak, gutxi gorabehera</i>
Ingelesaren Sarrera Goiztiarra (ISG)	%90, gutxi gorabehera	%90
INEBI	211	28.000
BHINEBI	32	1.600
Esperientzia eleaniztuna	18	600

Lehenengo hiru moduluek (ISG, INEBI eta BHINEBI) ingelesaren alorrari egiten diote erreferentzia. Ingelesaren arloaren baitan, beste alor batzuetako curriculum-edukiak lantzen dira (gizarte-zientziak, natura-zientziak, matematikak...); beraz, alor horietako edukiak eta ingelesa aldi berean ikasten dira (2.8. eranskina).

**2.1.3.5. Hezkuntza zientifikoa**

Ezin da zalantzan jarri zientziak eta teknologiak beste hainbat alorretan duen eragin handia, esaterako: osasuna, elikadura, energia-baliabideak, ingurumenaren

zaintza, garraioa, komunikazioak, informazio- eta komunikazio-teknologiak...; azken batean, gizakiaren bizi-kalitatean eragiten duen orotan.

Eskolaren xedea ikasleari beharrezko baliabideak ematea da, zientziarekin eta teknologiarekin lotutako egungo eta etorkizuneko gizarte bateko herritar izan daitezen; horretarako, beraz, beharrezkoa da ikasleei behar besteko kultura eta prestakuntza zientifikoa ematea, maila pertsonalean nahiz sozialean erantzukizuneko jarrerak hartzen lagunduko diena.

Lehentasunezko ildo honetan, irakasleentzako prestakuntza-jarduerak proposatu dira, horien ikasgelan egiten dituzten jarduerak berrikuntza- eta ikerkuntza-prozesuekin lotzeko.

2008-09 ikasturtetik aurrera, *Hezkuntza Zientifikoa* programaren deialdia aurreikusi da lehen eta bigarren mailako ikastetxeetarako.

#### **2.1.3.6. Garapen iraunkorra**

Herritar izaten ikasteak ere globaltasun-kontzeptua eta horren konplexutasuna ezagutzea eskatzen du, bai eta kontzientzia hiritarra, ekologikoa eta multikulturala onartzea ere.

Helburu horiek lortu nahian, 1992tik urratsak egin dira “Eskola Ekologikoa” programarekin; horren ondorioz, 2003an, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak *Eskola Agenda 21* programa jarri zuen abian, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailarekin batera.

Eskola Agenda 21 Euskadiko iraunkortasunerako hezkuntza-programa bat da, ikastetxeetako hezkuntza-komunitateei zuzendua; zehazki, 2003-04 ikasturtetik dago abian, eta, hasiera hartan, 43 ikastetxek hartu zuten parte.

Parte-hartzea handituz joan da, poliki-poliki, eta, 2006-07 ikasturtean, 350 ikastetxek hartu zuten parte eta, 2007-08 ikasturtean, 420k (Euskadiko 10 ikastetxetik 6k); ikastetxe horiek lan egin dute honako helburu hauek lortzeko: gizarte- eta ingurumen-arazoa ulertzea, ikastetxeek garapen iraunkorrarekin koherentea den ingurumen-kudeaketa egitea eta komunitatean parte hartzea garapen iraunkorraren alde (Tokiko Agenda 21).

Eusko Jaurlaritzak konpromiso sendoa hartu zuen programa 2002-2020 Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiaren baitan sustatzeko; hain zuzen, estrategia horren arabera, erkidegoko derrigorrezko hezkuntzako ikastetxeen %100 Eskola Agenda 21 programaren parte izango dira 2012rako.

## 2.2. Irakasleen etengabeko prestakuntza

---

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak prestakuntza-modalitate ugari eskaintzen ditu Euskadiko ikastetxe publiko eta kontzertatuetako irakasleentzat, zuzentzen zaion ikastetxe-motaren arabera, hau da: banan banako prestakuntza edo taldekoa, ikastetxean bertan edo bertatik kanpo, nork eskaintzen eta/edo nork ematen duen... (2.9. eranskina).

### 2.2.1. Zentroko prestakuntza

- *Prestakuntza eta Berrikuntza Proiektuen deialdia*

Ikasturte bakoitzean, Euskadiko ikastetxe publiko eta kontzertatu guztiek ikastetxean bertan prestakuntza-proiektuak egitea proposa dezakete, Sailak horretarako egiten duen deialdiari jarraiki.

Txosten honetan aztergai ditugun bi ikasturteei dagokienez, ikastetxe bakoitzak prestakuntza-proiektu bakarra aurkez dezakeen 2006ko aginduaren (EHAA, 2006/06/07) eta 2007koaren (EHAA, 2007/08/23) arabera; proiektu horren baitan, zehazki, A modalitateko 2 jarduera sar zitezkeen, gehienez, eta B modalitateko 4 jarduera.

A modalitateko jarduerak ikastaro laburrak dira (10 ordu); horietan, etapako irakasleen %70ek hartu behar du parte, gutxienez, eta Berritzeguneko aholkulariek ematen dituzte, Sailaren lehentasunezko ildoan gaiarekin zuzenean lotuta. B modalitatekoek, aldiz, 15 orduko iraupena izan behar dute, gutxienez, eta 35 ordukoa, gehienez; gainera, Saitetik kanpoko pertsonak edo erakundeek eman ditzakete. Azken horien gaiak ikastetxeak berak zehazten ditu, bertan garatu nahi dituzten edo jada garatzen ari diren berrikuntza-proiektuen arabera.

A modalitateko jarduerak, Berritzeguneez ematen dituztenez, diru-hornidura txiki bat dute, ikastaroa emateko behar den materialaren gastuak estaltzeko erabiltzen dena. Aldiz, B modalitateko ikastaroetarako diru-hornidura handiagoa da, eta deialdian bertan zehazten da jarduera bakoitzari gutxi gorabehera dagokion kalkulatzeko formula; nolana ere, kopuru hori ematea edo ez ematea onartutako proiektu-kopuruaren eta Sailak aurrekontuaz egiten duen azken banaketan proiektuari dagokion kapituluaren prestakuntzarako esleitzen duen kopuruaren arabera izango da. Emandako zenbatekoaren %80 ikasturte hasieran jasotzen da eta gainerako %20 azken memoria aurkeztean.

Ikastetxe publikoetako zuzendariei eta ikastetxe kontzertatuetako ordezkari legalei dagokie eskaera egitea eta proiektuak abian jartzen direla bermatzea; dena den, ikasketa-buruari dagokio proiektu horietan sartutako jarduerak koordinatzea. Ezinbesteko baldintza da, bestalde, klaustroari proiektuaren berri ematea eta OOGren onarpena jasotzea.



Proiektua onartzen zaien zentro guztiek Berritzeguneko aholkulari bat izaten dute esleituta; horiek, aholkularitza-lana egiteaz gain, proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egiten dute, Hezkuntza Ikuskaritzarekin batera.

Ikastetxe publikoetako prestakuntza-ekintzen kopurua jaitsi egin da azken urteetan, eta kontzertatuetan, berriz, kopuruari eutsi zaio; hori, agian, eskaerak egiteko behar den gutxieneko klaustro-ehuneko lortzeko ikastetxe publikoek zailtasun handiagoak izatearen ondorioz gerta daiteke. Hala ere, ikastetxe publikoetako ekintza-kopurua askoz ere handiagoa da pribatuetakoa baino.

#### **Azken 5 urteetan ikastetxe publiko nahiz pribatuetan gauzatutako prestakuntza-ekintzen kopurua**

	2003-04	2004-05	2005-06	2006-07	2007-08
Prestakuntza publikoetan	653	582	593	569	448
Prestakuntza kontzertatuetan	245	178	197	196	197

Modalitateak kontuan hartzen baditugu, B eredia A baino ugariagoa da, argi eta garbi, bai ikastetxe publikoetan, bai pribatuetan; izan ere, lehenengo modalitateak ikastetxearen esku uzten du prestakuntza diseinatzea, klaustroaren premiekin zuzenean lotuz.

#### **Ikastetxe publiko nahiz kontzertatuetan gauzatutako prestakuntza-ekintzen kopurua, modalitatearen arabera. 2006-07 eta 2007-08 ikasturteak**

	2006-07 ikasturtea		2007-08 ikasturtea	
	Publikoa	Kontzertatua	Publikoa	Kontzertatua
A modalitatea	102	29	71	10
B modalitatea	467	167	377	187

Lehentasunezko ildoak kontuan hartuta, ikus daiteke prestakuntza-proiektu gehienak ikastetxe zehatz batzuei lotuta egiten direla, eta, gainera, bat datozela berrikuntza-proiektuekin lotu zirenekin; hain zuzen, datu horrek adierazten duenaren arabera, ikastetxeek koherentziaz jokatzen dute prestakuntza- eta berrikuntza-alorrean egiten dituzten eskaeretan (2.10. eranskina).

#### **Prestakuntza-ekintzen kopurua, lehentasunezko ildoen arabera**

<i>Lehentasunezko ildoak</i>	2006-07	2007-08
Teknologia berriak	199	139
Bizikidetzeta eta hezkuntza-komunitatea	176	143
Hizkuntzak	113	95
Ikaskuntza-kalitatea: eskola-arrakasta guztientzat	94	60
Curriculum berria eta oinarriko konpetentziak	72	110
Gizarte- eta kultura-aniztasuna	63	42

2006-07 ikasturtetik 2007-08 ikasturtera, prestakuntza-ekintzen guztizkoan hauteman den jaitsieraz aparte, aurreko taulan igoera nabarmena ikus daiteke curriculum berriarekin eta oinarriko konpetentziekin loturikoetan; horrek, beraz,

agerian uzten du ikastetxeak zerbaiten premia sentitu dutela, bai curriculum berriaren garapenari aurre egiteko, bai horrek eragiten dituen ebaluazioei aurre egiteko.

Berrikuntzaren alorrean jada aipatu zen euskaraz egindako proiektuek izandako goranzko bilakaera; bada, prestakuntza-proiektuei dagokienez, gauza bera gertatu da. Halaber, ikastetxean prestakuntza-ekintzak egiteari dagokionez, joera errepikatu egin da; hau da, ehunekoan arabera, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan prestakuntza-ekintza gehiago egiten dira (715 prestakuntza-ekintza Lehen Hezkuntzako 355 ikastetxeetan eta 381 ekintza Bigarren Hezkuntzako 149 ikastetxeetan).

Ikastetxe publikoen eta pribatuen prestakuntzarako Sailak ematen dituen kopuru ekonomikoak ikasturte bakoitzean prestakuntzarako eta berrikuntzarako egiten dituen deialdietan daude zehaztuta; hain zuzen, 2. atalean aipatu bezala, 2006-07 ikasturtean 1.590.950 eurokoa izan zen eta, 2007-08 ikasturtean, 1.878.909 eurokoa.

Ikastetxe kontzertatuei dagokienez, aurrez aipatutako kopuruetatik dagokien zatiaz gain, diru-laguntzen beste deialdi bat dute, ikastetxe pribatuen federazioei eta elkarteei zuzendua, ikastetxe horietako irakasleen prestakuntza-jarduerak egin ahal izateko; esaterako, 1.888.711,40 € jaso dituzte 2007-08 ikasturterako.

- *Zona bakoitzeko mintegiak*

Berritzeguneek berek edo beste kolaboratzaile batzuek ematen dituzte, eta, besteak beste, honako gai hauek lantzen dituzte: ikastetxeetan gauzatzen diren programak eta proiektuak, zuzendaritza eta hezkuntza-etapa desberdinak.

2006-07 ikasturtean, prestakuntzari buruzko jarduera-mota horietan 2.240 irakaslek hartu zuten parte.

**2006-07 ikasturtean, egin zen mintegi-kopurua eta horietan parte hartu zuen pertsona-kopurua**

	<i>Mintegi-kopurua</i>			<i>Parte-hartzaileen kopurua</i>		
	<i>M*</i>	<i>S*</i>	<i>Guztira</i>	<i>M</i>	<i>S</i>	<i>Guztira</i>
Araba	13	2	15	55	15	70
Bizkaia	129	14	142	1.176	183	1.359
Gipuzkoa	62	19	81	584	227	811
Euskadi	204	35	139	1.815	425	2.240

\* *M: Berritzeguneko langileek emandako mintegiak / S: Kolaboratzaileek emandako mintegiak*

Mintegiak egiteko, parte-hartzaileen gutxieneko kopuru bat izan behar da, eta, zenbaitetan, hainbat Berritzegune elkartzen dira mintegiak abian jartzeko.

Helburu nagusia mintegi horietara joaten diren pertsonen prestakuntza egokia ematea da; baina, horrez gain, bada beste helburu bat, Berritzeguneetan edo sarean oro har irakasleen eskura egongo diren materialak egitea.

- *E-mintegiak*

Zonako mintegien helburu bera du; desberdintasun bakarra azken hauek plataforma digitalen bidez egiten direla.

- *Trukeak eta topaketak*

Aldizkakotasuna txikiagoa da mintegiena baino, eta helburuak ere desberdinak dira; normalean, ikastetxeen artean esperientziak eta jardute egokiak trukatzeko eta sareak eratzea errazteko elkartzen dira.

### 2.2.2. *Banakako prestakuntza*

Beste prestakuntza-aukera bat da; hau ere, Sailak eskaintzen du, eta, horren bidez, irakasle bakoitzak aukera dezake proposatutako hainbat modalitatetan egin edo ez.

- *Garatu ikastaroak*

Urtero antolatzen diren ikastaro hauetan, Euskadiko ikastetxe publiko nahiz kontzertatuetako irakasleek, Zonako Laguntza Zerbitzuetako langileek eta ikuskatzaileek har dezakete parte. Era berean, hezkuntza-premia bereziei buruzko ikastaroetan, Hezkuntza Bereziko langileek parte hartu ahal izango dute, eta, plazak libre geratuz gero, Lanbide Heziketako irakasle espezifikoek ere parte hartu ahal izango dute (2.11. eranskina).

**Garatu Planaren baitan eskainitako eta egindako ikastaroen kopurua eta horietan izandako parte-hartzaileak. 2006-07 eta 2007-08 ikasturteak**

<i>ikasturtea</i>	<i>Eskainitako ikastaroak</i>	<i>Egindako ikastaroak</i>	<i>Parte-hartzaileak</i>
2006-07	288	244	4.297
2007-08	326	289	5.191

Ikus daitekeen bezala, azken ikasturtean eskainitako ikastaroen kopurua nahiz parte-hartzaileena hazi egin da, eta, ostera, egiten ez diren ikastaroen kopuruak ia berdin jarraitu du.

Garatu Planaren baitan, liberaziorik gabe egiten diren ikastaroak—hau da, irakasleen ordutegitik kanpo egiten direnak— eta irakastorduetatik liberatutakoak daude; zehazki, lehen modalitate horretako eskaintza askoz ere handiagoa da. Liberatutako ikastaroetan parte hartzeko, eskaera egiten duen irakaslearen ikastetxeak baimena eman behar du.

**Garatu Planaren baitan eskaintako eta egindako ikastaroak, liberatuta egotearen edo ez egotearen arabera. 2006-07 eta 2007-08 ikasturteak**

	2006-07 ikasturtea				2007-08 ikasturtea			
	Eskaintakoak		Egindakoak		Eskaintakoak		Egindakoak	
	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%
Liberatuta	53	18,4	43	81	54	16,6	47	87
Liberatu gabe	235	81,6	201	85	272	83,4	242	89
Guztira	288	100	244	84,7	326	100	289	88,6

Azpimarratzekoa da on-line eskaintzan izan den igoera handia; era berean, ikasturtea Erresuma Batuan egiteko eskaintzaren igoera ere handia da, nahiz eta bestea baino txikiagoa izan.

**Eskaintako eta egindako ikastaroak, lurraldeen, on-line euskarrien eta Erresuma Batuko ikastaroen arabera. 2006-07 eta 2007-08 ikasturteak**

	2006-07 ikasturtea		2007-08 ikasturtea	
	Eskaintakoak	Egindakoak	Eskaintakoak	Egindakoak
Araba	52	36	62	45
Bizkaia	118	106	114	108
Gipuzkoa	78	62	78	68
On-line	29	29	54	50
Erresuma Batua	11	11	18	18

Bi ikasturteetan, eskaini arren azkenean burutu ez diren ikastaro gehien Araban eta Gipuzkoan izan dira; ostera, Erresuma Batuan eta on-line euskarrian eskaintako ia ikastaro guztiak egin dira. Nolanahi ere, gutxitu egin da, oro har, burutzen ez diren ikastaroen kopurua; beraz, pentsa daiteke eskaintza hobeto egokitu dela ikastetxeen eskariaren arabera.

**Eskaintako eta egindako ikastaroen kopurua, modalitateen arabera. 2006-07 eta 2007-08 ikasturteak**

	2006-07 ikasturtea				2007-08 ikasturtea			
	Eskaintakoak		Egindakoak		Eskaintakoak		Egindakoak	
	Kop.	Guztien %	Kop.	%	Kop.	Guztien %	Kop.	%
Haur Hezkuntza	21	7,3	20	95	18	6,2	18	100
Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza	25	8,7	23	92	24	8,2	17	71
Lehen Hezkuntza eta DBHko 1. zikloa	25	8,7	15	60	25	8,6	25	100
DBH	6	2,1	5	83	--	--	--	--
DBH eta batxilergoa	50	17,4	44	88	44	15,1	41	93
Orokorrak	134	46,5	116	87	162	55,7	155	96
Helduen Hezkuntza	2	0,7	2	100	3	1,0	1	33
Musika-hezkuntza	15	5,2	12	80	7	2,4	5	71
Hizkuntza Eskola Ofizialak	5	1,7	4	80	9	3,1	6	67
Zuzendaritza-taldeak	5	1,7	3	60	--	--	--	--

Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, Garatu Planaren baitan sartutako ikastaroak hainbat modalitateetan banatzen dira; zehazki, eskaintzarik handiena "orokortzat" katalogatutakoena da, eta atzetik dago "DBH eta batxilergoa" modalitatea. Nolanahi ere, eskaintza txikia izan arren, parte-hartzearen ehuneko handiena "Haur Hezkuntza" eta "Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza" modalitateetan izan da.

Ikastaro horiek guztiak elkarte kolaboratzaileen bidez ematen dira; zehazki, 2006-07 ikasturtean, 69 izan ziren, eta, 2007-08 ikasturtean, 71ra iritsi dira. Horien kostu ekonomikoa estaltzeko, Sailak 1.500.000 € esleitu zituen aipatutako ikasturte bakoitzerako.

- *Berritzeguneeen ikastaroak*

Prestakuntza-modalitate hauek Berritzeguneko bertako langileek edo kolaboratzaileek eman ditzakete, eta 10 ordu baino gutxiago nahiz gehiago irauten dezakete; bi aldagaiak aztertuz, ikastaro gehienak 10 ordu baino gutxiago irauten duten eta kolaboratzaileek ematen dituzten ikastaroak izan ohi dira, normalean.

**Egindako ikastaroak, horien iraupenaren eta modalitatearen arabera. 2006-07 ikasturtea**

	> 10 ordu		< 10 ordu	
	C*	I*	C	I
Araba	11	15	10	2
Bizkaia	41	17	74	11
Gipuzkoa	46	4	59	8
Euskadi	98	36	143	21

\* C: kolaboratzaileek emandako ikastaroak 7 I: Berritzeguneko langileek emandako ikastaroak

Lantzen den arloak lotura du proiektu, programa eta lehentasunezko ildoekin, eta partaidetza, gutxi gorabehera, egonkor mantentzen da lurralde guztietan, eta 10 ordu baino gutxiagoko ikastaroetan parte-hartzea handiagoa da, Araban izan ezik.

**Bi iraupen-modalitateetako ikastaroetan izandako parte-hartzaileen kopurua. 2006-07 ikasturtea**

	> 10 ordu	< 10 ordu
Araba	437	295
Bizkaia	916	2.392
Gipuzkoa	817	1.781
Euskadi	2.170	4.468

10 ordu baino gutxiago irauten duten eta Berritzeguneetako kolaboratzaileek (gai horietan aditutzat hartzen dira) ematen dituzten ikastaroetan parte hartzea handiagoa da; hain zuzen, ematen diren ikastaro gehienak modalitate horretakoak izateak arrazoi dezake parte-hartze handiago hori. Nolanahi ere, ikastetxeek egiten dituzten eskaeren isla dela ere esango genuke; hau da, ikastaro laburrak, adituek emandakoak eta irakasleen eguneroko lanarekin lotutako gaiak lantzen dituztenak.

- *Jardunaldiak*

Jardunaldien bidez egiten den prestakuntzak bi alderdi izan ohi ditu: bata gai zehatz bati buruzko unean uneko prestakuntza ematea eta bestea landu den gaiko jardute egokiak azaltzea eta bateratzea.

Urteetan zehar, lurralde mailako jardunaldi-kopurua gutxituz joan da; baina, hala ere, erkidegoan antolatutakoak ugairitu egin dira.

**Erkidegoan egindako jardunaldien kopurua, 2002-03 ikasturtetik 2006-07 ikasturtera bitartean**

	2002-03	2003-04	2004-05	2005-06	2006-07
Jardunaldi-kopurua	9	9	9	10	20

Prestakuntza-modalitateko jardunaldietan, edukia egun gutxi batzuetan ematen da, goizeko ordutegian edo goiz eta arratsaldeko ordutegian; horrenbestez, formatu horrek zaildu egiten du ikastaro horietara joatea, ikastetxeko irakasle batzuek dagozkien eskolak galtzea eragiten baitu. Gainera, Administrazioak ez du aukerarik ematen kasu horietan ordezkapenak egiteko.

- *Autoprestakuntza*

Banakako diru-laguntzen bidez, laguntza ematen da Sailak sustatzen ez dituen irakasleen prestakuntza-jardueretan irakasleek parte har dezaten, betiere irakasleek lantzen duten gaiarekin edo lehentasunezko ildoren batekin lotuta badaude.

Sailaren elkarte kolaboratzaileek edo horrek homologatutako elkarteek emandako jardueretan parte hartzen bada, lortutako egiaztagiria irakasle bakoitzaren prestakuntza-jardueren erregistro pertsonalean jasotzen da.

Esaterako, agindu baten bidez (EHAA, 2007/06/22), 800.000 euroko banakako diru-laguntzen deialdiak egin ziren 2007-08 ikasturterako; horietatik 280.000 € ingelesarekin lotutako jardueretarako ziren eskusiboki. Kopuru horri esker, 1.895 irakaslek egindako laguntza-eskaerak bete ahal izan ziren.

- *Ikasketak egiteko baimenak*

Baimen horiek honako pertsona hauentzat dira: maisu-maistren kidegoa, Bigarren Hezkuntzako irakasleak, Lanbide Heziketako irakasle teknikariak, arte- eta hizkuntza-eskoletako irakasleak, hezkuntza-ikuskaritza eta irakasle-lana betetzen duten langileak.

Ikasketa-baimenen hiru talde daude:

- Ordainsaririk gabeko ikasketa-baimenak, ikasketa ofizialak edo ikerkuntza-proiektuak egiteko xedea dutenak; horiek ikasturte oso bat irauten dute, eta baimena eskatzen duten irakasleek berariaz egin behar diete uko ordainsariei.

- Partzialki ordaindutako azterketa-baimenak; horien baitan, bi modalitate bereizten dira:
  - o Azterketa-baimen akademikoak: baimen hauen baitan, lizentziaturaren azken bi ikasturteak egitea xede duten baimenak sartzen dira; zehazki, maisu-maistrentzat (A taldea) nahiz Bigarren Hezkuntzako eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleentzat, Lanbide Heziketako teknikarientzat eta ikuskatzaileentzat (B taldea) dira.
  - o Proiektuak eta azterketak egiteko baimenak; horien baitan sartuko dira curriculum-materialak egitea (C taldea) nahiz master eta graduondokoen ikasketak burutzea (D taldea).
- Erabat ordaintzen diren azterketa-baimenak (E taldea)

### 2002-03 ikasturtetik 2006-07 ikasturtera bitartean emandako ikasketen baimenak, horien helburuaren arabera

	02-03	03-04	04-05	05-06	06-07
A. Maisu-maistren kidegoa. Zenbait lizentziaturen azken bi ikasturteetako bat.	13	12	9	12	12
B. Bigarren Hezkuntzako irakasleen taldea. Bigarren lizentziatura.	6	3	6	8	8
C. Curriculum-materialak.	28	5	9	5	5
D. Graduondokoen nahiz masterren azterketak, eta curriculum-materialen elaborazioa.	11	4	5	5	5
E. Sailaren Lehentasunezko Ildoak	0	10	20	28	23
Guztira	58	34	49	58	53

Baimenen guztizkoak bere horretan jarraitu du urteetan zehar; hala gertatzen da, zehazki, lizentziatura amaitzeko maisu-maistren kidegoarekin. Dena den, lehentasunezko ildoekin lotutako modalitatea salbu (goranzko bilakaera du), gainerakoek behera egin zuten 2003-04 ikasturtean, eta, gero, kopuru txikietan jarraitu zuten.

### 2.3. Aniztasunarekiko arreta

Gure hezkuntza-zentroetako aniztasuna zentro horietatik kanpo dagoen aniztasunaren isla da, eta hainbat faktoretan oinarritzen da: faktore sozialak, ekonomikoak, kulturalak, geografikoak, etnikoak eta erlijiosoak; halaber, askotariko gaitasunak (intelektualak, psikikoak, sentsorialak eta mugimenduzkoak) eta ikasleen sexu-rola dituzte oinarri.

Esku hartzen duten faktoreen ugaritasuna dela-eta, aniztasun hori desberdintasuntzat agertzen da hainbat esparrutan: garapen ebolutiboan, interes akademiko eta profesionaletan, itxaropenetan, bizitza-proiektuetan, ikaskuntza-ereduetan, komunikazio-harremanetan, autonomia-mailetan, garapen kognitiboan,

eskolatze-ereduetan, ikaskuntza-prozedura eta -estrategietan, gizarte-trebetasunen garapenean, aurretiazko ezagutzetan...

Hau da, ikasle bakoitza desberdina da, eta, beraz, hezkuntza-sistemak desberdintasun horiek onartu eta horiek barnean sartzeko lan egin behar du, bai eta ikasle guztien eta bakoitzaren gaitasunak garatzeko ere; gainera, ekintza positibo bat gauzatuko da desabantaila eta premia handiagoko egoeran dauden pertsonen alde, horiei kalitatezko hezkuntza inklusibo bat eskaintzeko, pertsonalki, sozialki eta profesionalki garatzeko aukera emango diena.

Hori da, hain zuzen, hezkuntza-komunitatearen ardura handietako bat, bai eta Euskadiko hezkuntza-zentroetako irakasleak lantzen ari diren erronka handietako bat ere; lehenik eta behin, ikasgela barneko neurri arruntak oinarri hartuta ari dira lantzen, esaterako honako hauek:

- Baliabideak erabiltzeko modu desberdinak: bi irakasle gela barruan, familiarren parte-hartzea, laguntzaileak...
- Beste antolakuntza batzuk ikasgelan: interakzio taldeak, talde malguak...
- Bestelako metodologiak: lankidetzako ikaskuntza, literaturari buruzko hizketaldiak...
- Tutoretza bidezko errefortzuak: banan banako tutoretzak, ikasle laguntzaileak...
- Arlo bakoitzeko errefortzuak...

Lan honen aurrerapena eta hobekuntza zaila da baldin eta bakarka egiten bada; horrenbestez, irakasleak gero eta gehiago antolatzen dira sareetan edo lan-taldeetan, esperimentziak trukatzeko, baterako prestakuntza egiteko...

Aukerarik onenean ere, badira neurri arrunt horiek nahikoa ez diren egoerak, eta, horrenbestez, beharrezkoa da aparteko beste neurri batzuetara jotzea; neurri horiek lana osatzen lagunduko dute bai ikasgela barruan —Hezkuntza Berariaz Esku Hartzeko Proiektuak (HBEHP) eta Errefortzu, Orientazio eta Laguntza Programa (EOLP)—, bai eskolaz kanpoko orduetan (Lehen eta Bigarren Hezkuntzako EOLP). Halaber, ikastetxeko bertako talde espezifikokoak izan daitezke, esaterako: Curriculum Anitzeko Programa, aldi baterako eskolatzeak Eskolatze Programa Osagarriak garatzen dituzten zentroetan edota Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak (HLPP) horretarako bereziki prestatutako zentro espezifikoetan emateko proposamena; azken horietan, hain zuzen, oinarrizko lan-prestakuntza jaso eta Bigarren Hezkuntzako ikasketak amaitu ahal izango dituzte.

- ***Errefortzu, Orientazio eta Laguntza Programa (EOLP)***

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioarekin lankidetzan, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan gauzatzen den programa; zehazki, modu desberdinean gauzatzen da modalitatearen arabera: eskolaz kanpoko orduetan laguntza-modalitatean bada, eta eskola-orduetan errefortzu-modalitatean bada. Laguntza-lana



eginez gero, baliabide ekonomikoak esleitzen dira begiraleak kontratatzeko, eta, inplikaturako irakaslerik egonez gero, programa horretan egindako orduak irakastordutzat kontatzen zaizkie. Laguntza- eta errefortzu-modalitatea bada, ikastetxe bakoitzari 5.000 € esleitzen zaizkio.

EOLP bi programaren bidez garatzen da; bi programa horien artean, gainera, sarri izaten dira nahasteak; horrenbestez, beheko taulan, horien arteko bereizketa bat egin da modu sinoptikoan, dituzten helburuak eta hartzaileak oinarri hartuta.

<i>Programa-mota</i>	<i>Programaren oinarria</i>	<i>Hartzaileak</i>
Eskola-laguntzako programa	Ekintza zehatz bat da: irakastorduetatik kanpo, eskola-laguntzako taldeak antolatzea.	Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoak
Inklusibitatearen errefortzu-programa	Ez dago ekintza bati lotua; hau da, orokorra da eta, horren bidez, neurri-multzo oso bat ezartzen da, inklusibitate eta parte-hartze handiagoko ikastetxe bat lortzen da.	Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoak soilik

Laguntza Programak astean bost ordu eskatzen ditu antolatutako talde bakoitzeko; ordu-kopuru horretatik lautan ikasleari zuzeneko arreta ematen zaio, eta beste ordua koordinaziorako erabiltzen da. Programa hainbat modutan gauza daiteke: begiraleen bidez, irakasleen bidez (astean, talde bakoitzeko 5 orduko ordu kredituarekin) edo biak konbinatuko dituen formula misto baten bidez; dena den, gustuko den formula begiraleen bidezkoa da. Administrazioak begiraleak finantzatzen ditu, eta, irakasleek parte hartzen dutenean, berriz, ordu-kredituak ematen dituzte (2.12. eranskina).

Laguntza eta Errefortzu Programa baldintza txarreko inguruetan dauden ikastetxeetarako da, bereziki, eta honako ekimen hauek hobetzea du helburu: ikaskuntzen kopurua eta kalitatea, ikasleek ikastetxearekin duten harremana, familien parte-hartzea eta ikastetxe inguruko hezkuntza-aukerak. Helburu hori lortzeko, ordea, erabat aldatu behar da ikastetxearen funtzionamendua, eta, horrez gain, ikuspegi inklusiboa bultzatu behar da, bai eta ikasle-talde batzuei laguntza espezifiko eman ere. Ikastetxe guztiari eragiten dion anbizio handiko asmoa izanik, 2007-08 ikasturtean 50.000 euro gastatu zituzten horniduran, eta hori guztia dinamizatzeaz eta koordinatzeaz arduratu zen irakasle bat izan zuten (2.13. eranskina).

**Lehen Hezkuntzako proiektuetarako (laguntza) eta Bigarren Hezkuntzako proiektuetarako (laguntza eta errefortzua nahiz laguntza) esleipen ekonomikoa, eurotan**

	<i>Lehen Hezkuntza</i>	<i>Bigarren Hezkuntza</i>	<i>Guztira</i>
2006-07 ikasturtea	36.864	68.436	105.300
2007-08 ikasturtea	183.855	317.013	500.868

Ikus daitekeen bezala, 2007-08 ikasturteko zenbatekoak 2006-07 ikasturtekoak baino bost aldiz handiagoak izan dira; beraz, hazkunde hori programa honetan parte hartu duten ikastetxeen kopuruan izan den igoeraren arabera izan da (2.14. eranskina).

**EOLP programan parte hartu duten ikastetxeen kopurua**

	2006-07 ikasturtea			2007-08 ikasturtea		
	Lehen H.	Bigarren H.	Guztira	Lehen H.	Bigarren H.	Guztira
Laguntza	7	7	14	23	11	34
Laguntza eta errefortzua	--	4	4	--	11	11
Guztira	7	11	18	23	22	43

- **Hezkuntzan Berariaz Esku Hartzeko Proiektua (HBEHP)**

Kontrako gizarte-egoerak edo eskolara egokitu ezineko egoerak direla-eta, eskola-atzeratasun larriko egoeran dauden ikasleei dituzten premien arabera hezkuntza-erantzun egokia ematea da proiektu honen xedea; erantzun hori eskola-inguru arruntan egingo da, derrigorrezko hezkuntzaren helburuak lortzeko. Zehazki, 13 edo 14 urteko ikasleentzat da, DBHko 1. edo 2. mailatan matrikulatuta daudenentzat.

**HBEEHP taldeak eta irakasle esleituak dituzten sare publikoko ikastetxeen kopurua. 2006-07 eta 2007-08.**

	2006-07 ikasturtea		2007-08 ikasturtea	
	Ikastetxeak	Irakasleak	Ikastetxeak	Irakasleak
Araba	12	16,5	26	18
Bizkaia	51	58	64	64
Gipuzkoa	37	27	33	28
Euskadi	100	101,5	123	110

**HBEEHP taldeak eta irakasle esleituak dituzten sare kontzertatuko ikastetxeen kopurua. 2006-07 eta 2007-08**

	2006-07 ikasturtea		2007-08 ikasturtea	
	Ikastetxeak	Irakasleak	Ikastetxeak	Irakasleak
Araba	18	10,5	20	13
Bizkaia	58	39	53	40
Gipuzkoa	41	22	46	17,5
Euskadi	117	71,5	119	78,5

Era horretako proiektu-motak gauzatzeak aldaketak eragin ditzake mailen egiturari, bai eta curriculum-aldaketak edota antolakuntza-aldaketak ere, aparteko langileak edo materialak eskatzen dituztenak. Hain zuzen, proiektu bakoitzaren arabera eta ikastetxean eskuragarri dauden baliabideak kontuan hartuta, Hautaketa Batzordeak langile-kopurua ugaritzea proposa dezake, proiektuan zehaztutako neurriak garatzeaz behin betiko arduratuko diren irakasleen ordutegia betetzeko; dena den, irakasle-kopuruaren igoerari dagokionez, ezingo dira hiru irakasle baino gehiago hartu.

Proiektu horiek gauzatzeko mesedegarri dira prebentziozko estrategiak, eta, horrez gain, lehentasuna ematen zaie erantzun integratzaileei, ahal dela ikasgela

arruntetan. Erantzun normalizatuak eman ezin diren kasuetan soilik taldekatuko dira beste modu batean; azken horietan, ordea, ikasleak ez dira erreferentziazko talde arruntetik kanpo egongo ordutegiaren %50 baino gehiago (salbuespeneko kasuetan, ordutegiaren 2/3era iristen da).


Familiek baimena eman behar dute beren seme-alabak proiektu honetan sartzeko. Ikasle bakoitzak Banakako Lan egitasmoa izaten du, bere baldintza pertsonalen arabera egokitua; hain zuzen, plan horren jarraipena eta ebaluazioa egiten dute irakasle-taldeak, Hezkuntza Ikuskaritzak eta dagokion Berritzeguneak.

- **Curriculum Anitzeko Programa**

DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleentzat da, eta, horretarako, beste baliabide batzuk erabiltzen dira: beste metodologia batzuk, eremuz eremuko lana, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan parte hartzen duten irakasle-kopuruaren murrizketa...; hain zuzen, horien bidez DBHko titulua lor dezaketela uste dute, ikasgela arrunt bateko baldintzetan ez bezala.


Programak ikasturte bateko edo biko iraupena izan dezake, ikaslearen adinaren edo horientzat bereziki garatutako banan banako programaren arabera (2.15. eranskina).

**Curriculum Anitzeko ikasgeletan dauden ikasleen ehunekoak, lurraldeen eta zentro-motaren arabera. DBHko 2. zikloa, 2007-08 ikasturtea**



Azken hiru urteetan, ez da aldaketa nabarmenik gertatu Curriculum Anitzeko ikasgeletan dauden ikasleen ehunekoari dagokionez, ez guztizkoari dagokionez, ez lurraldeen edo sareen araberrako kopuruari dagokionez; dena den, ikasle horien hizkuntza-eredua aztertuz, azpimarragarria da A ereduan hauteman den ehunekoa, gainerako ereduetan (B eta D) baino handiagoa baita, bai ikastetxe publikoetan, bai ikastetxe pribatu kontzertatuetan (2.16. eranskina).

**Curriculum Anitzeko ikasgeletan dauden ikasleen ehunekoak, hizkuntza-ereduaren arabera. DBHko 2. zikloa, 2007-08 ikasturteak**



- **Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak (HLPP)**

Irakasleen arabera eskolatzeko-eredu arruntan Bigarren Hezkuntzako titulua lortu ezingo duten 16 urtez azpiko ikasleentzat da (salbuespeneko kasuetan, DBHko 1. edo 2. mailan ikasturtea errepikatu duten 15 urtekoentzat); hau da, Lanbide Heziketara bideratuz, gizartean eta lan-munduan integratzeko aukera emango dion 1. mailako lan-titulazioa lor dezaketenak.

Programa horiek tipologia desberdineko zentroetan gauzatzen dira, eta, gainera, Bigarren Hezkuntzako titulua lortzeko aukera ematen die hala nahi dutenei; horretarako, programan sartuta dauden borondatezko moduluak ikasi behar dira, lanbide-moduluak irakasten dituzten ikastetxeetan, Helduen Hezkuntzako (HHE) zentroetan edo Urrutiko Oinarrizko Hezkuntzarako Ikastetxeetan (UOHI) matrikulatuz (2.17. eranskina).

**Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak. Taldeen eta ikasleen banaketa, ikastetxe-tipologiaren arabera. 2006-07 eta 2007-08 ikasturteak**

	2006-07 ikasturtea		2007-08 ikasturtea	
	Taldeak	Ikasleak	Taldeak	Ikasleak
Udalak	182	1.970	180	1.971
Ikastetxe kontzertatuak	109	1.181	109	1.143
Ikastetxe publikoak	7	33	9	74
Partzuergoak	13	135	14	153
Erakundeak/Fundazioak	54	600	54	573
Erakunde terapeutikoak	8	91	8	90
Besteak	4	36	0	0
Guztira	377	4.046	374	4.004

- **Eskolatze Programa Osagarria**

Salbuespeneko programak dira, aldi baterakoak, eskolara egokitzeko arazo larriak dituzten 14 eta 16 urte bitarteko ikasleentzat; programa horiek ikasturte-amaieran bukatzen dira, eta eskaera berriro egin behar da baldin eta hurrengo urtean jarraitu nahi bada.

Programa horiek banan-banakoak dira, eta zentroen hezkuntza-neurri arruntak eta apartekoak nahiz eskola-testuingurutik kanpo garatzen direnak amaitu eta gero ezar daitezke, aldi baterako eta muturreko hezkuntza-neurri gisa. Nolanahi ere, programa horretan sartzen diren ikasleek ikastetxeko ikasle izaten jarraitzen dute, hezkuntza-gaiekin lotutako ondorio guztietarako: matrikulazioa, ebaluazio-aktak, eskolatze-liburua, beka-eskaerak, egiaztagiriak...

**Eskolatze Programa Osagarrietan parte hartzen duten ikasleak, lurraldeen arabera. 2006-07 eta 2007-08 ikasturteak**

	<i>Araba</i>		<i>Bizkaia</i>		<i>Gipuzkoa</i>		<i>Euskadi</i>	
	<i>Taldeak</i>	<i>Ikasleak</i>	<i>Taldeak</i>	<i>Ikasleak</i>	<i>Taldeak</i>	<i>Ikasleak</i>	<i>Taldeak</i>	<i>Ikasleak</i>
2006-07	2	49	14	277	15	168	31	494
2007-08	8	95	13	308	17	202	38	605

Ikasturte batetik bestera, programa horietan sartutako ikasleen kopuruak gora egin duela ikus daiteke; ikasle horietako gehienak, gainera, 15 urteko ikasleak dira.

**Eskolatze Programa Osagarrietan parte hartzen duten ikasleak, adinaren arabera. 2007-08 ikasturtea**

<i>Ikastetxeen administrazio-egoera</i>	<i>14 urte</i>	<i>15 urte</i>	<i>Ezezaguna</i>	<i>Guztira</i>
Partzuergoa	20	72	--	92
Ikastetxe kontzertatuak	35	148	4	187
Saileko irakasleak dituzten ikastetxeak	28	37	13	78
Diruz lagundutako ikastetxeak	20	131	44	195
Ikasle integratuak dituzten ikastetxeak	0	40	13	53

Horien helburua doitze pertsonala eta soziala bultzatzea da, bai eta DBHko oinarrizko helburuak lortzeko bidean aurrera egitea ere. Bertan, eskulanak eta lan-munduan sartu aurretik egin behar diren jarduerak lantzen dituzte, eta horien xedea ez da lan-hastapena; hau da, motibatzea eta hezkuntza-edukiak ikastea dute helburu.

Ikastetxeak aurkezten du ikaslea eskolatze-programa honetan sartzeko proposamena, dagokion ikaslearen eta bere familiaren oniritziarekin. Dagokion ikastetxeko Eskolatze Programa Osagarriaren arduradunarekin lankidetzan, banakako eskola-proiektua zehazten da, eta, gero, horren jarraipena egiten da, jatorrizko zentroan eta Eskolatze Programa Osagarria garatzen den zentroan izendatutako tutoreen artean koordinatuta.

**Eskolatzeko Programa Osagarrietako ikasleak, programa horiek gauzatzen dituzten ikastetxeen administrazio-egoeraren arabera. 2006-07 eta 2007-08 ikasturteak**

	2006-07 ikasturtea		2007-08 ikasturtea	
	Taldeak	Ikasle-kopurua	Taldeak	Ikasle-kopurua
Partzuergoa	0	91	0	92
Ikastetxe publikoak	1	12	0	0
Ikastetxe kontzertatuak	16	153	16	187
Saileko irakasleak dituzten ikastetxeak	0	48	6	78
Diruz lagundutako ikastetxeak	14	167	16	195
Ikasle integratuak dituzten ikastetxeak	0	23	0	53
Guztira	31	494	38	605

## 2.4. Lanbide Heziketako irakasleen berrikuntza eta etengabeko prestakuntza

### 2.4.1. Berrikuntza Lanbide Heziketako ikastetxe publiko eta kontzertatuetan

Euskadiko Lanbide Heziketako Berrikuntza Zentroyen bitartez gauzatzen da, TKNIKA.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzak bultzatuta sortu zuten, Lanbide Heziketan teknologia berriak sustatzeko; zehazki, zentro horren misioa berrikuntza Lanbide Heziketaren ardatz bihurtzea da, eta nazioartean bikaintasun-maila lortzea.

Jarduera lau eremu nagusitan gauzatzen da:

- E-learning berrikuntza-esparrua eta informazio- eta komunikazio-teknologiaren dinamizazioa. Esparru horren helburu nagusia Lanbide Heziketako zentroetan informazio- eta komunikazio-teknologiaren hedapena eta erabilera eraginkorra bultzatzea da.
- Berrikuntza Teknologikoaren Esparrua. Komunikazio-sistemen azpiesparruak eta Urrats bat (Enpresa-proiektuak garatzeko programa) barne hartzen ditu; hain zuzen, programa horren helburu nagusia Lanbide Heziketan teknologia berriak sartzea da.
- Kudeaketaren Berrikuntzarako Esparrua. Lanbide Heziketako zentroyen kudeaketa berrikuntzarekin lotu nahian, esparru horren xedea kudeaketa-eredu bat ezartzeko estrategiak garatzea da; kudeaketa-eredu hori, zehazki, lankidetzan, pertsonetikiko konfiantzan, autonomian eta taldeek autokudeaketarako duten gaitasunean oinarritzen da. Horretarako, honako programa hauek bultzatu dira:
  - o EFQM bikaintasun-eredua
  - o 5S programa

- GUNEKA proiektua
- ARDATZ programa
- Pertsonen kudeaketarako estandar berria: Investors in People
- Prestakuntza-esparrua: irakasleak hainbat berrikuntza-esparrutan prestatzea errazteko. Esparru horren helburuak honako hauek dira: ikastetxeetako irakasleak prestatzea e-learning berrikuntzarekin, berrikuntza teknologikoarekin eta kudeaketa-alorreko berrikuntzarekin lotutako gai guztietan, eta gainerako esparruekin lankidetzan aritzea dokumentuak eta prestakuntza-planak sortzeko.

#### **2.4.2. Prestakuntza Lanbide Heziketako ikastetxe publiko eta kontzertatuetan**

Berrikuntza-proiektuekin lotutako prestakuntzaz gain —TKNIKAREN bidez ematen da—, zentro horietan hiru prestakuntza-modalitate daude, Lanbide Heziketakoak ez diren beste zentro batzuetarako deskribatutakoen antzekoak direnak; modalitate horiek Bigarren Hezkuntzako gainerako zentroetarako egiten diren deialdietatik bereizita egiten dira.

- *Zentroko prestakuntza-jarduerak*

Lanbide Heziketako ikastetxeetan prestakuntza-jarduerak bultzatzeko deialdien ezaugarriek antza dute Bigarren Hezkuntzako gainerako ikastetxeei bertan gauzatzen dituzten prestakuntza-proiektuetarako egindako deialdietan proposatutakoekin.

Diruz laguntzen diren ekintzek zehaztasunez erantzuten diete ikastetxe bakoitzerako esleitutako irakasleen prestakuntza-premiei, eta, jarduera eskatzeko gutxienekoa den 10 irakasleko taldea osatu ezin bada, beste zentro batekin edo batzuekin koordina daiteke, jarduera eskatu ahal izateko.

2007-08 ikasturtean, 59 ikastetxetako prestakuntza-proiekturi eman zaie diru-laguntza; zehazki, 169 prestakuntza-ekintza finantzatu dira.

- *Lanbide Heziketako irakasleentzako etengabeko prestakuntza-plana*

Plan hori, zehazki, Lanbide Heziketakoak ez diren Lehen eta Bigarren Hezkuntzako zentroetan gauzatzen den Garatu Planaren baliokidea litzateke; hau da, horien baldintzak antzekoak dira, eta ikastaroak ere elkarre kolaboratzaileek ematen dituzte.

Deialdi horren bidez proposatzen diren ikastaroak, ikastetxean bertan egiten direnetan ez bezala, orokorrak dira, eta lanbide-familia zehatz bati daude lotuta, produkzio-ingurua eta familia horretako irakasleen esperientzia kontuan hartu gabe; hau da, lotura handiagoa dute garatzen ari diren edo Saitetik indartu nahi dituzten berrikuntza-proiektuekin, kalitatearekin...

2007-08 ikasturtean, 13 erakunderi eman zitzaien diru-laguntza, eta horiek 62 ikastaro eman zituzten; ikastaro horietan, hain zuzen, 1.015 irakaslek hartu zuten parte, eta Sailak 202.250 € esleitu zituen.

- *Lanbide Heziketako irakasleentzako prestakuntza-egonaldiak enpresetan*

Egitasmo honen xedea irakasleak lan-munduarekin lotutako gaietan prestatzea da; horrela, jardute horiek erabili ahal izango dituzte beren irakaskuntza-lana hobetzeko eta Lanbide Heziketako zentroak enpresetara gerturatzen laguntzeko.

El profesor o profesora interesado concierta previamente la realización de un proyecto con la empresa, con una duración mínima de 30 horas y máxima de 80, durante 20 días laborales, preferentemente en el periodo en el que el alumnado de FP está realizando la FCT o en horario no lectivo. Interesa duen irakasleak aurrez proiektu bat egitea hitzartuko du enpresarekin, 20 lanegunetan gauzatuko dena, eta gutxienez 30 ordu eta gehienez 80 ordu iraungo duena; lanegun horiek, gainera, Lanbide Heziketako ikaslea Lantokiko Prestakuntzan (LP) egiten ari den aldiaren edo irakastorduetatik kanpo izango dira.

Deialdi horren bidez, 2007-08 ikasturtean banan banako 103 prestakuntza-jarduera finantzatu zituzten.

## **2.5. Balorazioak eta proposamenak**

---

Hezkuntza-zentroen esku-hartzeari eta horietan lan egiten duten irakasleen dedikazioarekin aurrera eramaten diren programei eta proiektuei esker, errazagoa da honako erronka honi aurre egitea: hezkuntza-zentroak gure ikasleek garapen pertsonala eta gizarte- nahiz lan-integrazioa lor dezaten beharrezko dituzten eskumenak eskuratzeko leku bihurtzea.

Hala eta guztiz ere, garrantzitsua iruditzen zaigu programek eta proiektuek jarduera-multzo nahasia ez osatzea; hau da, jarduera guztiak ardatzen dituen hezkuntza proiektuaren baitan esanahi bat izan behar dute. Administrazioaren eta, bereziki, Ikuskaritza nahiz laguntza-zerbitzuen lehentasunezko jarduera bat klaustro guztiaren esku-hartzea dakarten ikastetxeko hezkuntza proiektuak bultzatu eta aholkatzea izan behar du; prozesu horietan zuzendaritza-talde egonkorak izango dira buru, eta, horiez gain, hezkuntza-komunitate guztiaren parte-hartzea izan behar dute.

Berrikuntza proiektuetako parte-hartzearen datuek adierazten dutenez, ikastetxeetan gero eta handiagoa da proiektu orokorrak garatzeko joera; hasi berri den joera hori, beraz, indartu egin behar da, berrikuntza-programak eta -ekintzak zatitutako eta sakabanatutako jarduera izan ez daitezen.

Lagungarri izango litzateke esparru orokor bat zehaztea, Sailak bultzatutako hausnarketa bateratu baten bidez euskal gizarteak hurrengo urteetarako hezkuntza



proiektua izan dezan; hain zuzen, esparru horren baitan, lehenasuneko ildoak proposatuko dira. Hemen, lehenasunaren gaia funtsezkoa da gure sistemari izaera emateko. Eskaera guztiei erantzuteak eta guztiari lehenasunez erantzuten saiatzeak gizarte- eta hezkuntza-proiektutzat dugun garrantzia gutxiagotzen digu.

*Aurretiazko hausnarketak aintzat hartuta, Kontseiluak proposatu du Sailak lehenasuneko ildoak sinplifika ditzala eta horiei koherentzia eman diezaiela hezkuntza-proiektu orokor batean oinarrituta. Era berean, hezkuntza-zentroek beren prestakuntza- eta berrikuntza-ekintzak sartu beharko lituzkete egiaz dinamizatzailerak diren hezkuntza-proiektuetan; horrenbestez, lan-ildo bat sustatu behar dela uste dugu, ikastetxeetan hezkuntza-proiektu orokorrak bultzatuko dituztenak.*

Egia da, bai, zentroetan proiektuen koordinazio- eta garapen-lanetarako denboraren erabileraren eraginkortasuna hobetu daiteke; baina, aldi berean, gauza jakina da horiekin hartzen diren betebeharrak eta ardurak —esaterako, irakasleek, familiek eta ikasleek osatutako batzorde edo talde dinamizatzailerak eratzea, hainbat proiektutan beharrezko direnak: elkarbizitza; Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT); hizkuntza-normalkuntza; Eskola Agenda 21...— guztientzat egokiak diren ordutegietan gauzatu behar direla, eta ez zehazki eskola-orduetan.

Bestalde, ikastetxeak erabaki dezake hobekien esleitzen dizkioten baliabideak nola erabili, berak ezagutzen baititu zuzenean proposatutako berrikuntza-ekimenak garatzeko dituen premiak. Administrazioak zentroetan autonomia-maila handiagoak bultzatzeko duen ahalmenak erraztu egingo luke gure ustez proiektuak garatzea, bai eta emandako baliabideak hobeto erabiltzea ere.

*Horrenbestez, Kontseiluak beharrezkotzat du esku hartzen duten zentroyen kopurua handitzea eta autonomiazko proiektuak gauzatzeko baldintzak erraztea.*

Berrikuntza proiektu horiei dagokienez, bada ikastetxeetan kezka sortzen duen beste gai bat, deialdiak egitean izaten den sentipena: presaren eta koordinazio-faltaren sentipena.

*Zentroko hezkuntza-proiektuak hainbat inizatiba-mota (berrikuntza, prestakuntza...) bultzatzea da helburua; beraz, helburu horrekiko koherentziari eutsiz, Kontseiluak proposatzen du zentroyei egiten zaizkien deialdiak modu koordinatuan egitea, bai eta eskola-komunitate guztiak adostu eta onartu ahal izateko behar besteko denboraz ere.*

Aurrekoa baino gutxiago aipatu den arren, hori bezain beharrezkoa da aitorpenen gaia, bai ilusioz jarraitzeko, bai ikastetxeetako berrikuntza-prozesuekin aurrera egiteko ahalmena emango duten energiak kapitalizatzen jarraitzeko.

*Kontseiluari komenigarria iruditzen zaio Administrazioak aitorpen publiko bat egitea; hau da, berrikuntza-proiektuetan murgilduta dauden eta Sailak,*

*bere lehentasunezko ildoei jarraiki, zehaztutako helburuak betetzeko adinako emaitzak lortu dituzten zentroak berariaz eta publikoki aitortzea.*

Europako Batasunetik zehaztutako jarraibideekin bat etorriz, Euskadiko curriculum berriaren bidez ikasleek beharrezko eskumenak lor ditzaten nahi da, pertsona, herritar eta langiletzat gara daitezen; beraz, benetan hori lortu nahi bada, aldaketa sakonak egin behar dira irakaskuntza-jardueran: ikuspegi batez ere akademikotik funtzionalago batera pasatzea, jakintza finkotzat hartzen diren diziplinak alde batera uztea eta diziplinartekotasuna eta zeharkakotasuna garatzea, ICTak erabiltzea, modu integratzailean ebaluatzea... Erronka horrek prestakuntza-ahalegin handia eskatzen die irakasleei, curriculum-edukiak birplanteatzera behartzeaz gain ikaskuntzarako funtzio eta profil berriak lantzerako behartzen baititu; irakasleez gain, ordea, Administrazioaren ahalegina ere eskatzen du, bai curriculumean, bai irakaskuntza-funtzioaren antolaketan ere, betiere sindikatuen esku-hartzearekin.

Gaitasunak ezin dira gainegitura hutsa izan, curriculumaren eta irakaskuntzaren antolaketa eta ikuskera klasikoari eransten zaion gainegitura.

*Horri dagokionez, Kontseiluak proposatzen du Administrazioak hausnarketa sakon bat susta dezala, gaitasunen araberako lanak bere ikuskera demokratikoan duen esanahiari buruzkoa, hain zuzen; horrez gain, prestakuntza- eta antolakuntza-jardueren plan bat ezartzea eskatzen du, hainbat mailatan, jarduera horietan oinarritutako hezkuntza batean aurrera egiteko aukera emango duena.*

Informazio- eta komunikazio-gizartearen lotura zuzena du teknologia berriekin; horren ondorioz, irakasleek berriro aztertu behar dituzte metodologiak, ikasgelen antolaketa eta erabiliko dituzten materialak, eta Administrazioek, bestalde, eskura jarri behar dituzte beharrezko diren prestakuntza, ekipamenduak eta materialak.

Euskadiko erabiltzaileek, oro har, oinarritzko zerbitzuak eskuratzeko erabiltzen dute Internet (informazioa lortu, prentsa irakurri, kontsultak egin, posta elektronikoa erabili...), eta, neurri txikiagoan, zerbitzu aktiboagoak eskuratzeko: blogak, foroak, banku elektronikoa... Halaber, teknologia berrien erabilera hobetzen duen esparru bat da, bai Administrazioarekin izaten diren harremanei dagokienez, bai gizarte-bazterketaren arriskua duten taldeei dagokienez (55 urtetik gorako emakumeak, langabeak...), eta baita hezkuntza-eremuari dagokionez ere.

Irakaskuntza-jardueran ICTak sartzeak adierazten du irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuetan erabiltzen direla (ikasgela barruan nahiz kanpo), aurreikusitako helburuak lortzeko; nolahi ere, irakasleen artean faltan botatzen dira baliabide didaktikotzat eta ikasteko nahiz ezagutza lortzeko bide berritzaileak dituzten aukerekin lotutako ezagutzak eta prestakuntza.

Oraindik ere gutxi dira beren arloarekin lotutako aplikazio didaktikoen edo aplikazio informatikoak sortzeko tresnen prestakuntza jaso duten irakasleak. Irakasleek pertsonalki dagozkien jarduerak egiteko, eskolak prestatzeko edota

apunteak egiteko erabiltzen dituzte IKTak; dena den, IKTen alorrean duten prestakuntza ez da islatzen irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesuan.

Gainera, teknologia horietan egin diren aurrerapen azkarrak direla-eta, zerbitzu digital berriak agertzen ari dira etengabe, gero eta konplexuagoak direnak eta bazterketa digitalaren inplikazioak berriro ere azalera ekarri dituztenak; horrenbestez, orain arte kategoriatan sartzen ez ziren taldeek arriskua dute bertatik kanpo geratzeko, baldin eta ez badituzte beren gaitasun digitalak beharrezko den erritmoan eguneratzen.

Prestakuntza da gizartean sartzeko aukera ematen duen tresna, eta, zehazki, prestakuntza arautu egoki bat izatea prozesu horretarako behar den kapitala da. Prestakuntza horren oinarri den ikastetxeak abangoardian egon behar du teknologia berriak erabiltzeari dagokionez, trakzio-elementu izateko ahalmen handia baitu, bai IKTak ikaskuntzarako eta lanerako tresnatzat erabiltzen ikasten duten ikasleentzat, bai gurasoentzat; azken horiek, hain zuzen, bazterketa digitalaren arriskuan dauden taldeetan sar daitezke, duten adina, prestakuntza edo bestelako baldintzak direla-eta.

*Ondorioz, Kontseiluaren iritziz beharrezkoa da Administrazioak IKTen erabilera indartzea ikaskuntza-jardueran bertan, baliabideen kudeaketan (irakaskuntzakoak eta administrazioakoak) eta hezkuntza-zentroetan parte hartzen duten hainbat agenteren arteko harremanean eta lankidetzan (familiak, ikasleak, irakasleak, zuzendaritza, gizarte-eragileak...).*

Azaldutakoaz gain, honako faktore hauek ere eragin handia dute: azpiegiturek, eskuragarri dauden hezkuntza-programek eta -baliabideek, baliabide berri horiekiko jarrera pertsonalek eta profesionalek...

Eskura dugun ekipamenduari esker, teknologia berriak baliagarri izan daitezke irakaskuntza-ikaskuntzaren beste metodologiak batzuk sartzeko, gaitasunak barneratzeko egokiagoak direnak, zehazki. Dena den, ikastetxeetako errealitateak adierazten duenez, ez da halakorik gertatzen, oraindik irakasle gutxi egiten baitu lan ildo horretan; gainera, oso material gutxi dago euskaraz, eta, horrenbestez, are gehiago zailtzen du IKTak baliabide pedagogikotzat erabiltzeko irakasleek duten ahalmena.

EIMA programa izan arren, euskarazko material digitalak egitea eta editatzea ez da erraza, errentagarritasun ekonomiko gutxi baitu; hau da, produzi daitezkeen kopuruak txikiak dira eta horiek aukera gutxi ematen dituzte, beste hizkuntza batzuetan (gaztelaniaz eta ingelesez) egindako argitalpenen kopurua askoz ere handiagoa den merkatuan.

*Horri dagokionez, Kontseiluaren iritziz beharrezkoa da ekimen instituzionala abian jartzea, arlo guztietako curriculumaren gutxieneko garapen digitala euskaraz emateko, bai eta baliabide digitalen euskarazko katalogo bat sortzea ere.*

Jardute pedagogikoetan egin beharreko aldaketa sakonek ezinbesteko dituzte metodologia berriak, ikasgelen antolaketak..., ikasleek garatu beharreko gaitasunekin bateragarri direnak. Ikasle horiek etengabe aldatzen ari den ezagutza-eremu mugagabeko gizartean sartu behar dira; gainera, ikaskuntzak ez dira eskolan soilik lortzen, baizik eta hainbat eta hainbat eremutan eta modu elkarreragilean.

Ikastetxeek ezin dute dinamika horietatik kanpo gelditu, eta beren hezkuntza-proiektuak baldintza eta helburu berri hauen arabera egokitu behar dituzte. Hain zuzen, jada abian dira esperientzia berritzaileak, ikasgela metodologia eta antolakuntza berriak garatzen dituztenak, baliabideak erabiltzeko hainbat proposamen...; horien bidez, eskola inklusibo bat lortu nahi dute, kalitatezkoa eta XXI. mendeko gizarterako pentsatua.

*Hori guztia dela-eta, egokia litzateke Kontseiluaren iritziz Administrazioak hezkuntza-proiektuak bultzatzea, era horretako berrikuntza pedagogikoak proposatzen dituzten ikastetxeetan.*

Berrikuntza pedagogikoa egoera desegokiei emandako erantzuna izaten da askotan; hau da, egoera horiek direla-eta, aditu-talde batek hobekuntza proposatzen du. Beharrezkoa da irakasleen irudia bultzatzen jarraitzea, bere lana etengabeko hobetze-prozesuan dagoen egitekotzat hartzen duen langile burutsutzat, hain zuzen; noski, horrek adierazten du prestakuntza are eta eraginkorragoa izango dela irakasleek egunero aurre egin behar dieten egoerekin duten lotura handiagoa eta hobe den heinean. Prestakuntza-ikastaroak pizgarriak izan daitezke uneren batean, baina askotan, ikastetxera itzultzean, galdu egiten da, ikastaroan ikasitakoak ez baitu euskarririk aurkitzen esperimintatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko; hori dela-eta, ez da harrizkoa ikastetxeetako prestakuntza-proiektuei dagokienez goranzko joera egiaztatu izana. Ildo horri jarraiki, Kontseiluak proposatzen du Berritzeguneen bidez “ikerkuntza-ekintza” paradigmaren prestakuntza-prozesuak bultzatzea eta horietan laguntzea; hau da, hobekuntzaren bat egin nahi den egoera mugatzen du aditu-talde batek, eta, gero, prozesu bat burutzen du: hausnarketa, ekintza, ebaluazioa eta beste hobekuntza batzuk. Prestakuntza-proposamen horiek unibertsitateen bidez ere lagun daitezke. Unibertsitateetako ikerkuntza garrantzitsu ugari ez dira egiaz ikasgeletara iristen, ikerkuntzaren eta eguneroko jardueraren artean dagoen lotura faltak eta irakasleek dituzten kezkak oinarritzat ez hartzeak eraginda.

Era berean, bada berrikuntza- eta prestakuntza-baliabide oso boteretsu bat, ikastetxe zehatz batean gertatzen diren gatazka-egoeren antzekoen aurrean beste profesional batzuek irakaskuntza-jarduera nola gauzatzen duten ikusita sortzen dena, hain zuzen.

*Kontseiluak proposatzen du Garatu programaren ikastaroetako prestakuntza, Berritzeguneen eta beste erakunde batzuen bidez garatu eta ikastetxean bertan gauzatzen dena, osatzea, esperientziak trukatzeko dituzten zentroen sareak sortuz.*

Argi dago, halaber, hizkuntzak komunikaziorako oinarritzko baliabide direla eta, beraz, ikasle guztiek beharrezko ezagutza-mailak lortu behar dituztela hizkuntza

ofizialetan, bai eta gizartean eta lanean integratzeko aukera hobek ematen dizkieten beste hizkuntza batean edo batzuetan ere.

Horri dagokionez, azken urteetan beste erronka bati egin diogu aurre, beste herrialde batzuetan jaiotako ikasleak hartu baititugu, eta, noski, horiei ere hizkuntza-maila bera lortzea bermatu behar zaie. Hizkuntza bat komunikatzeko lain barneratzeko denbora behar da, baina gure ikasle etorkinek hizkuntzaren beharra dute ikasketak egin ahal izateko; hizkuntzen irakaskuntzako adituen arabera, gutxienez bost urte behar dira maila hori lortzeko.

Gure ikastetxeetan, zenbait etapatan (esaterako, DBHn) sartzen diren ikasleek 4 edo 5 urte dituzte, gehienez, gainerako arloetan arrakasta akademikoa lortzeko adinako ikaskuntza-maila eskuratzeko. Lan hori ez dagokie hizkuntza-irakasleei soilik, ez eta hizkuntza-errefortzuko irakasleei soilik; gainera, ikastetxeetako eguneroko jarduerak adierazten digunaren arabera, ikasle horiekin esku hartzen duten irakasle guztiek taldean lan eginda ere, ezingo litzateke arrakasta lortu ikasle iritsi berritza hartzen diren bi urteko aldirian (hizkuntza-errefortzuak aldi horretarako esleitzen zaizkie).

*Horrenbestez, Euskadiko Eskola Kontseiluak uste du beharrezkoa dela ikasle etorkinen premiak artatzeko beharrezko den hizkuntza-errefortzuaren aldiria luzatzea.*

Ezin da zalantzan jarri lan berritzailea egiteko prestakuntzan behar den inbertsio handia; horretarako, Administrazioak hainbat modalitatetako eskaintzak egiten ditu. Horietako bat (datuen arabera, zentroek gehien estimatzen dutena) ikastetxean bertan egiten den prestakuntza da, eskola-komunitateari aukera ematen baitio prestakuntza-plan propioak egiteko, hautemandako premiekin eta lantzen dituzten nahiz landu nahi dituzten proiektuekin koherentzia dutenak.

Bestalde, prestakuntza ikastetxetik kanpo egiten denean, nahiago izaten dira ikastaro laburrak, aditutzat hartzen diren pertsonak ematen dituztenak eta eguneroko irakaskuntza-jarduerarekin zuzenean lotutako gai oso zehatzei buruzkoak.

Gehien lantzen diren berrikuntza-proiektuak eta horiek prestakuntza-proiektuetan eskatzen dituzten gaiak aztertuz gero, bien arteko koherentzia ikus daiteke.

*Kontseiluak uste du irakasleen prestakuntzan inbertitzen jarraitu behar dela, XXI. mendeari dagokion kalitatezko eskola inklusiboa lortu ahal izateko.*

### 3. KAPITULUA: IKASTETXEEN ANTOLAKUNTZA ETA ZUZENDARITZA

#### Sarrera

Txosten hau idazteak hartu duen urtebetean, ikerlana egiteko aukera izan du Kontseiluak, beste erakunde batzuekin elkarlanean. Hain zuzen ere, ikastetxe publikoen zuzendaritzaren egoera ikertu dugu, protagonisten ikuspegitik nagusiki. Protagonisten ikuspuntuaren osagarri, hezkuntza-komunitateko eta inguru hurbileko beste estamentu batzuen ikuspegia ere landu dugu.

Hartara, aurrez jorratutako gai bat aztertzen jarraitu du Kontseiluak. Bereziki, 2000n eta 2001ean jorratu zuen gaia, Zuzendaritzari buruzko Azterlan prestatu eta gai berari buruzko jardunaldiak antolatu zituenen. Aurrekari horien ildoan, [Euskadiko Ikastetxe Publikoetako Zuzendaritzari buruzko Azterlan Berria \(2009\)](#)<sup>4</sup> du izena lan berriak; tauletan, ZAB (2009) akronimoa erabiliko dugu aipamenetarako.

Azterlanak, 48 orrialdetan, gaurkotutako analisiak eta proposamenak biltzen ditu eta azken bederatzi urteotako bilakaerari erreparatzen dio. Lau erakunde sustatzaileek onartu dute: Euskadiko Eskola Kontseiluak; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Kalitatea programak; Sarean Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoen Elkarteak; eta BIHE Institutu Publikoetako Zuzendari Elkarteak.

Txostenak ekarpen esanguratsua egiten duela-eta, egoki iritzi genion 2006-2008 aldiko txostenean sartzeari. Bestalde, ELGEk berriki egindako azterlan bat argitaratu du, *Eskolako lidergoa hobetzea* izenburupean. Beatriz Pont-ek zuzendu du, eta ikastetxeen zuzendaritzari buruzkoa da hura ere; zehazki, eskolen zuzendaritzaren etorkizunari buruzko argibideak ematen dizkie herrialdeetako hezkuntza-politiken arduradunei. Kontseiluak interesgarri iritzi dio, laburtuta, bi dokumentuen berri batera emateari, esparru geografiko ezberdinei baitagozkie. Xedea da Euskadin sumatutako arazoak nazioarteko esparruan kokatzea, eta atalaren 2. eta 3. puntuetan egingo dugu hori.

Beste xedea da gaia kontzeptu zabalago baten testuinguruan kokatzea, alegia, ikastetxeen antolakuntza eta autonomiaren testuinguruan eta, horrexegatik, Europako erakunde politikoei eta ELGEk sustatutako hainbat ikerlan egin berriren emaitzak azalduko ditugu lehenengo atalean.

<sup>4</sup> <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43->

[573/eu/contenidos/informacion/did2/eu\\_2053/adjuntos/nuevos\\_informes\\_publicaciones/zuzendaritzari\\_buruzko\\_azterlan\\_berria\\_2009\\_e.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/did2/eu_2053/adjuntos/nuevos_informes_publicaciones/zuzendaritzari_buruzko_azterlan_berria_2009_e.pdf)

**Kapitulu honetan erabiliko ditugun oinarritzko erreferentzien zerrenda**

<i>Izenburua</i>	<i>Esparrua</i>	<i>Iritzi- edo berri-emailea</i>	<i>Etapia (sarea)</i>	<i>Balioa</i>	<i>Gaia</i>
PISA 2003. Euskadi (2. txostena)	Euskadi, ELGE	Zuzendariak	Bigarren Hezkuntza	Diagnostikoa	Autonomia Autonomia eremuz eremu
EURYDICE (2007)	Espainia, 27ko Europa	Hezkuntza-agintariak	Oinarritzko Hezkuntza (publikoa)	Diagnostikoa	Autonomia Langileen kudeaketa
TALIS (2009)	Espainia, ELGE	Irakasleak eta zuzendariak	Bigarren Hezkuntza	Diagnostikoa Proposamenak	Irakasleak Zuzendaritza (lidergo-estiloak)
<i>Zuzendaritzari buruzko Azterlan Berria (2009)</i>	Euskadi	Zuzendaritza-taldeak eta beste batzuk	Oinarritzko Hezkuntza (publikoa)	Diagnostikoa Proposamenak	Zuzendaritza (hainbat) Autonomia Antolakuntza
<i>Eskolako lidergoa hobetzea (2009)</i>	ELGE	Hezkuntza-agintariak Adituak	Oinarritzko Hezkuntza	Proposamenak Diagnostikoa	Eskolako zuzendaritza edo lidergoa

**3.1. Ikastetxeen antolakuntza Euskadiko, Espainiako eta nazioarteko esparruan**

Antolakuntzaren hiru alderdi landuko ditugu: autonomia, irakasleak eta eskolako giroa. Autonomiaz aritzeko, Eurydice (2007) eta PISA 2003 txostenak erabiliko ditugu. Eurydice txostenak Europako gobernuen inkesta bat du abiapuntu eta Espainia aztertzen du. PISA txostenak, berriz, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen zuzendaritza-taldeetako kideen iritzia biltzen du eta Euskadi aztertzen du. Biek ala biek nazioarteko egoerarekin konparatzen dute beren esparruko egoera.

Irakasleez jarduteko, berriz, TALIS txostena erabiliko dugu. ELGEk egindakoa da, eta hainbat gai kritiko biltzen ditu. Inkestak ez du aipatzen Euskadi, baina Espainian bildutako datu asko estrapolatu egin ditzakegu.

Azkenik, eskolako giroa jorratzeko, zenbait iturri baliatuko ditugu. Era berean, *Zuzendaritzari buruzko Azterlan Berriak* egindako hainbat diagnostiko aurreratuko ditugu.

**3.1.1. Autonomia**

Europar Batasuneko 27 gobernuen informazioa bildu du Eurydice agentziak, eta, dioenez, salbuespenak salbuespen, eskolen autonomia ez da tradizio Europan: ez historian zentralistak izan diren herrialdeetan (hala nola Espainian, Frantzia eta

Italian), ez federaletan (hala nola Alemanian). Alde horretatik, bi herrialdetan bakarrik garatu da tradizio hori bereziki: Belgikan eta Herbehereetan.

Historian, ikastetxeek ez dute izan aukera handirik hezkuntzaren helburuak eta edukiak zehazteko edo giza baliabideen edo finantza-kudeaketaren alorrean moldatzeko. Aitzitik, 1980ko hamarkadan piztu zen horren aldeko mugimendua, eta, gehienetan, eskumenen eskualdatze mugatua izan da autonomia. Adibidez, hori gertatu da Espainian; LODEk finkatu zituen eskolen autonomiaren oinarriak 1985ean.

Egun, LOE (2006) ezartzeko prozesuan gaude. Ikastetxeen autonomia-printzipioa sendotzen du Legeak, bai ikuspegi pedagogikotik, bai kudeaketa ekonomikoaren eta antolakuntzaren ikuspegitik, eta, harekin bat, ikastetxeek arduratu behar dute hezkuntza- eta kudeaketa-proiektuak prestatzeaz eta egiteaz, beren gaineko hezkuntza-agintariek ikuskatuta betiere.

Nagusiki, kudeaketa-proiektuaren (123. artikulua) bidez garatzen du Legeak ikastetxe publikoen autonomia. Hain zuzen ere, langileen kudeaketari buruzkoa da kudeaketa-proiektua, alor horretan baitago gabeziarik handiena, aurrerago ikusiko dugunez.

“123. artikulua. Ikastetxeen kudeaketa-proiektua

3. Heziketa-proiektuak betetzeko, ikastetxe publikoek lanbide-titulaziorako eta lanbide-trebakuntzarako baldintzak formulatu ahal izango dituzte ikastetxeko lanpostu jakin batzuei dagokienez, betiere hezkuntza-administrazioek ezartzen dituzten baldintzei jarraiki.
5. Hezkuntza-administrazioek ikastetxe publikoen gobernu-organoen esku utzi ahal izango dituzte finkatzen dituzten eskumenak, langileen kudeaketari lotutakoak barne. Ikastetxearen esku jarritako baliabideen kudeaketa zuzendarien erantzukizuna izango da.”.

Eurydiceren analisiaren arabera, inposatutako autonomia da Europakoa. Gobernuek aukeratzen duten eredia edozein dela ere (hezkuntza-lege orokorra, lege espezifikoak edo xedapen malguagoak), gobernu zentralek zehazten dute autonomia, legegintzako edo administrazioako nahitaezko prozesuen bitartez, eta, hartara, inposatu egiten dute, herrialde guztietan. Ez dute ikastetxeek eskatzen. Europako iparraldeko herrialdeen (Danimarka, Finlandia, Suedia eta Norvegia) egoera oso bestelakoa da eredu zentralizatu horrekin alderatuta.

Oro har, horixe da egoera, baina, Euskadin, autonomia handiagoa nahi dute ikastetxeetako zuzendariak eta haiek ordezkatzeko dituzten elkarteak, eta ikastetxeen proiektuarekin eta ikasleen ezaugarriekin lotu nahi dute autonomia. Ildo horretan, nork bere erritmoan aplikatu nahi du.

Euskadin, ikastetxeen antolakuntza berritzearen alorrean, sendotu egin dira kalitatea hobetzeko programak, *Kalitatea Hezkuntzan* proiektuari esker. Etapa desberdinetako irakaskuntza ematen duten 30 bat ikastetxe publikok hartzen dute parte proiektuan eta, hainbat prozesuren bidez —irakaskuntzaren planifikazioa, irakaskuntza-ikaskuntza, emaitzen neurketa eta kudeaketa, irakasleen




trebakuntza...—, eskolako arlo guztiak hobetzeko bideak prestatzen dituzte. Ikastetxe horiek aholkularitza-zerbitzuak dituzte eskura, lanaldi erdiko koordinatzaile bat dute eta diru-laguntza jasotzen dute; irakasleek prestakuntzaren egiaztagiria jasotzen dute.

Berrikiago, *autonomia-proiektuak* jarri dira martxan. Kalitate-proiektuen aldaera dira autonomia-proiektuak, eta hobekuntza-plan bat egitean eta abiaraztean jartzen dute arreta. Ikuskaritzak plana ebaluatzen du, eta gai hauetako bat edo hainbat har dezake barnean planak, baita guztiak ere: ikasleen ikaskuntzaren emaitzak, eskolako komunitatearen barneko komunikazioa eta parte-hartzea, antolakuntza eta kudeaketa, eta eskolako giroa.

Estatuan, Katalunia da autonomia garatzen gehien aurreratu duen autonomia-erkidegoa.


Bestalde, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako zuzendarien iritzia biltzen du PISA 2003 txostenak. Harekin bat, ELGEko herrialdeen artean, Euskadiko ikastetxeen autonomia pixka bat handiagoa da batez bestekoa baino, baina alde handiak daude hezkuntza-sareen artean. Zehatz-mehatz, nazioarteko batez bestekoa 0,00 izanik, Euskadin, itunpeko ikastetxeen autonomia maila (0,80) dexente handiagoa da Europako batez bestekoa baino, eta ikastetxe publikoena (-0,68), aldiz, txikiagoa.

**Ikastetxeen autonomia-indizea, sareen arabera. Euskadi eta ELGE. PISA 2003. Euskadi (2. txostena). ISEI.**




Ikastetxe publikoak bakarrik konparatzen baditugu —halakoak dira ELGEko herrialdeetako gehienak (%80)—, ikusiko dugu Euskadiko ikastetxeen autonomia nabarmen txikiagoa dela eta, gainera, Espainiakoek batez beste dutena baino pixka bat beherago geratzen dela.

**Ikastetxe publikoen autonomia-indizea, sareen arabera. Euskadi eta ELGE. PISA 2003. Euskadi (2. txostena). ISEI.**



Irakasleen faktorea da bai sareen arteko, bai Euskadiren eta ELGEko herrialdeen arteko aldearen arrazoi nagusia. Izan ere, 0 eta 100 artekoa da ebaluazio-eskala, eta ikastetxe publikoek puntu bakarra eman diote beren buruari; itunpekoek, berriz, 68 eman dizkiote. Autonomiaren beste alorretan, itunpeko ikastetxeen balioak ikastetxe publikoen balioen gainetik daude, baina elkarrengandik gertuago.

**Ikastetxeen autonomia-maila alorren eta titulartasunaren arabera. Euskadi. PISA 2003. Euskadi. ISEI.**



Guztira, hamalau adierazleren bidez neurtzen ditu PISA txostenak autonomiaren lau alorrak, eta, irakasleen kudeaketaren ingurukoez gain, sareen arteko alderik handienak dira ikastetxeen aurrekontua prestatzearen eta ikasleak onartzeko arauen ingurukoak. Deigarria da ikasleak onartzeko arauen kontua, arauok berdinak baitira funtsean ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan.

**Autonomia alorrez alor eta adierazlez adierazle, ikastetxeen titulartasunaren arabera. Euskadi. PISA 2003. Euskadi (2. txostena). ISEI.**

		Publikoa %	Itunpekoa %	GUZTIRA %
<b>Irakasleak</b>	Irakasleak kontratatzea	0.0	98.8	58.4
	Irakasleak botatzea	3.6	100.0	60.3
	Irakasleen hasierako soldatak	0.0	38.3	22.6
	Irakasleen soldaten igoerak	0.0	34.6	20.4
<b>Aurrekontua</b>	Ikastetxearen aurrekontua egitea	59.3	100.0	83.6
	Ikastetxearen barruan aurrekontua banatzea	100.0	100.0	100.0
<b>Arauk</b>	Ikasleei zuzendutako diziplina-arauak	98.2	100.0	99.3
	Ikasleak ebaluatzeko arauak	98.2	97.5	97.8
	Ikasleen onarpena	50.0	93.8	76.3
<b>Curriculum</b>	Testuliburuak aukeratzea	100.0	100.0	100.0
	Kursoetako edukiak erabakitzea	76.8	90.1	84.7
	Eskaini behar diren irakaskuntzak erabakitzea	46.4	95.0	75.0


Zuzendaritzari buruzko Azterlan Berriak, berriz, ez ditu planteatzen adierazle zehatzak. Haren neurketekin bat, zuzendaritza-taldeetako kideek uste dute autonomia-maila nahikoa dutela pedagogia edo curriculumaren esparruan, eta antolakuntza eta ekonomiaren esparruetan, eta oso autonomia urria (1,7koa) dutela langileak kudeatzeko esparruan; hau da, bat datoz lehen emandako datuarekin. Gainera, gehien nahi duten alorrean dute ikastetxeek autonomia gutxien, 3.2.4. atalean ikusiko dugunez. Erabilitako eskala 1 (gutxienekoa) eta 5 (gehienekoa) artekoa da.

**Autonomia-mailak, arloen arabera. ZAB (2009). Euskadi (1 eta 5 arteko eskala).**

Ikastetxeak datozen esparruetan duen autonomia-maila nahikoa da:	Batez beste
a) Irakasleen eta langile ez-irakasleen esparruan	1,7
b) Pedagogiaren esparruan	3,6
c) Antolakuntzaren esparruan	3,4
d) Ekonomiaren esparruan	3,2

Eurydicek zazpi gaitasunei buruz egindako azterlana (2007) ere bat dator ikastetxeek irakasleak kudeatzeko autonomia urria duten ustearekin —Espainiako eta Europako egoera konparatzen ditu azterlan horrek, eta grafikoan gezi batez adierazitako zutabeari begiratu behar diogu—.

**Ikastetxeen autonomia irakasleak kudeatzeko. Espainia eta 27ko Europa. Eurydice (2007). Oinarrizko irakaskuntzako mailak (INSNko 1. eta 2. mailak) (2.4. grafikoa).**



### 3.1.2. Irakasleak

2007-2008 aldian, TALIS *Teaching and Learning International Survey* proiektuaren (Irakaskuntzari eta Ikaskuntzari buruzko Nazioarteko Azterketa) lehenengo zikloa landu du ELGEk, nazioarteko ikuspegi konparatiboa emateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntza- eta ikaskuntza-baldintzen inguruan eta PISAk azaldutako emaitzen arteko ezberdintasunak azaltzen dituzten faktore nagusi batzuen inguruan.

Irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren hainbat alderdi esanguratsu aztertzen ditu TALISek, inkestak eginez azterketan parte hartzen duten 24 herrialdeetako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta zuzendariei.

ELGEko herrialdeak		Kidetutako herrialdeak
Australia	Italia	Brasil
Austria	Mexiko	Bulgaria
Belgika (Flandria)	Norvegia	Eslovenia
Korea	Herbehereak	Estonia
Danimarka	Polonia	Lituania
Espainia	Portugal	Malta
Hungaria	Txekiar Errepublika	Malaysia
Islandia	Turkia	
Irlanda		

ELGEk 2009an egindako nazioarteko txostenaren alderdirik esanguratsuenetan hainbat laburbiltzen ditu Espainiako TALIS txostenak, Espainiako ikuspegitik.

Espainiako ikuspegia izateak esan nahi du ez dugula lagin esanguratsurik Euskadiri buruz eta, hortaz, eskura dugun gainerako informazioarekin konparatu behar dugula estrapolatzen dugun emaitza oro.

Bost alderdi nagusi aukeratu ditugu, interesgarriak direlako eta gure testuinguruan behar adina jorratu ez ditugun gaiak planteatzen dituztelako. 3.2. atalean, berriz, beste bat aipatuko dugu, zuzendaritzaren ingurukoa.


### ***C1) Irakasleek erabiltzen duten irakaskuntza-ikaskuntza sistema***

Bi eredu daude oro har:

- a) Irakaskuntza konstruktibista. Irakasleek jotzen dute beren lana dela, batez ere, ikasleen ikaskuntzari bide ematea eta hura laguntzea, ikasleek beren kabuz aurki ditzaten konponbideak.
- b) Irakaskuntza zuzeneko transmisioztat hartzea. Irakasleek uste dute beren funtsezko lana dela ikasleei ezagutzak transmititzea eta irtenbide zuzenak irakastea.

Ikuspegi konstruktibistaren aldekoak dira azterketan parte hartzen duten irakasle gehienak, eta ikuskera hori da nagusi Europa iparraldeko eta mendebaldeko herrialdeetan, Australian eta Korean. Europa hegoaldean (bereziki, Espainian eta Italian), berriz, nagusitasun txikiagoa du.

**Irakasleen eskumenak. Irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren izaerari buruzko iritziak, herrialdeen arabera. Espainia eta ELGE. TALIS. Espainiako txostena (2009) (4.2. grafikoa).**




**C2) Tutoretza-, orientazio- eta irakasleentzako hasierako prestakuntza-programa formalak ikastetxeetan**

Txostenaren arabera, Espainian, irakaskuntzan lan egiten duten irakasleen %60k baino gehiagok dihardu lanpostuari buruzko hasierako prestakuntza- eta berriazko orientazio-programak ez dituzten ikastetxeetan. Hartara, Espainia bigarrena da gabezien zerrendan, Brasilen atzetik.

Euskadin ere ez zaio modu sistematikoan heldu irakasleek lantokian garatu behar duten hasierako prestakuntzari, eta pentsatzekoa da Euskadiko batez bestekoa ez dela handiagoa Espainiako baino.


**Irakasleentzako tutoretza-, orientazio- eta hasierako prestakuntza-programa formalak ez dituzten ikastetxeetan lan egiten duten irakasleen ehunekoa. Espainia eta ELGE. TALIS. Espainiako txostena (2009) (3.13. grafikoa).**



### C3) Irakasleen koordinazioa edo lankidetzeta

Oro har, herrialde guztietako irakasleek joera handiagoa dute ideiak eta informazioa elkarri jakinarazteko eta koordinatzeko zuzenean elkarlanean aritzeko baino, eta aldea handiagoa da Espainian eta beste herrialde batzuetan. Elkarlana sustatzeak, ordea, irakaskuntzaren eraginkortasuna hobetzea ekar dezake.

**Irakasleen antolakuntza pedagogikoa. Irakaskuntzarako ideiak elkarri jakinaraztea eta koordinatzea eta profesionalen arteko lankidetzeta. Espainia eta ELGE. TALIS. Espainiako txostena (2009) (4.7. grafikoa).**




### C4) Irakasleen ebaluazioa

Irakasleek ongi deritzote haien lana ebaluatzeari eta balioesteari eta, lan hobia egiteko, ebaluazioaren emaitzaren berri jakiteari. Italian, Espainian, Portugalen eta Irlandan izan ezik, irakasleen %80k baino gehiagok erantzun du irakasleak eta eskolak ebaluatu egiten dituztela eta dagokion informazioa ematen dietela. Horri esker, haien lana hobetu egiten da eta irakaskuntza-metodoen alderdi jakin batzuk aldatzen dituzte.

Euskadiko ikuspegitik ere, ikastetxeetako zuzendariak iritzi ona dute irakasleak ebaluatzeari buruz, eta ikastetxeen autonomia garatu beharrarekin lotzen dute hori. Alde horretatik, tradizioz ez izatea ez da oztopo.

Ebaluazioak garrantzi handia izan dezake irakasleen karreran eta irakaskuntza hobetzeko, baina, praktikan, oihartzun txikia du. Hain zuzen ere, TALIS azterketaren arabera, irakasleen hiru laurdeni ez diete aitortzen lanaren kalitatea hobetzeko edo berritzaileagoak izateko ahalegina.

**Irakasleen ebaluazioaren eragina haien lan-baldintzetan. Espainia eta ELGE. TALIS. Espainiako txostena (2009) (5.5. grafikoa).**




Espainian, irakasleen %20ri ere ez zaie aitortzen nolabait bere ahalegina. Gainera, irakasle gehienek jakinarazi dutenez, ez dira lankide eraginkorrenak aitorten gehien eta ordainsari ekonomikorik handienak jasotzen dituztenak. Ildo berean, ez dituzte zigortzen lanean ahalegintzen ez diren irakasleak edo etengabe emaitza txarrak lortzen dituztenak.

Espainiaren esparrukoak dira diagnostiko horiek, baina onargarriak dira erabat Euskadiren esparruan ere.

**3.1.3. Eskolako giroa**

TALIS txostenak beste gai bat aipatzen du, C5 gaia: eskolako giroa. Espainia azkena da alde horretatik.

**Eskolako giroa. Eskoletako jarduerak lantzen ematen den denbora eta eskolako giroa. Espainia eta ELGE. TALIS. Espainiako txostena (2009) (4.11. grafikoa).**



Euskadiko ikuspegitik, hobea da emaitza. DBH ematen duten ikastetxeetan dagoen giroari eta irakasleen eta ikasleen konpromisoari buruzko lau gai analizatzen ditu ISEIk PISA-2003 probari buruz egindako bigarren txostenak.

Txostenak darabilen batez besteko balioa 0,00koa izanik, balio positiboek egoera onak adierazten dituzte, eta halakoa da irakasleek eskolako giroari buruz duten iritzia (0,28) eta, bereziki, ikasleena (0,59).

Aitzitik, irakasleen eta ikasleen konpromiso-maila txikia da eskolako giroaren aldean, haien balioak negatiboak baitira: -0,29koa eta -0,42koa, hurrenez hurren.

**Eskolako giroa Euskadin. Batez besteko indizeak eta balioak. PISA 2003. Euskadi (2. txostena). ISEI (batez besteko balioa: 0,00).**

<i>Indizeak</i>	<i>Batez bestekoa: 0,00</i>
Irakasleen eskola-giroaren pertzepzioa	0,28
Ikasleen eskola-giroaren pertzepzioa	0,59
Irakasleen konpromisoaren pertzepzioa	-0,29
Ikasleen konpromisoaren pertzepzioa	-0,42

Oro har, analizatutako indize guztietatik ondoriozta dezakegunez, Euskadiko ikastetxeetako zuzendarien ustez, analizatutako alderdi disruptiboek eragin txikiagoa dute ikaskuntzan, gutxiago egiten diote kalte ikaskuntzari ELGEko herrialdeetako ikastetxeetako zuzendariak batez beste antzematen dutena baino.

Ondoko taulan, lau aldagaiei lotutako 24 adierazleak zerrendatuko ditugu. Eskolako giroari buruzko adierazleak ezezkotan emanda datoz, portaera disruptiboak edo eragozpenak adierazten dituztelako; konpromisoarekin lotutako jokaerak, berriz, baiezkotan emanak datoz.

**Eskolako giroa Euskadin. Indizeak eta deskribatzaileak. PISA 2003. Euskadi (2. txostena). ISEI.**

<i>Indizeak</i>	<i>Deskribatzaileak</i>
Irakasleen eskola-giroaren pertzepzioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Espektatiba gutxi irakasleen aldetik</li> <li>• Irakasleen eta ikasleen arteko harreman txarra</li> <li>• Arretarik ez ikasleen premia indibidualetan</li> <li>• Irakasleen absentismoa</li> <li>• Irakasleek aldatu nahi ez izatea</li> <li>• Irakasleak zorrotzegiak izatea</li> <li>• Ikaslea bere ahalmena erabat garatzera ez animatzea</li> </ul>
Ikasleen eskola-giroaren pertzepzioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasleen absentismoa</li> <li>• Ikasgelako giro nahasia</li> <li>• Klaseetara ez joatea</li> <li>• Irakaslea ez errespetatzea</li> <li>• Alkohola edo drogak kontsumitzea</li> <li>• Beste ikasle batzuk beldurrarazi edo behartzea</li> </ul>



Indizeak	Deskribatzaileak
Irakasleen konpromisoaren pertzepzioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanean adore handia erakusten dute</li> <li>• Gogoz lan egiten dute</li> <li>• Ikastetxearekin harro daude</li> <li>• Errendimendu akademikoa baloratzen dute</li> </ul>
Ikasleen konpromisoaren pertzepzioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasleei ikastetxean egotea gustatzen zaie</li> <li>• Gogoz lan egiten dute</li> <li>• Ikastetxearekin harro daude</li> <li>• Errendimendua baloratzen dute</li> <li>• Laguntzaileak eta adeitsuak dira</li> <li>• Ikastetxeak ematen duen heziketa baloratzen dute</li> <li>• Ikasteko ahal duten guztia egiten dute</li> </ul>

Azaldu gabe utzi dugu irakasleen eta ikasleen konpromiso-maila urriaren eta eskolan giro ona izatearen (gatazka gutxi izatea) arteko kontraesana eta, gutxienez, hiru aldagai erabil ditzakegu horretarako: baliabideak, emaitzak eta berrikuntza.

Laburbilduz, DBHko 2. zikloan (INSNko 2. mailan) metatzen dira baliabideak, graduatu aurreko bi maila edo ikasturteetan: curriculum-aniztasuna, talde bikoizketak, eskolatzeko-programa osagarriak... Txosten honen azken atalean ikusiko dugunez, aurrekontuan eragina du horrek.

Horren ondorioz, graduazio-tasak handiak dira Estatuaren kontestuan, eta Lisboan 2010erako ezarritako helburuetatik hurbil daude. Gauza bera gertatzen da derrigorrezko hezkuntzaren ondoko eskolatzearrekin eta horiei dagozkien tituluak eskuratzearekin.

Arreta ikasle bakoitzaren neurrirakoagoa izatea dakarte baliabideek, eta horrek eragina du Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako zuzendariak giro ona suma dezaten; horiek dira iritzia ematen dutenak PISA txostenean.

Bestalde, eskolako elkarbizitza hobetzeko hainbat proiektu sortu dira, Euskadin bereziki. Azkenean, faktore disruptiboak murriztea eta hezkuntza-komunitateetako kideen arteko harreman-giroa hobetzea dakarte proiektuok.

Ildo berean, *Zuzendaritzari buruzko Azterlan Berriak* nabarmentzen du eskolako giroa hobetu egin dela azken hamarkadan —ikastetxe publikoak bakarrik analizatzen ditu azterlanak— eta, okertzekotan, konpromisoa okertu dela giroa baino gehiago.

**Eskola-giroa. ZAB (2009). Euskadi (1 eta 5 arteko eskala).**

	2000	2009
Irakasleen artean dagoen harremana ona da	3,7	4,0
Irakasleen eta familien kolektiboaren arteko harremana ona da	3,7	4,0
Zuzendaritzak familien partaidetza eraginkorra bultzatzen du	3,5	3,8
Ikastetxeko Gurasoen Elkarteak eraginkorra da	3,2	3,5
Ikasleentzako araudiak ikasleekin adosten dira	3,0	3,5
Irakasleak inplikatu egiten dira berrikuntza didaktikoan eta pedagogikoan	3,9	3,5

**3.2. Ikastetxeen zuzendaritza Euskadin**

*Zuzendaritzari buruzko Azterlan Berriaren* ondorio nagusiak 3.2. ataleko 2., 4. eta 5. epigrafeek biltzen dituzte sistematikoki. Berriz, 3. epigrafeak TALIS txostenak lidergo-estiloen inguruan emandako ikuspegi interesgarri bat azaltzen du, eta 1.ak, azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoan zuzendaritza-gaiei buruzko legedian izandako berrikuntzak.

**3.2.1. Legediaren berrikuntzak**

Zuzendaritza-gaiei buruzko legediaren azkenaldiko bi aldaketa nagusiak LOEk ikastetxeetako zuzendaritza-postuak betetzeko sistemari buruzkoak izan dira.

Aldaketa horiek eragina izan dute Euskal Eskola Publikoari buruzko Legean, eta aukera baliatu izan da ikastetxeetako zuzendariari eginkizun gehiago egokitzeko. Ondoren, zuzendariak hautatzeko 22/2009 Dekretua argitaratu da. Proiektua egiteko fasean, Kontseiluak parada izan du bi arauoi buruzko iritzia emateko, irizpenen bidez, eta, hainbatetan, zehaztuko dugunez, Administrazioak kontuan hartu ditu iritzi horiek.

- **Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen aldaketa**

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legea aldatu du 3/2008 Legeak, zuzendariak hautatzeko prozedura arautzeko eta zuzendaritza-lanerako prestakuntzaren eta haren ebaluazioaren hainbat alderdi garatzeko, eta funtzio berriak ezarri dizkio zuzendari-karguari.

Zuzendariari 3/2008 Legeak ezartzen dizkien funtzio berriek hiru arlo hartzen dituzte:

**a) Ebaluazioa eta lidergo pedagogikoa.** Atal hauek zehazten dute gai hori:

- h) Ikastetxearen barneko ebaluazioak bultzatzea eta kanpoko ebaluazioetan eta irakasleen ebaluazioan laguntzea.
- c) Zuzendaritza pedagogikoa gauzatzea, hezkuntza-berrikuntza sustatzea eta ikastetxearen heziketa-proiektuaren helburuak lortzeko planak bultzatzea.

**b) Elkarbizitza arautzea.** Atal hauek zehazten dute gai hori:

- f) Ikastetxeko elkarbizitza hobetzea, gatazkak konpontzeko bitartekotza bermatzea eta ikasleei dagozkien neurri zuzentzaileak ezartzea indarrean dagoen araudia beteta, gai honetan ordezkari-organoren gorenari esleitutako eskumenak aparte utzi gabe.
- g) Eskola-giroa sustatzea, ikasleek jakintzetan eta balioetan prestakuntza integrala jasotzeko eta ikasketa-ohiturak sustatzeko lagungarri izan daitezkeen jardun guztiak garatze aldera.

**c) Kanpo-harremanak,** bai inguruarekin, bai Hezkuntza Administrazioarekin. Atal hauek zehazten dute gai hori:

- g) Ikastetxearen eta ingurunearen arteko harremana sendotzeko, familiekin, erakundeekin eta organismoekin lankidetzak bultzatzea.
- a) Hezkuntza Administrazioari hezkuntza-komunitatearen planteamenduak, asmoak eta premiak helaraztea.

Kontseiluak lege-proiektuari buruz emandako irizpenean (07/16 irizpena) nabarmendu zuen, zuzendariak gero eta eginkizun gehiago bere gain hartu ahala, gauza bera egin behar zutela gainerako gobernu-organismoek ere eta, bereziki, OOG edo Eskola Kontseiluak, LOEk xedatzen duenarekin bat. Proposamen hori ez zen kontuan hartu.

- **Zuzendariak hautatzeko dekretua**

3/2008 Legea garatzeko, 2009/02/18ko EHAAn, 22/2009 Dekretua argitaratu da, zuzendariak hautatzeko eta kide bakarreko beste gobernu-organismoetako kargudunak izendatzeko eta kargugabetzeko prozedurari buruzkoa. Hainbat berrikuntza ekarri ditu dekretu horrek:

- Merezimenduen lehiaketa bidez hautatzen dira zuzendariak.
- Bi fasek eratzen dute merezimenduen lehiaketa. Lehenengo fasean, hautagai aurkezten diren pertsonen merezimenduak balioesten dira, eta, bigarrean, zuzendaritza-proiektua.
- Bost kideko batzorde batek egiten du hautaketa: klaustroko bi kide, OOG osatzen duten beste estamentuetako bi kide (nagusiki, familiak) eta Hezkuntza Ikuskaritzako kide bat.
- Izendapenerako ezinbestekoa da zuzendariak hasierako prestakuntza-programa batean parte hartzea, baina baldintza horretatik salbuetsita daude bi urtez zuzendaritza-kargu batean egon direnak.

Kontseiluaren ustez, ezarritako prozedura ezberdina den arren, funtsean, dekretu berri horrek ez du aldatu ikastetxeek beren zuzendaritza-taldeak aukeratzeko autonomia-printzipioa. Izan ere,

- Orain ere ikastetxeek dute eginkizun nagusia hautaketan (%80ko ordezkaritza dute ikastetxeek, eta Administrazioak, %20koa)
- Zuzendaritza-proiektua da balorazioaren oinarria.

Dekretu-proiektuari buruzko irizpenaren bitartez, iradokizun bat egin du Kontseiluak, hautagai kopurua ez mugatzeko, eta Administrazioak kontuan izan du iradokizun hori. Hain zuzen ere, merezimenduen fasean gutxieneko puntu-kopuru bat lortu behar ez izatea izan da Kontseiluaren proposamena, irakasle gazteak edo ikastetxean esperientzia gutxi dutenak aurkeztea galaraziko bailuke horrek.

Halaber, azpimarratu da komenigarria litzatekeela, dekretuarekin batera, zuzendarien eta gainerako kargudunen funtzioaren aitortza arautzea, 3/2008 Legeko 9. eta 11. artikulua aplikatzearen, baina, azkenean, Administrazioak ez du arautu, eta kalte egin dio horrek hautagai gehiago aurkezteari. Ildo berean, ez da mesedagarria izan deialdia egiteko agindua argitaratzen atzeratu izana ere.

### **3.2.2. Zuzendaritza arazo**

2009an Euskadiko ikastetxe publikoen zuzendaritza arazo da oraindik ere, eta hauek dira horren adierazgarri:

- a) Hautagaien eskasia.
- b) Zuzendari-postuan gutxi irautea.
- c) Gizartearen eta lankideen aitortza urria.

Batetik, hautagaien eskasiari dagokionez, 2009an oso pertsona gutxi hartu dute parte zuzendariak hautatzeko prozesuan. Zehazki, ikastetxeen %30ek bakarrik osatu du hautagaiak aurkezteko eta hautatzeko prozesua, aurreko deialdietan baino gutxiagok; izan ere, aurreko deialdietan, ikastetxeen %40 eta %50 artekoa izan da hori egin dutenen kopurua.


Haur eta Lehen Hezkuntzan, ikastetxeen %27tan soilik aurkeztu dira hautagaiak; Bigarren Hezkuntzan, berriz, %32tan; eta berariazko Lanbide Heziketan, %56tan. Bestalde, etapa guztiak batera hartuz gero, ez dago alderik lurraldeen artean (3.1. eranskina).

**Zuzendari-postua hautaketa-prozeduraren bidez bete duten Euskadiko ikastetxe publikoak, ehunekotan, etapan eta lurraldeen arabera. 2009.**

<i>Esparru geografikoa</i>	<i>Araba</i>	<i>Bizkaia</i>	<i>Gipuzkoa</i>	<i>Euskadi</i>
Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak	%28	%27	%27	%27
Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak	%33	%36	%25	%32
Lanbide Heziketako berariazko ikastetxeak	%50	%36	%75	%56
Ikastetxe guztiak	%30	%30	%30	%30

Hautagaien eskasia larriagoa da udalerrri txikietako ikastetxeetan. Izan ere, hamar udalerririk handienetan, batez beste, ikastetxeen %36tan aurkeztu dira hautagaiak. Etapa guztiak batera hartuz gero, bada alderik: Santurtzin, esaterako, ikastetxeen %57tan aurkeztu dira hautagaiak; Basaurin eta Portugaleten, aldiz, %30etan, Euskadiko batez bestekoaren ildoan.

**Zuzendari-postua hautaketa-prozeduraren bidez bete duten Euskadiko hamar udalerririk handienetako ikastetxe publikoak, ehunekotan. 2009.**



Arreta ematen du udalerrri berean etapa ezberdinetako ikastetxeen artean dagoen ezberdintasunak. Donostian, Barakaldon eta Getxon, parte-hartzea handiagoa da Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan. Beste leku batzuetan (hala nola Portugaleten, Basaurin eta Bilbon), berriz, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan aurkeztu dira hautagaiak nagusiki, edo horietan bakarrik aurkeztu dira.

**Zuzendari-postua hautaketa-prozeduraren bidez bete duten Euskadiko ikastetxe publikoak, etapan artean aldeak dauden udalerrietan, ehunekotan. 2009.**

<i>Esparru geografikoa</i>	<i>Haur eta Lehen Hezkuntzako ikast.</i>	<i>Bigarren Hezkuntzako ikast.</i>
Donostia	%58	%13
Barakaldo	%42	%25
Getxo-Leioa	%38	%25
Bilbo	%23	%47
Basauri	%14	%67
Portugalete	%0	%67
Euskadi	%27	%32

Bestetik, kargudunek postuan irauten duten denbora eskasari dagokionez, gutxi gorabeherakoak dira Azterlanaren datuak, zuzendaritza-taldeen %50ek erantzun baitio inkestari.

Nabarmentzekoa da kargudunen txandakatze handia, eginkizun horietan lortzen den esperientzia laburra. Zehazki, zuzendarien %41ek lehen edo bigarren urtea du karguan, eta gauza bera gertatzen zaio ikasketa-buruen %60ri. Beste muturrean, zuzendarien heren batek baino gutxiagok du lau urteko esperientzia karguan, eta ikasketa-buruen bosten batek baino gutxiagok.

**Zuzendarien eta ikasketa-buruen antzintasuna karguan, ehunekotan. Euskadiko ikastetxe publikoak. 2009 (Azterlaneko lagina).**

<i>Urteak karguan</i>	<i>Zuzendariak</i>	<i>Ikasketa-buruak</i>
Bat edo bi	%41	%60
Hiru edo lau	%26	%22
Bost eta zortzi bitartean	%12	%10
Zortzi baino gehiago	%20	%8


Hala eta guztiz ere, esperientzia handia dute irakaskuntzan, zuzendaritzalanean ezegonkortasun handia dagoen beste adierazgarri bat. Zehatz-mehatz, hamarretan bederatzik 15 urte baino gehiago daramate irakaskuntzan, eta %70ek hamar urte baino gehiago darama ikastetxe berean.

**Zuzendaritza-taldearen antzintasuna irakaskuntzan eta ikastetxean. Euskadiko ikastetxe publikoak. 2009 (Azterlaneko lagina).**

<i>Antzintasuna (urteak)</i>	<i>Irakaskuntzan</i>	<i>Ikastetxean</i>
1-5	%3	%10
6-10	%1	%21
11-15	%6	%35
16-20	%22	%19
> 20	%67	%15

Azkenik, gizartearen eta lankideen aitortza baxuari dagokionez, zuzendariek beren lanaren trukean hartzen duten ordainsaria da zuzendaritza-karguetarako hautagaiak aurkezteko beste arazo bat. Adierazle horrekin bat, Estatuko osagarri txikiak jasotzen dituzte Euskadiko ikastetxeetako zuzendariek (2. eranskina).

**Institutu ertain edo handietako zuzendarien hilabeteko osagarri ekonomikoa, eurotan (B tartea). Iturria: UGTko Irakaskuntzako Langileen Federazioa.**



### 3.2.3. Lidergo-estiloak Espainian eta ELGen


Ikastetxeetako zuzendariek betetzen duten eginkizunaren ezaugarriak azaltzeko, ELGE barneko herrialdeen arteko konparazioa egiten duen TALIS azterlana erabiliko dugu, irakasleei buruz aritzean lehenago aipatu duguna. Ez dago Euskadiri buruzko laginik, baina neurri batean erakusten digu bertako egoera, beste analisi batzuk egin bitartean.

Bi zuzendaritza-eredu bereizten ditu TALISEk: pedagogikoa eta administratiboa. Lidergo pedagogikoa irakaskuntza-ikaskuntza prozesuei dagokie, eta hiru jardueratan gauzatzen da: plangintza, zailtasunak dituzten irakasleen laguntza eta irakasleekiko lankidetzak eta zuzendaritza.

Lidergo administratiboaren ezaugarriak dira, berriz, administrazio-prozeduren kudeaketa eta zuzendaritzak eragile guztien (famiak, irakasleak, ikasleak) partehartzeari eman diezaioketen eta eman behar dion bultzada, eta guztiek erantzukizuna beren gain hartzea.

Lidergo pedagogikoaren alorrean, puntu-kopururik txikiena du Espainiak eta, lidergo administratiboaren alorrean ere, batez bestea baino puntu gutxiago.

**Zuzendaritza. Lidergo-estiloak. Ikastetxeetako zuzendarien puntu-kopurua lidergo-motaren arabera. Espainia eta ELGE. TALIS (2009). Espainiako txostena (6.2. irudia).**



TALISen arabera, ez dago korrelazio handirik, batetik, zuzendariek eta irakasleek dituzten lidergo-moten eta, bestetik, irakaskuntza-eredu jakin baten (tradizionala edo konstruktibista) inguruan duten jarreraren artean. Hala ere, lidergo pedagogikoak ohikoagoa dirudi irakasleak ebaluatzen dituzten eta ebaluazioaren emaitzak haien lanaren eraginkortasuna hobetzeko erabiltzen dituzten ikastetxeetan.

Europar Batasuneko (EB-27) Hezkuntza, Gazteria eta Kultura komisario Jan Figel-ek dioenez, Europako ikastetxeetako zuzendariek administrazio-lanetan ematen dute lanaldiaren %40 batez beste, eta %10 besterik ez pedagogia-lanetan. Gainera, haren ustez, zera litzateke zuzendariek lidergo handiagoa izatea ikastetxeetan: “irakasle berriei orientazioa ematea eta laguntza eskaintzea, baita motibazioari eustea eta beteranoen etengabeko prestakuntza sustatzea ere”.

### 3.2.4. Euskadiko zuzendaritza-taldearen ikuspegia

Euskadiko zuzendaritza-taldearen ikuspegia laburbiltzen duten zazpi alor azalduko ditugu jarraian, lidergo-ereduen inguruko auziari erantzuten baitiote, zeharka bada ere.

- **Zuzendaritza-taldearen orientazio pedagogikoa**

Ikuspuntu kualitatibotik, zuzendaritza-taldearen orientazio pedagogikoa hobetu egin da 2000tik hona, baina horrek ez du esan nahi nazioarteko parametroekin parekatu denik.



**Zuzendaritza-taldearen parte-hartzea antolakuntza pedagogikoan. Euskadi. ZAB (2009) (1 eta 5 arteko eskala).**

	2000	2009
Zuzendaria antolakuntza pedagogikoan inplikatu egiten da	3,9	4,3
Zuzendaritza-taldeak irakasleen talde-lana irmoki bultzatzen du	3,6	4,1
Zuzendaritza-taldeak zeresan handia dauka zeregin lektiboen banaketan	3,6	4,1
Zuzendaritza-taldeak zeresan handia dauka kargu pedagogikoen (koordinatzaileak, mintegi-buruak... ) banaketan	3,4	3,7

- **Egitekoen zailtasuna eta estimulu-eskasia**

Hiru faktorek adierazten dute atsekabea zuzendaritza-taldearen artean, 3.2.2. epigrafearen hasieran aipatu dugunez. Hiru horiez gain, zailtasunen eta estimuluen arteko desoreka ere izan behar dugu kontuan. Izan ere, ez egungo pizgarri ekonomikoak, ez irakaskuntzatik liberatzeko denbora, ez dira estimulu nahikoak zailtasunak konpentsatzeko.

Ikastetxea antolatzeko lanak ondorioak dituela sumatzea da aurrera jarraitzeko eragile bakarra, eta irudipen hori handiagoa da zuzendaritzan zenbat eta denbora luzeagoa eman. Ikuspegi politikoa da hori, errealitatea aldatzea baitu helburu, eta, funtsean, etikoa, gizarteak eska diezaiokeenaz gaindiko konpromisoa hartzera bultzatzen baitu zuzendaria.

**Zuzendaritza-lana erakargarri bihurtzeko faktoreak. Euskadi. ZAB (2009) (1 eta 5 arteko eskala).**

Zer neurritan egiten du erakargarri zuzendaritza-lana:	<i>Batez bestekoa</i>
a) Diru pizgarriak	1,7
b) Norberaren lanak ikastetxea aurrera eramaten lagundu duela ohartzeak	3,8
c) Ordu liberazioak	2,0
d) Harreman pertsonalen esparrua zabaltzeko aukerak	2,5

Zuzendaritza-lana egiteko zailtasunen artean, berriz, nabarmentzekoak dira lan-zama eta inguruko presioa edo estresa. Alde horretatik, hezkuntza-komunitatea osatzen duten hiru taldeekiko harremanei dagokienez, oro har, irakasleekiko harremanak dira gatazka-iturri nagusiak zuzendaritza-taldearen ikuspegitik, eta ikasleekikoek eragiten dute gatazka gutxien. Ikasleek eskolako giroari ekarpen mesedegarria egiten dioten irudipena berresten du horrek, oro har; azterlanaren analisi berezian islatzen dira zehaztapenak.

**Zuzendaritza-lana zailtzen duten faktoreak. Euskadi. ZAB (2009) (1 eta 5 arteko eskala).**

Zer neurritan zailtzen du zuzendaritza-lana:	Batez bestekoa
a) Arduraren zamak	4,3
b) Eguneroko lanak sortzen duen estresak	4,3
c) Irakasleenganako ardurak (bilerak, antolakuntza, ardurak eskatzea ...)	4,0
d) Harremanak familiekin (bilerak, antolakuntza, arazo eta kexak jasotzea ..)	3,7
e) Harremanak ikasleekin (bilerak, jarrera arazoak, ikasketa arazoak, irakasleekin dituzten arazoak ...)	3,2

- **Pizgarri ekonomikoak**

Pizgarri ekonomikoak ez dira pizgarri bakarrak, baina oso garrantzitsuak dira zuzendaritza-lana egiten duten pertsonen ikuspegitik.

**Zuzendaritza-taldeek iritzia beren ordainsariei buruz. Euskadi. ZAB (2009) (1 eta 5 arteko eskala).**

	2000	2009
Zuzendaritza-karguentzako diru pizgarriak gaur egun indarrean daudenak baino handiagoak izan behar lirateke	4,5	4,6

- **Prestakuntza izateko eskaera**

Zuzendaritza-taldeek neurri handi batean eskatzen dute prestakuntza, hainbat unetan eta hainbat motatakoa.

**Zuzendaritza-taldeek prestakuntza-beharra eta prestakuntza-motak. Euskadi. ZAB (2009) (1 eta 5 arteko eskala).**

	2000	2009
Zuzendaritza karguak hartu baino lehen, berriazko prestakuntza behar-beharrezkoa da	--	4,3
Etengabeko prestakuntza eta aholkularitza beharrezkoak dira zuzendaritza lanetarako	--	4,5
Gure prestakuntzarako, ikastaro laburrak eta espezifikokoak nahiago ditugu	4,2	4,4
Beste ikastetxeekin esperientziak elkartrukatzea garrantzi handiko atala da zuzendaritza-taldeek prestakuntzan	4,1	4,2

- **Langileak kudeatzeko autonomia**

Kapitulu honen hasieran azaldu dugunez, analisiaren ikuspegi guztietatik, ikastetxe publikoek alor honetan dute autonomia gutxien, oso nabarmenki.

Erlazio zuzena dago eskariaren eta diagnostikatutako defizitaren muntaren artean, eta, alde horretatik, zuzendaritza-taldeek eskaerak ikastetxeetako proiektuen garapena errazten jartzen dute arreta.

**Ikastetxeen eskumenak langileak kudeatzeko. Euskadi. ZAB (2009) (1 eta 5 arteko eskala).**

	2000	2009
Ikastetxeak, bere proiektu berezien arabera, zenbait lanposturen ezaugarri espezifikoak zehazteko parte hartzea izan beharko luke	4,2	4,5
Proiektu zehatzak betetzen dituzten ikastetxeek langile bereziak jasotzea premiazkoa da	4,5	4,6
Irakasle ez funtzionarioen egonkortasuna bermatzeko orduan, ikastetxearen iritzia kontuan hartuko da	3,9	4,4

- **Ikastetxea antolatzeako denbora-gabezia**

Azterlanak hartzen duen aldiaren ikuspegitik, ikastetxea antolatzeako denboran izan da gabezia edo atzerapenik nabarmenena 2000tik hona, irakaskuntzarako denborarekin gertatzen ez den bezala, eta koordinatzaileei, irakasle guztiei eta zuzendaritza-taldeei eragiten die. Langile eskasia nabarmenagoa da Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, ez baitute administrazio-lanetarako langilerik.

**Ikastetxea antolatzeako denbora. Euskadi. ZAB (2009) (1 eta 5 arteko eskala).**

	2000	2009
Koordinazio-kargudunei esleitutako denbora nahikoa da	3,2	2,7
Ikastetxeko irakasleek koordinaziorako duten denbora nahikoa da	3,3	2,7
Baliabide pertsonal nahikoa dugu proiektuak aurrera eramateko	--	2,0

- **Ikastetxeen kanpo-harremanak**

Ikastetxeek autonomia gutxi dutenez gero, Administrazioa da ikastetxeetan eragina duten erabaki askoren arduraduna. Alabaina, zuzendaritza-taldeen uste dute Administrazioak gutxi babesten dituela oro har, behera egin du elkarrekin hitz egiteko ahalmenak, eta Administrazioaren koordinazio eta plangintza urriari buruzkoak dira kritika nagusiak.

**Hezkuntza Administrazioarekiko harremanak. Euskadi. ZAB (2009) (1 eta 5 arteko eskala).**

	2000	2009
Hezkuntza Administrazioak babesa ematen dio ikastetxeko zuzendaritzari	--	2,9
Ikastetxeetan eragina duten gaietan Administrazioak zuzendaritza solaskide gisa hartzen du	3,3	2,9
Administrazioaren zerbitzu anitzek era koordinatuan luzatzen dizkiete beren eskaerak ikastetxeei	2,2	2,2
Hezkuntza Sailak proiektuak nahiko denboraz planteatzen ditu, oro har	--	2,3

Zuzendarien bileretan, Administrazioaren eta ikastetxeen arteko harremanak analizatu izan dituztenean, azaleratu izan da plangintza dela funtziorik eskasena. Ildo berean, Prospektikerrek 2007an Sailaren aginduz egin zuen analisiak (*Euskadiko ikastetxeen Etorkizunaren Analisia*) aipatzen zuen, finantzazioarekin batera, plangintza zela gure hezkuntza-sistema eraldatzeko funtsezko bi faktoreetako bat.

Aitzitik, Administrazioaren zerbitzurik hurbilenekiko (Berritzeguneak eta Hezkuntza Ikuskaritza) harremanari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu ertaina edo pixka bat ona dela haiei buruzko iritzia. Hobetu egin da Berritzeguneei buruzko iritzia —hobea da Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan—, eta konfiantza handia ematen zaie zuzendaritza-taldeak aholkatzeko.

**Berritzeguneei eta Hezkuntza Ikuskaritzari buruzko iritzia. Euskadi. ZAB (2009) (1 eta 5 arteko eskala).**

	2000	2009
Ikastetxeak Berritzeguneekin duen harremana behar bezalako da	3,3	3,7
Berritzegunetik laguntza eta aholkularitza egokia jasotzen dugu zuzendaritza kontuetan	--	3,3
Berritzeguneei etengabeko aholkularitza eman behar diete zuzendaritza-taldee, eskarmentu handia duten pertsonen bidez	--	4,4
Ikuskaritzak ikastetxean daramatzagun proiektuen jarraipena egiten du	3,3	3,2
Ikuskaritzak laguntza eta aholkularitza ematen dio zuzendaritzari	--	3,6

### 3.2.5. Zuzendaritzari buruzko Azterlan Berriaren sei proposamenak

Azterlana sustatu duten lau erakundeek —tartean, Euskadiko Eskola Kontseiluak— eskatu diote Hezkuntza Administrazioari zuzendaritza-lana arautu dezan, lan erakargarriagoa eta profesionalagoa izan dadin. Horretarako, neurri hauek proposatu dituzte:

1. *Mota ezberdinetako pizgarrien politika arautzea eskola-zuzendaritza erakargarriagoa egiteko.* Gaurko egunean zuzendaritza-karguek jasotzen dituzten diru-pizgarriak ez datoz bat dagokien erantzukizunarekin eta ez dute konpentsatzen karguen zailtasuna nahiz ardura, eta Estatuko baxuenen artean kokatzen dira. Era berean, kargu hauei esleitzen zaien irakaskuntza orduetatik kanpoko liberazioa gehitzea ere aztertu beharreko kontua da.
2. *Eskola-zuzendaritzen eta Administrazioaren arteko harreman-estatusa hobetu behar da,* unitate eta zerbitzu anitzekin komunikatzeko garaian lehentasuna emanez, aldiari aldiari informazio-bilerak eginez eta zuzendari- nahiz ikastetxe-elkarteen rola indartuz.
3. *Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan administrazio-langileak jartzea.* Duela hamarkada bat Administrazio Kudeaketarako Arduraduna (AKA) lanpostua sortu zen hainbat ikastetxetan, irakasle-plantilaren kargura. Irtenbide hori, behin-behinekoa izanik, ez da aski ikastetxeetako beharrak asetzeko; ondorioz, zuzendaritza-taldeen, beren funtzio espezifikoak gauzatu beharrean, denboraren parte handi bat erabili behar dute kualifikazio handirik behar ez duen zeregin horietan.
4. *Prestakuntza-plana garatzea, jardunean ari diren zuzendaritza-talde guztiei zabaldua,* beraien kompetentzia-mailak hobetze aldera hainbat esparrutan:

planifikazioan, antolakuntzan, koordinazioan, ebaluazioan eta harremanen arloan. Plan hau formakuntza-modalitate ezberdinez osatuta egongo litzateke: ikastaro trinkoak eduki praktikoekin, aholkularitza eta esperientzien trukeak. Honen bidez, egun sakabanaturik dauden proiektuak bilduko dituzten ikastetxeko proiektu integralak sustatuko dira, ondoko bi ardatz nagusiekin:

- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen ikuspegi berria, oinarrizko hezkuntza-konpetentziak lantzea xede izango duena.
- Ebaluazioa, ikastetxeen aurrerabidea sustatuko duena hobekuntza-planen bidez.

5. *Ikastetxeetako baliabideei buruzko politika lantzea, alderdi hauek kontuan izango dituen:*

- *Ikasleen ezaugarri sozioekonomiko eta kulturalak*, ekitatearen printzipioari jarraituz.
- *Ikastetxeko hezkuntza-proiektua eta curriculum-proiektua*, antolakuntzan, kudeaketan eta hobekuntza pedagogikoan bere autonomia garatzeko bideratuta eta, era berean, irakasleen inplikazioa bermatzen duena.

Administrazioak irakasleen lanaldia arautuko du, haiek eskolak eman eta, aldi berean, beste eginkizunak nahikotasunez gauzatu ahal ditzaten, hala nola: irakasleen prestakuntza eta elkarlana, ikasleen tutoretza eta harremana familiekin.

Era berean, Administrazioak ikaskuntzarako baliabide digitalak eskaini behar ditu, hala nola administrazio-kudeaketarako aplikazio informatiko integrala, hau guzti hau, zuzendaritza-lanaren eraginkortasun handiagoa eta irakasleen berrikuntza metodologikoa lortzearren.

6. *Hezkuntza Ikuskaritzak ikastetxeei aholkuak eman eta ikastetxeen jarduna ebaluatzeko konpetentziak garatzea*, bai eta zuzendaritza-taldeek aholkularitzan Berritzeguneen ekimenak bateratzea ere.

### 3.3. Ikastetxeen zuzendaritza ELGEko herrialdeetan

---

Labur-labur, ELGEk 2009an egindako azterketa azalduko dugu: "Eskolako lidergoa hobetzea". Bi liburukik osatzen dute, eta hauek dira haien izenburuak: *Politika eta jardunbidea* eta *Sistemaren lidergoaren inguruko kasu praktikoak*.

ELGEko kide diren 19 estatutako 22 herrialdek emandako txostenak biltzen eta bateratzen ditu azterketa horrek, baita 22 herrialde horietako 5etan (taulan azpimarratuta daudenetan) landu dituzten esperientziak ere.

Azterketan parte hartu duten herrialdeak	Azterketan parte hartu ez duten herrialdeak
Australia (besteak beste, Victoria), Austria, Belgika (Flandria eta frantses komunitatea), Danimarka, Erresuma Batua (Eskozia, Ingalaterra eta Ipar Irlanda), Eslovenia, Espainia, Finlandia, Frantzia, Herbehereak, Hungaria, Irlanda, Israel, Korea, Norvegia, Portugal, Suedia, Txile eta Zeelanda Berria.	Alemania, Kanada, Txekia, Eslovakia, Ameriketako Estatu Batuak, Grezia, Islandia, Italia, Japonia, Luxenburgo, Mexiko, Polonia, Suitza eta Turkia

## I. liburukia: *Politika eta jardunbidea*

Sarrera bat eta lau ekintza-ildo biltzen ditu.

*Zergatik da garrantzitsua eskolako lidergoa?* da sarreraren izenburua, eta zuzendaritza-lanaren 3 ezaugarri aipatzen ditu:

### a) Eskolako emaitzetan eragina du

Eskolako lidergoa hezkuntza-politikaren lehentasun bihurtu da nazioartean. Erabakigarria da eskolako emaitzak hobetzeko, irakasleen motibazioan eta gaitasunetan eragina duelako, baita eskolako giroan eta ingurunean ere. Eskolako lidergo eraginkorra halabarrezkoa da hezkuntzaren eraginkortasuna eta ekitatea areagotzeko.

### b) Gero eta konplexuagoa da

Gero eta gehiago, ELGEko herrialde guztietan eskolako lider izateak zailtasun handiko jarduerak eskatzen ditu, hala nola finantza-administrazioan, giza baliabideen kudeaketan eta ikaskuntzarako lidergoan.

### c) Gero eta erakarmen txikiagoa du

Herrialde askotan, lan-zama astunak dituzte zuzendariak. Erretiroa hartzeko adinetik hurbil daude asko, eta gero eta zailagoa da eurak ordezkatzeko. Maiz, hautagai posibleek zalantza egiten dute kargua eskatzeko, funtzio estugarriak bete behar dituztelako, prestakuntza eta gaitasuna nahikoak ez direlako, gora egiteko aukera mugatuak dituztelako eta ordainsariak eta babesa desegokiak direlako.

ELGEko herrialdeetako egoeraren diagnostiko azkar hori bat dator Euskadiko egoeraren ezaugarriekin, b) eta c) ezaugarriei dagokienez bereziki, eta gradu-kontua da batzuen eta bestearen arteko desberdintasuna: esaterako, nazioartean, “maiz, hautagai posibleek zalantza egiten dute kargua eskatzeko”; gurean, berriz, “ia beti, hautagai posibleak saiatzen dira kargua ez eskatzen”.

Lehenengo atalari dagokionez, zuzendaritza-lanaren ondorio bat da, eragina duela eskolako emaitzetan, zeharka bada ere: “irakasleen motibazioan eta gaitasunetan eragina duelako, baita eskolako giroan eta ingurunean ere”. Alde horretatik, ez dago inolako kontraesanik zuzendaritza eraginkorra duten ikastetxeei buruz gurean dugun iritziarekin. Beharrezkoa da eraginkortasun-printzipio hori nahi dugun zuzendaritza eta lidergo erraztuko dituen politika bati aplikatzea.

Lau ekintza-ardatz nagusi bereizi ditu ELGEk, guztiek batera zuzendaritza edo eskolako lidergoa hobetu dezaketenak:

#### 1. ardatza: Eskolako lidergoaren erantzukizunak (berriz) zehaztea

Eskolako lidergoaren erantzukizunak zehazteko, irakaskuntza eta ikaskuntza hobetzeko aukera gehien ematen duten jardunbideak hartu behar ditugu kontuan. Hori dela eta, hezkuntza-politiken arduradunek proposatzen dituzten neurriek hiru alor hauetan jarri beharko lukete arreta lidergoa sendotzen:

- a) **Autonomia handiagoa ematen eta horretarako laguntza egokia ematen.**
- b) **Eskolako lidergoaren erantzukizunak berriz zehazten, ikasleen ikaskuntza hobea izateko.** Alde horretatik, lau esparru nagusi bereizten dira eskolako lidergoaren erantzukizunean:
  - Irakaskuntzaren kalitatea babestea, ebaluatzea eta garatzea.
  - Helburuak finkatzea, ebaluazioa eta kontu ematea.
  - Finantza-administrazio estrategikoa eta giza baliabideen kudeaketa.
  - Beste eskola batzuekiko elkarlana. Eskolako liderren beren eginkizun espezifikoak izan behar du lidergoaren alderdi berri horrek.
- c) **Politika eta jardunbide hobetuetarako lidergo-esparruak sortzen.**

Ikastetxeen zuzendaritzan lan egiten duten pertsonak laguntzeko, babesteko eta lanbidean garatzeko sareak izan behar dute esparruok.

Eskolako lider eraginkorren ezaugarriei, egitekoei eta erantzukizunei buruzko orientazioa eman dezakete esparruok, eta nabarmendu behar da ikaskuntzarako lidergoa dela eskolako lidergoaren funtsezko izaera. Halaber, eskolako liderrak etengabeki aukeratzeko, gaitzeko eta ebaluatzeko oinarria izan daitezke esparruok. Argi eta garbi, eskolako liderren erantzukizun-arlo nagusiak zehaztu behar dira, eta tokiko eta eskolako irizpideak testuinguruan kokatzeari bide eman behar diote esparruok. Profesionalen parte-hartzeaz landu behar dira.

Lehenengo begiratuan, Euskadiren ikuspegitik, zera esan beharra dago lehen ardatzeko proposamenei buruz:

- Azterketak nabarmentzen duenez, planteamendu berritzailea da zuzendaritzanaren arloan ikastetxeen kanpo-dimentsioaren bultzada (azken bi proposamenak). Euskadin baditugu esperientzia pedagogikoen edo, oro har, zuzendaritza-lanaren inguruan egituratutako ikastetxe-sareak.
- Gurean, ikastetxeko kide anitzeko organoen (OOG edo klaustroa) esku daude azterketa horrek zuzendaritzari egokitzen dizkion hainbat eginkizun eskola-planen diseinuari dagokionez.
- Zuzendaritzak irakasleak ebaluatzeko funtzioa ez dugu garatu gurean, baina komenigarria litzateke.
- Finantza-administrazio estrategikoaren funtzioak gainditu egiten ditu gure ikastetxeen kudeaketa-eskuduntza errealak.

- Adostasuna dago autonomia handiagoa emateko eta horretarako laguntza egokia emateko helburuarekin.

## 2. ardatza: Eskolako lidergoa banatzea

ELGEren diagnostikoaren arabera, profesionalek uste dute erdi-mailako karguek erantzukizuna izatea ezinbestekoa dela eskolako lidergoa eraginkorra izateko, baina praktika hori ohiz kanpoko da oraindik ere, eta, maiz, ez daude argi. ELGEren ustez, eskolako lidergoaren kontzeptua beste esparru batzuetara zabaldu behar dute hezkuntza-politikaren arduradunek eta esparru berri horretara egokitu behar dituzte politika eta lan-baldintzak. Horretarako, hiru neurri proposatzen ditu:

### a) Lidergoa banatzera bultzatzea

Lidergoa pertsonen eta antolaketa-egituren artean banatzeak laguntzen du egungo eskolek dituzten erronkak gainditzeko eta eskolako eraginkortasuna hobetzen.

### b) Lidergoaren banaketa erraztea

Beharrezkoa da lidergo taldeen kontzeptua testuinguru nazionaletan sendotzea, eta lidergoaren prestakuntza eta garapena erdi-mailako karguetara eta eskolako etorkizuneko lider posibleengana hedatzea.

### c) Eskola-kontseiluei euren jardueran laguntzea

Berebiziko garrantzia du eskola-kontseiluen funtzioak eta erantzukizunak argitzeak eta kontseiluen helburuen eta kontseilukideen abilezien eta esperientziaren arteko koherentzia ziurtatzeak.

Euskadiren ikuspegitik, zera nabarmendu beharra dago neurri orokorri buruz:

- Gurean, batez beste, ELGEren azterketan parte hartu duten herrialdeetan baino banatuago dago lidergoa ikastetxeen barnean. Izan ere, Espainiako hezkuntza-sisteman eta, horrenbestez, Euskadikoan, kide anitzeko organoak ditugu, hala nola zuzendaritza-taldea eta koordinazio pedagogikoko batzordea, eginkizunak banatzeko. Zailtasunak daude, ordea, horiek beren gain hartzeko prest dauden pertsonak aurkitzeko.
- Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen aldaketaren harira jardun dugu ikastetxeko eskola-kontseiluaren eta zuzendariaren eskumenen arteko koherentziaz. Ez dakigu zenbat ikastetxek duten planik eskola-kontseiluko kideak gaitzeko beren lana hobeto egin dezaten.

## 3. ardatza: Eskolako lidergoa eraginkorra izateko abileziak garatzea

Eskolako liderrek prestakuntza espezifiko behar dute gero eta eginkizun eta erantzukizun gehiago izateari erantzuteko, eta horretarako estrategiek eskolako emaitzak hobetzearekin lotutako abileziak garatzen eta sendotzen jarri behar dute arreta. Ildo horretan, hiru estrategia aipatzen ditu azterketak:



**a) Lidergoaren garapena sekuentziazat hartzea**

Beharrezkoa da prozesu formalak eta informalak konbinatzea lidergoaren praktikan etapa guztietan eta lidergoa gauzatzeko testuinguruetan:

- Lidergoari buruzko hasierako prestakuntza sustatzea

Programa nazionalak sor ditzakete gobernuek, tokiko gobernuekin elkarlanean jardun dezakete eta pizgarriak sor ditzakete, eskolako liderrek parte hartu egiten dutela ziurtatzeko. Bestalde, ahalegina egin behar da, lider egokiak aurkitzeko.

- Indukzio-programak antolatzea

Zuzendariak beren kezkak elkarri jakinarazteko eta zailtasunak analizatzeko sareak osatzen dituzte, eta bereziki baliagarriak dira eskolako lidergoaren hasierako jardunbideak prestatzeko eta taxutzeko.

- Zuzendaritzan dihardutenei etengabeko prestakuntza ematea

Aldizka-aldizka, etengabeko prestakuntza behar dute zuzendariak eta zuzendaritza-taldeek, beren gaitasunak eguneratzeko eta aurrerapen berrien jakitun izateko. Sareek ere (birtualek edo errealek) ematen dute prestakuntza, informala bada ere.

**b) Erakundeek ematen dituzten zerbitzuen arteko koherentzia ziurtatzea**

Hornitzaile askok eta askotarikoek erantzuten diete eskolako liderren prestakuntza-beharrei, baina koherenteagoa izan behar du ematen duten prestakuntzak. Hori dela eta, arauak, ebaluazioak eta beste mekanismo batzuk dituzte gobernu askok, programen kalitatea ikuskatzeko eta arautzeko.

**c) Prestakuntza eraginkorra izateko behar adinako aniztasuna ziurtatzea**

Euskadiko ikuspegitik, ELGEren esparruan ematen duten prestakuntzaren eskaintza gure esperientzia baino askoz ere zabalagoa da, bai aitortzaren aldetik, bai prestakuntzaren kantitatearen eta kalitatearen aldetik. Izan ere, azken urteotan, ikastaro laburrak eskaini izan dizkiote zuzendari-talde mugatu bati, besterik ez.

Ikastaro horietako programaren edukiei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu, hasierako prestakuntza-programa orokor bat lantzeko denbora-ekasiala kontuan hartuz, programek erabiltzen dituzten prozeduren helburua ezagutzak transmititzea dela, parte-hartzaileak zuzendaritzarako gaitasun profesionalak erabiltzen pixkanaka trebatzea baino gehiago.

Garai batean, egin ziren hasierako prestakuntza-ikastaro luzeek orientazio aktiboa zuten eta, hurrengo fase praktikoa batean, beren ikastetxeko antolakuntzaren alderdi bat hobetzeko proiektu txiki bat prestatzen zuten zuzendaritza-taldeek. Laguntza-sare informalak sortu ziren hartara. Egun, Sarean eta BIHE elkarteek betetzen dute nagusiki esperientzia elkartrukatzearen bidez hobetzeko eginkizuna. Ildo berean, eskola-barrutien esparruan, sare-aholkularitza emateko lana egiten dute Berritzeguneek.

#### 4. ardatza: Eskolako lidergoa lanbide erakargarri bihurtzea

Errendimendu handiko eskolako liderrak erakartzeko, biltzeko eta babesteko estrategien artean ondokoak daude:

##### a) Aukeraketa profesionalizatzea

Eskolen parte-hartzea oinarrizkoa da zuzendariak aukeratzeko jardunbideak testuinguruan kokatzeko, baina beharrezkoa da maila sistemikoan aritzea, hautagaiak biltzeko irizpideak eta prozedurak eraginkorrak, gardenak eta koherenteak direla ziurtatzeko. Bestalde, zabalagoak izan behar dute aukeraketa-irizpideek, antzinatearen garrantzia txikiagotzeko eta, hartara, prestakuntza ezberdineko hautagai gazte eta dinamikoagoak erakartzeko. Azkenik, aukeraketa egiteko izapideek ez dute mugatu behar lan-elkarrizketa tradizioaletara.

##### b) Eskolako liderren soldatak parekatzea

Beharrezkoa da ikastetxeetako zuzendaritzako langileen ordainsariak eta sektore publikoan eta pribatuan maila analogoko eginkizuna betetzen dutenenak konparatzeko modukoak izan daitezen. Izan ere, maisu-maistrek eta zuzendariak soldata-maila ezberdina izateak irakasleen arteko hautagai gehiago erakar ditzake.

##### c) Eskolako liderren elkarte profesionalen eginkizuna aitortzea

Batetik, profesionalen artean eta, bestetik, profesionalen eta hezkuntza-politikak egiteko arduradunen artean elkarrizketa izateko, jakintza elkarri helarazteko eta jardunbiderik eraginkorrenak ezagutarazteko guneak dira eskolako liderren elkarte profesionalak. Oso litekeena da aldaketek arrakastarik ez izatea, eskolako liderrek modu aktiboan parte hartzen ez badute politikak garatzen eta ezartzen, ordezkatzen dituzten elkartearen bitartez.

##### d) Lanbidean gora egiteko aukerak eta laguntza ematea

Eskolako liderrei lanbidean gora egiteko aukerak eta babesa eskaintzeak lagundu dezakete zuzendariak aki ez daitezen eta eskolako lidergoa aukera profesional erakargarriagoa izan dadin. Halaber, eskubidea eman beharko litzaieke zuzendariak lan egiteko aukera berriak izateko, hala nola Hezkuntza administrazioaren lanpostu batean aritzeko.

Euskadiko ikastetxeen ikuspegitik, zera nabarmendu beharra dago aipatutako lau estrategiei buruz:

- Aukeraketa profesionalizatzeko lehen urratsak egin dira, eta, kontuan izanik hain hautagai gutxi dagoela, ez dago zertan bortxatu.
- Euskadiko zuzendaritza-kargudunen ordainsariak beheko aldean daude Estatuko zerrendan, eta, era berean, Estatua beheko aldean dago ELGEko zerrendan. Nazioarteko esparru erkidean egiten den edozein eskarik gure esparruko eskari oro gaindituko du.
- Euskadin, eskolako liderren elkarte profesionalen eginkizunaren aitortza-mailak ez du batere zerikusirik ELGEren helburuarekin.
- Hezkuntza Administrazioaren (hala nola Hezkuntza Ikuskaritza) hainbat lanpostu betetzeko, baremoan era esanguratsuan baloratzen da jadanik zuzendaritza-lanetan aritu izana.

## II. liburukia: Sistemaren lidergoaren inguruko kasu praktikoak

---

Hainbat jardunbide berritzailetan jartzen du arreta azterketak, eskolako lidergoaren ikuspegi sistemikoaren adibide egokiak ematearren. Hain zuzen ere, Flandrian (Belgikan), Ingalaterran, Finlandian, Victorian (Australian) eta Austrian onartutako (edo sustatutako) metodo berritzaileak dira jardunbideok, eta emaitza onak ematen dituzten froga berriak ditugu.

Kasu praktikoak ELGEko langileen eta herrialde bakoitzeko hezkuntza-adituen ikerlanaren eta bisiten emaitza dira, eta hezkuntzako lidergoan autoritate diren bi adituen artikuluek osatzen dituzte: Harvardeko Hezkuntzako Unibertsitate Fakultateko Richard Elmorerenak eta Londresko Unibertsitateko Hezkuntza Institutuko David Hopkinsenak. Bisitatutako bost herrialdeak aukeratzeko arrazoia bi irizpide esanguratsu betetzen zituztela izan zen: batetik, eskola administratzeko eta antolatzeke eredu berriak probatuak zituzten, modu berritzailean banatzeko hezkuntza-lidergoari dagozkion eginkizunak, eta, bestetik, eskolako liderrak prestatzeko eta areago sustatzeko etorkizun handiko jardunbideak agertuak zituzten.

Hiru ezaugarri bereiz ditzakegu bost herrialde horietan landu dituzten jardunbide berritzaileen artean:

- a) Berrikuntzek sistema osoaren aurrerapenean jartzen dute arreta, eskolako liderrak elkarrekin lan egitera bultzatzen eta horretarako prestatzen baitituzte.
- b) Eskolako lider arrakastatsuak izan behar dute lehenik sistemaren liderrek.  
Eskolako lider arrakastatsu izateko funtsezko ezaugarri hauek hauteman zituzten ELGEko langileek eta hezkuntzako adituek: eskolan ikasleek ikaskuntza-maila handia izateari eusteko gaitasuna; eskolen arteko egokitasuna; malgutasunez lan egiteko bitartekari-lana egiten duten erakundeak; sistemaren lidergoa mugimendu bihurtzeko behar adinako masa kritikoa; eta sistema osoaren adostasun kulturala, eskolako liderrei lekua, zilegitasuna eta adorea emateko lankidetzajardueretan parte har dezaten. Zenbat eta horietako ezaugarri gehiago izan, orduan eta arrakasta handiagoa sistemaren lidergoa aplikatzen.
- c) Lidergo sistemikoak zuzendariengandik berengandik eta haiekin lan egiteko konpromisoa duten erakundeetatik sortu behar du, litekeena baita goitik beheranzko ikuspegiak arrakastarik ez izatea.

### 3.4. Balorazioak eta proposamenak

---

Datozen urteotan hobetu beharreko esparrurik esanguratsuenetako bat da Euskadiko ikastetxe publikoen zuzendaritza, bai ikastetxeetan bertan, bai Hezkuntza Administrazioan. Hori dela eta, Euskadiko Eskola Kontseiluak eskatu die parte hartzen duten alderdi guztiei konpontzeko borondatez hel diezaioten arazoari.

Beste erakunde batzuekin elkarlanean, gai honi buruzko ikerlan bat egin du Kontseiluak, *Zuzendaritzari buruzko Azterlan Berria (2009)* izenekoa, eta Sailari helarazi dio. Laburtuz, sei proposamen biltzen ditu azterlanak:

1. Eskola-zuzendaritza erakargarriago izan dadin mota ezberdinetako pizgarrien politika arautzea.
2. Eskola-zuzendaritzen eta Administrazioaren arteko harreman-estatusa hobetzea.
3. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan administrazio-langileak jartzea.
4. Prestakuntza-plana garatzea, jardunean ari diren zuzendaritza-talde guztiei zabaldua.
5. Ikastetxeetako baliabideei buruzko politika lantzea, bi alderdi hauek kontuan izango dituen: ikasleen ezaugarri sozioekonomiko eta kulturalak, eta ikastetxeko hezkuntza-proiektua eta curriculum-proiektua.
6. Hezkuntza Ikuskaritzak ikastetxeei aholkuak eman eta ikastetxeen jarduna ebaluatzeko dituen eginkizunak garatzea.

Bestalde, beste herrialde batzuetako ikastetxeen zuzendaritzaren egoera analizatzen badugu, ikusiko dugu arazo eta esperientzia komunak ditugula, eta gradua dela alde bakarra. Analisi hori gure hezkuntza-sistemak antolakuntzaren esparruan dituen gabeziak ikusteko ispilu ere bada, eta eskaera edo gomendio berriak egiteko bide ematen du:

7. LOEk zuzendaritza-lana ebaluatzeko ezartzen dituen sistemak garatzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko legediari eranstea lege horrek eskola-kontseiluari egozten dizkion eginkizun berriak.
8. Ikasleen eta irakasleen taldeak antolatzeko moduak lantzea, irakasleen arteko elkarlanari bide emateko.
9. Sarean eta BIHE elkarteek egiten duten lana aitortzea, Administrazioaren eta ikastetxeen bitartekari diren aldetik eta zuzendaritza-lanari buruz aholkatzeko eta hura hobetzeko tresna diren aldetik.
10. Ikastetxeen autonomia garatzea, errazago izateko ikasketa-proiektuak abian jartzea, eta, horretarako, lehenik, langileak kudeatzeko autonomia garatzea, horixe baita alorrik ahulena. Helburua da ikastetxeek lau auzitan parte har dezaten, gutxienez:
  - Postu jakin batzuei eskakizun espezifikoak ezartzen.
  - Proiektu jakin batzuekin lotutako langile osagarriez hornitzen.
  - Funtzionario ez diren irakasleen egonkortasuna bermatzen.
  - Ordezkatzeak kudeatzen.
11. Ikastetxeen antolakuntzari buruzko hurrengo azterketetan (besteak beste, TALIS proiektuaren bigarren zikloan) ELGERen aurrean kudeatzea Euskadiri

buruzko lagina izan dadin, ikasleen errendimenduari buruzko PISA azterketetan bezala, eta Euskadin ikerlan propioak egitea garrantzirik handieneko gaiei buruz.

Horietako neurriak hartzeko, beharrezkoa izango da proiektuak egiteko eta neurriak garatzeko denbora, baina beste neurri batzuk ezin atzeratuzkoak dira, adierazleek diotenarekin bat.

Epe motzean, 2009-2010 ikasturtea berezia da, hiru ikasturtez (2012-2013 ikasturtearen amaierara arte) egongo baitira karguan aurrerantzean zuzendaritzako karguren bat betetzen duten guztiak: bai borondatez aurkezten diren hautagaiak, bai Administrazioak behartuta izendatzen dituztenak. Izan ere, karguak urtero berritzeko sistema amaitu da, eta, hori dela eta, erantzukizun berri bati aurre egin behar diote ikastetxeek eta Hezkuntza Ikuskaritzak. Nola eusten dioten erantzukizun horri datozen hilabeteotan, horren araberakoak izango dira neurri handi batean ikastetxeek datozen urteotan lortzen dituzten emaitzak.

#### 4. kapitulua: HEZKUNTZA SISTEMAREN FINANTZAZIOA

##### Sarrera

Nazioarteko esparru osoan eta, bereziki, Euskadin, bi printzipiok gidatu dute hezkuntza-politika azken urteotan, etorkizunari begira: ekitatak eta kalitateak. Euskadiko Eskola Kontseilua bat dator erabat printzipio horiekin, eta kontuan hartzen saiatzen da txostenak eta irizpenak prestatzen dituenean.

Horiexek izan behar dute irizpideak erakunde publikoek ikastetxeei eman beharreko baliabideen izaria eta banaketa zehazteko. Batetik, ekitatearen printzipioa lotzen dugu gizartearen kohesioarekin eta aukera-berdintasunarekin, eta esan nahi du gehiago ematea gehiago behar duenari; ikastetxeen finantzazioari dagokionez, birbanatzeko politikak xedatzen du beharren arabekoak izan behar dutela baliabideek. Azken batean, ekitataren helburua da desberdintasunak orekatzea, ikasle guztiak oinarritzako hezkuntzako kompetentziak lor ditzaten eta beren gaitasunak guztiz gara ditzaten.

Bestetik, kalitatearen ikuspegitik, eskasa da ikastetxeetan eta hezkuntza-sistema kudeatzeko egituretan jazozen diren prozesuen formalizazioa eta haiei buruzko informazioa. Ikasleen ebaluazioa landu dugu gehien: nazioarteko proben bidez, lehenengo, eta ebaluazio diagnostikoaren bidez, ondoren.

Hezkuntza-arloko eragile guztiak hezkuntzako ikerketaren emaitzak arretaz aztertzeraz bultzatu nahi ditu Euskadiko Eskola Kontseiluak, eta emaitzok hobetzeko egiten duten lana egokituz.

Aurrekontuen esleipenaren esparruan, krisialdiak markatuta dago egungo testuingurua. Neurri batean edo bestean, munduko ekonomia guztietan izan du eragina krisiak, eta horrek eragina izan du, era berean, hezkuntza-sisteman askotariko eragina duten gizartearen arazoetan.

Etorkizunean modu aktiboan gizarteratzeko eta gizartean baztertuta gelditzeko arriskuari aurrea hartzeko bide bakarra da pertsonen prestakuntza hobetzea, behar bezala gara ditzaten hezkuntzako gaitasunak, lehenengo, eta lanbidekoak, gero.

Kalitate handiagoaz hain, kantitate handiagoa ere behar dugu. Jaiotzen hazkunde etengabearekin batera, gora egin du gazteak eta helduak prestatzeko eskariak: sumatu dugu langabe asko hezkuntza-sistemara itzultzen ari direla, beren gaitasun pertsonalak eta profesionalak hobetzera, eta horrek ere adierazten du bizitza osoan ikasten dugula, sistemaren erreferentziazko beste helburu bat. Gainera, hauek ere izan behar ditugu kontuan: *helduen hezkuntza* –zabaldutako egiten ari da argi eta garbi–, lanbidean hasteko Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren esparruko programak, musika-irakaskuntza, hizkuntza-irakaskuntza, arte-irakaskuntza... Gero eta gehiago

hazten ari dira horiek guztiak, kultura-mailan gora egiten ari den herrialde batean pentsatzekoa denez.

Laburbilduz, oro har, testuinguruko faktoreek eta, bereziki, gizartean eragina duen bitartean, krisialdi ekonomikoak behar berriak eta kalitate-maila handiagoaren beharra ekarri dituzte hezkuntza-sistemara, eta horrek esan nahi du finantzazioa handitu eta lanaren eraginkortasuna eta kudeaketaren gardentasuna hobetu beharra dagoela.

Txosten hau prestatzeko, funtsean, bi informazio-iturri erabili ditu Kontseiluak:

- a) *Irakaskuntzaren gastuari eta finantzaketari buruzko 2007ko estatistikak*, Eustatenak. Ikastetxe pribatuei eta publikoei buruzkoak dira irakaskuntzaren gastuari eta finantzazioari buruzko estatistikak, informazio bereizia eta ondo sailkatua ematen dute diru-sarrerei eta gastuei buruz, eta sareak konparatzeko eta sare bakoitzaren barne-bilakaera aztertzeke balio dute. Bi urtean behin argitaratzen dituzte, eta oso egokiak dira analisisa egiteko.
- b) Euskadiko 2007ko eta 2008ko aurrekontu orokorrak. Aurreko txostenean argitaratutako aurrekontuekin (2006koekin) alderatu ditugu, baina erabilitako aurrekontuen xehetasun-maila ez da nahikoa ondorioak ateratzeko –horri buruz hausnartuko dugu azken atalean, “Iruzkinak eta proposamenak” atalean–.

Iturri horiez gain, aurreko txosteneko (2005-2006 aldiko txosteneko) finantzazioari buruzko atalean egindako analisiak eta proposamenak ere hartu ditugu kontuan, eta txosten honetako 1. kapituluko hainbat ondoriori heldu diegu berriz.

#### **4.1. Irakaskuntzaren gastuari eta finantzazioari buruzko estatistikak**

---

Bi estatistikatan, ikastetxe publikoen eta pribatuen gastuak eta diru-sarrerak banatzen ditu Eustatek, eta irakaskuntza-sare bakoitzaren gastuak eta diru-sarrerak bereizten ditu, baita irakaskuntza-sare bakoitzaren barneko gelako eta ikasleko gastuak eta diru-sarrerak ere, hezkuntzako etapetan sailkatuta.

Hau da, ez du ematen sistema osoari buruzko daturik.

##### **4.1.1. Ikastetxeen gastua**

Ikastetxeen gastua ez da hezkuntzaren gastu guztien berdina, ikastetxeen gastutik kanpo baitaude sistema kudeatzeko eta ikastetxe guztiak ikuskatzeko eta berritzen laguntzeko gastuak, besteak beste. Nolanahi ere, gutxi gorabehera, gastu guztiaren %90ekoa da ikastetxeen gastua.

Ikastetxeen gastu osoaren %64,7 ikastetxe publikoei dagokie, eta gainerako %35,3a, pribatuei: 2 eta 1ekoa da proportzioa. Hala ere, kostuak zuzen konparatuko

baditugu, etapa berdinak hartu behar ditugu kontuan. Ondoko taulan ikusiko dugunez, sare publikoa askoz ere presenteago dago goi-mailako irakaskuntzan eta arte-irakaskuntzan; unibertsitate aurreko etapetan, berriz, aldea txikiagoa da.

**Irakaskuntzaren gastu osoaren banaketa 2007an, sareen eta hezkuntzako etapen arabera, ehunekotan eta mila eurotan.**

	<i>Ikastetxe guztiak</i>	<i>Ikastetxe publikoak</i>	<i>Ikastetxe pribatuak</i>
Guztira	2.611.423	%64,7	%35,3
Unibertsitate aurreko etapak (0 eta 19 urte bitartekoen hezkuntza)	2.071.610	%61,2	%38,8
Arte-irakaskuntza	91.751	%72,4	%27,6
Goi-mailako irakaskuntza	448.064	%79,4	%20,6
BPGren % (64.972 milioi euro)	%4,02	%2,60	%1,42

*Iturria: Eustat, Irakaskuntzaren gastuari buruzko estatistika, 2007.*

0 eta 19 urte bitartekoen hezkuntzan, gutxi gorabehera, sare publikoan dabil ikasleen erdia, eta sare pribatuan beste erdia, baina, beheko taulan ikusiko dugunez, gastuaren %61 ikastetxe publikoek sortu dute, eta %39 inguru pribatuak. Hau da, 3 eta 2koa da proportzioa, hasieran aipatutako 2 eta 1eko proportzioa (ikastetxe guztiena) baino txikiagoa.

Bestalde, gastu osoa gastu-moten arabera banatzen badugu, hainbat alde ikusiko ditugu sareen artean: batetik, ikastetxe publikoetan, gastu osoaren %77koak dira langileen gastuak, eta, ikastetxe pribatuetan, %71koak; bestetik, gastu orokorrak, amortizazio-gastuak eta zerbitzu osagarrien (jangelaren eta garraioaren) gastuak handiagoak dira ikastetxe pribatuetan.

**Unibertsitate aurreko mailetakoko irakaskuntzaren gastu osoaren banaketa 2007an, irakaskuntza-sareen eta gastu-moten arabera.**

	<i>Ikastetxe publikoak</i>		<i>Ikastetxe pribatuak</i>	
<b>Gastua, guztira</b>	1.267.160	%100,0	804.450	%100,0
• <b>Gastu arrunta</b>	1.174.011	%92,6	771.538	%95,9
o Irakaskuntzaren gastua	1.074.020	%84,8	690.477	%85,8
- Langileen gastua	980.196	%77,4	570.089	%70,9
- Gastu orokorrak	93.824	%7,4	94.145	%11,7
- Amortizazio-gastua	0	%0,0	26.243	%3,3
o Jarduera osagarrien gastua	10.063	%0,8	10.536	%1,3
o Zerbitzu osagarrien gastua	89.929	%7,1	70.525	%8,8
• <b>Kapital-gastua</b>	93.148	%7,4	32.912	%4,1

Oro har, ikastetxe publikoen gastua handiagoa da itunpekoena baino, bi faktore direla medio nagusiki. Alde batetik, askotariko udalerrietan kokatuta daude ikastetxe publikoak, eta kostuak handiagoak dira biztanleria txikia duten herrietan.



Beste alde batetik, langileen kostuak handiagoak dira ikastetxe publikoetan, batez ere, Haur Hezkuntzako 1. zikloan eta Bigarren Hezkuntza osoan. 2005-2006 aldiko txosteneko 4. kapituluak Bigarren Hezkuntzako langileen kostuen gainean argudiatzen zuenez, arrazoi bakarra du ia sareen finantzazioen arteko aldeak: irakasleen gelako ratioa handiagoa izatea ikastetxe publikoetan. Hainbat faktoreren mende dago ratioen arteko alde hori, eta sare bateko eta besteko eskola-orduen arteko aldea da nagusia. Hala ere, beste elementu batzuek ere dute eragina ikastetxe publikoetan: behar espezifikoak dituzten ikasle gehiago izateak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Lanbide Heziketako ekipamendua garestiagoa izateak eta abarrek.

**Irakaskuntzaren gastua\* unitateko eta ikasleko 2007an, hezkuntzako etapen eta sareen arabera, eurotan. Eustat.**

	Unitateko gastua			Ikasleko gastua		
	Ikastetxe publikoak	Ikastetxe pribatuak	Aldea (%)	Ikastetxe publikoak	Ikastetxe pribatuak	Aldea (%)
Haur Hezkuntza	88.408	63.631	-%28	5.669	3.424	-%40
Lehen Hezkuntza	75.879	78.020	%3	5.085	3.916	-%23
DBH	131.056	95.377	-%27	8.632	4.853	-%44
Batxilergoa	178.832	113.781	-%36	7.410	5.151	-%30
Lanbide Heziketa	148.803	92.809	-%38	11.150	5.874	-%47

(\*) Itunpeko ikastetxeetan, "kostua".

Gelako edo unitateko kostuen arteko aldeak ikusirik, hiru ondorio nagusi atera ditzakegu:

- Aldea bereziki esanguratsua da derrigorrezko hezkuntzaren ondoko hezkuntzan: itunpeko ikastetxeetan, %36 gutxiago kosta da Batxilergoko gela bat mantentzea, eta %38 gutxiago Lanbide Heziketako bat mantentzea.
- Haur Hezkuntzako aldea (%28koa) 1. zikloari (zehazki, 0 eta 2 urte bitarteko hezkuntzari) egotz diezaiokegu nagusiki, sare publikoko langileen ordainsariak eta profesionalen unitateko gutxieneko ratioa nahiko handiagoak baitira sare pribatukoak baino.
- Lehen Hezkuntza da salbuespena, itunpeko ikastetxeen kostua handixeagoa baita ikastetxe publikoena baino.

Ikasleko kostuen artean egiten badugu konparazioa, are handiagoa da aldea, ikastetxe publikoetako ikasleen gelako batez besteko ratioa txikiagoa delako itunpeko ikastetxeetako baino.

Gastuek aztertutako azken bi urteetan (2005 eta 2007 artean) izandako bilakaerari behatzen badiogu, Lanbide Heziketaren esparruan ikusiko dugu hazkunderik handiena, eta Haur Hezkuntzaren esparruan txikiena. Bestalde, sare publikoan, KPIren hazkunderik (%7tik) beherakoa izan da hazkundera, %2,6koa izan baita; aurreko bi urteetan ere sumatzen zen joera hori.

**Irakaskuntzaren unitateko eta ikasleko gastua\* bi sareetan 2005ean eta 2007an, hezkuntzako etapen arabera, eurotan. Eustat.**

	Etapa	Sare publikoa			Itunpeko sare pribatua		
		2005	2007	Δ 07/05	2005	2007	Δ 07/05
Irakaskuntzaren gastua ikasleko	Haur Hezkuntza	4.639	5.669	%22,2	3.051	3.424	%12,2
	Lehen Hezkuntza	4.956	5.085	%2,6	3.609	3.916	%8,5
	DBH	7.804	8.632	%10,6	4.352	4.853	%11,5
	Batxilergoa	6.305	7.410	%17,5	4.597	5.151	%12,0
	EMLH	9.890	11.115	%12,4	4.873	5.874	%20,5
	GMLH	8.920	11.189	%25,4			
	<b>Guztira</b>	<b>4.539</b>	<b>5.183</b>	<b>%14,2</b>	<b>3.777</b>	<b>4.157</b>	<b>%10,1</b>
Irakaskuntzaren gastua unitateko	Haur Hezkuntza	72.582	88.408	%21,8	57.882	63.631	%9,9
	Lehen Hezkuntza	71.995	75.879	%5,4	71.438	78.020	%9,2
	DBH	118.664	131.056	%10,4	87.353	95.377	%9,2
	Batxilergoa	159.356	178.832	%12,2	105.409	113.781	%7,9
	EMLH	134.018	140.698	%5,0	80.969	92.809	%14,6
	GMLH	132.871	156.908	%18,1	<b>75.509</b>	<b>83.319</b>	<b>%10,3</b>
	<b>Guztira</b>	<b>88.479</b>	<b>96.921</b>	<b>%9,5</b>			

(\*) Itunpeko ikastetxeetan, "kostua".

#### 4.1.2. Diru-sarrerak

Ikastetxe guztiak (tartean, unibertsitateko irakaskuntza eta arte-irakaskuntza ematen dutenak) kontuan hartuz, ikastetxe publikoen diru-sarreraren %86 erakunde publikoetatik dator, eta ikastetxe pribatuena %68. Kuotek, berriz, ikastetxe pribatuena diru-sarrera guztien %28,5 eratzen dute, baina ikastetxe publikoena %5 bakarrik. Azkenik, ikastetxe pribatuena diru-sarrera guztien %17 osatzen dute irakaskuntzaren kuotek, eta ikastetxe publikoena %2,6.

**Ikastetxe guztien diru-sarreraren banaketa, hezkuntzako sareen arabera, mila eurotan, eta sarrera-mota bakoitzaren ehunekoa diru-sarrera guztien aldean 2007an. Eustat.**

	<i>Sare publikoa</i>		<i>Sare pribatua</i>	
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	1.733.969	%100,0	905.660	%100,0
• <b>Diru-sarrera arruntak</b>	1.612.999	%93,0	894.477	%98,8
o Diru-laguntzak	1 491.083	%86,0	619.755	%68,4
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,..., Sailarenak eta beste sail batzuenak	1.356 557	%78,2	575.353	%63,5
- Tokiko administrazioarenak	101.605	%5,9	7.283	%0,8
- Beste diru-laguntza publiko batzuk	29.211	%1,7	6.947	%0,8
- Diru-laguntza pribatuak	3.711	%0,2	30.172	%3,3
o Kuotak	88.319	%5,1	257.792	%28,5
- Irakaskuntzarenak	45.266	%2,6	154.700	%17,1
- Jarduera osagarrienak	15	%0,0	26.404	%2,9
- Garraioarenak	0	%0,0	20.655	%2,3
- Jangelarenak	32.865	%1,9	49.187	%5,4
- Beste zerbitzu osagarri batzuenak	10.172	%0,6	6.845	%0,8
o Beste diru-sarrera batzuk	33.596	%1,9	16.930	%1,9
• <b>Kapital-sarrerak</b>	120.970	%7,0	11.183	%1,2
o Diru-laguntza publikoak	120.940	%7,0	9.233	%1,0
o Diru-laguntza pribatuak	31	%0,0	866	%0,1
o Beste diru-sarrera batzuk	0	%0,0	1.083	%0,1

Unibertsitatetik kanpoko etapei dagokienez, Eustatek ikastetxeak eta etapak sailkatzeko erabiltzen dituen irizpideek ez digute uzten sareak etapaz etapa konparatzen. Nolanahi ere, hona diru-sarreraren banaketa xehea unibertsitatetik kanpoko hezkuntzako etapetan:

**Ikastetxe pribatuen (derrigorrezko hezkuntzako etapen) eta ikastetxe publikoen (unibertsitatetik kanpoko etapen) diru-sarrerak 2007an, sarrera-moten arabera, mila eurotan. Eustat.**

	<i>Ikastetxe pribatuak</i>				<i>Ikastetxe publikoak</i>	
	<i>Lehen Hezkuntza</i>		<i>DBH</i>		<i>Unibertsitatetik kanpoko etapak</i>	
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	250.092	%100,0	221.894	%100,0	1.278.166	%100,0
• <b>Diru-sarrera arruntak</b>	247.954	%99,1	220.308	%99,3	1.182.836	%92,5
o Diru-laguntzak	180.667	%72,2	177.236	%79,9	1.130.112	%88,4
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza ,..., Sailarenak eta beste sail batzuenak	172.145	%68,8	169.270	%76,3	1.047.439	%81,9
- Tokiko administrazioarenak	1.491	%0,6	1.519	%0,7	72.983	%5,7
- Beste diru-laguntza publiko batzuk	692	%0,3	709	%0,3	8.569	%0,7
- Diru-laguntza pribatuak	6.340	%2,5	5.737	%2,6	700	%0,1
o Kuotak	63.635	%25,4	40.059	%18,1	50.065	%3,9
- Irakaskuntzarenak	24.060	%9,6	17.598	%7,9	10.149	%0,8
- Jarduera osagarrienak	8.330	%3,3	6.086	%2,7	2	%0,0
- Garraioarenak	8.571	%3,4	4.837	%2,2	0	%0,0
- Jangelarenak	20.188	%8,1	9.837	%4,4	32.865	%2,6
- Beste zerbitzu osagarri batzuenak	2.216	%0,9	1.701	%0,8	7.049	%0,5
o Beste diru-sarrera batzuk	3.921	%1,6	3.014	%1,4	2.659	%0,2
• <b>Kapital-sarrerak</b>	2.139	%0,9	1.586	%0,7	95.330	%7,5
o Diru-laguntza publikoak	1.809	%0,77	1.348	%0,6	95.330	%7,5
o Diru-laguntza pribatuak	117	%0,0	85	%0,0	0	%0,0
o Beste diru-sarrera batzuk	213	%0,1	153	%0,1	0	%0,0

Aurrekontu osoaren %80 osatzen dute itunpeko ikastetxeei ematen dizkieten diru-laguntza publikoek, eta %88 ikastetxe publikoei ematen dizkietenek. Bestalde, itunpeko ikastetxeetan, kuotak kobratzen dituzte derrigorrezko hezkuntzako etapetako irakaskuntzaren trukean, eta haien zenbatekoak %9,6 osatzen du Haur Hezkuntzan, eta %7,9 DBHn. Azkenik, itunpeko ikastetxeen diru-sarreraren %10 osatzen dute zerbitzu osagarriek (jangelak eta garraioak) eta jarduera osagarriek, eta ikastetxe publikoenen %4.

Itunpeko ikastetxeetako ikasle bakoitzeko diru-sarrerei dagokienez, batez beste, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleek 445 euro ordaintzen dute irakaskuntzaren trukean, ondoko taulan ikusiko dugunez:

**Ikastetxe publikoen eta ikastetxe pribatuen ikasle bakoitzeko diru-sarrerak 2007an, sarreramoten eta derrigorrezko hezkuntzako etapan arabera. Eustat.**

	<i>Ikastetxe publikoak</i>				<i>Ikastetxe pribatuak</i>			
	<i>Haur eta Lehen Hezkuntza</i>		<i>Bigarren Hezkuntza</i>		<i>Lehen Hezkuntza</i>		<i>DBH</i>	
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	5.667	%100,0	9.847	%100,0	4.543	100,0%	5.695	100,0
• <b>Diru-sarrera arruntak</b>	5.223	%92,2	9.156	%93,0	4.504	%99,1	5.655	%99,3
o Diru-laguntzak	4.858	%85,7	9.006	%91,5	3.343	%73,6	4.497	%79,0
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza,..., Sailarenak eta beste sail batzuenak	4.261	%75,2	8.817	%89,5	3.142	%69,2	4.240	%74,4
- Beste diru-laguntza publiko batzuk	593	%10,5	177	%1,8	84	%1,8	111	%1,9
- Diru-laguntza pribatuak	4	%0,1	11	%0,1	117	%2,6	146	%2,6
o Kuotak	354	%6,2	128	%1,3	1.088	%23,9	1.081	%19,0
- Irakaskuntzarenak	85	%1,5	0	%0,0	445	%9,8	447	%7,8
- Jarduera osagarrienak	0	%0,0	0	%0,0	154	%3,4	154	%2,7
- Zerbitzu osagarrienak	269	%5,1	134	%1,4	489	%10,8	481	%8,4
o Beste diru-sarrera batzuk	11	%0,2	22	%0,2	73	%1,6	77	%1,3
• <b>Kapital-sarrerak</b>	445	%7,8	692	%7,0	40	%0,9	40	%0,7

## 4.2. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurrekontuak

Atal honetan, Eusko Jaurlaritzak hezkuntzara bideratu dituen aurrekontuen bilakaera eta banaketa (programen, azpiprogramen eta kapituluaren arabera) aztertuko dugu eta, amaieran, hiru gai jakin jorratuko ditugu: hezkuntzako hitzarmenak, hezkuntzako sustapena eta azpiegiturak eta ekipamendua.

### 4.2.1. Hasierako aurrekontua eta erabilitakoa

2008an, guztira, 2.436 milioi eurokoa izan zen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren hasierako aurrekontua. Aurreko urtekoaren aldean, %8,1 hazi zen, baina Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak %13,7 hazi ziren batez beste, eta horrek esan nahi du aurrekontuko sail jakin batzuk nabarmenki gehiago hazi zirela hezkuntzako bano.


BPGren aldean, berriz, Eusko Jaurlaritzaren ekarpena pixka bat handitu zen: BPGren %3,42koa izan zen 2007an, eta %3,52koa, berriz, 2008an. Ez dugu beste administrazio batzuei buruzko daturik eta, hortaz, ezin dugu kalkulatu hezkuntzan egindako inbertsio publiko osoa. Eustatek ere 2001eko *Hezkuntzako kontuan* bakarrik argitaratu zuen datu hori. Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzaren ekarpena ikusirik, ziur gaude 2008ko hezkuntzako gastu publikoa ez zela izan BPGren %4koa ere –aurreko txostenak kalkulatu zuen %3,7koa izango zela 2006koa–.

**Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren hasierako aurrekontua, mila eurotan, eta urte batetik besterako hazkundera.**

	2006	2007	2008	Δ 07/06	Δ 08/07
<b>Euskadiko aurrekontua</b>	7.623.134	8.740.181	9.939.662	%14,7	%13,7
Hezkuntza Sailaren aurrekontua	2.063.488	2.252.705	2.435.667	%9,2	%8,1
Hezkuntza Sailaren aurrekontuaren % Eusko Jaurlaritzarenaren aldean	%27,1	%25,8	%24,5		
KPIren hazkundera Euskadin	%2,6	%4,2	%1,9		
Hezkuntzako aurrekontuaren % Euskadiko BPGren aldean		%3,42	%3,52		
Hezkuntzan erabilitako aurrekontuaren % Euskadiko BPGren aldean		%3,65	%3,74		

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu orokorren aldean, hezkuntzako aurrekontua %2 baino gehiago jaitsi da azken bi urteotan.

**Eusko Jaurlaritzak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera bideratutako aurrekontu osoaren ehunekoaren bilakaera.**



Hasierako aurrekontuaren aldean, %6 handiagoa da gastu erreala edo erabilitako aurrekontua.

**Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurrekontuaren erabileraren bilakaera 2004 eta 2008 artean, mila eurotan.**

	2004	2005	2006	2007	2008
<b>Prestatutako aurrekontua</b>	1.775.228	1.907.481	2.071.760	2.252.705	2.435.667
Erabilitako aurrekontua	1.890.104	2.029.080	2.140.383	2.403.160	2.589.172
Erabilitakoaren %	%106,5	%106,4	%103,3	%106,1	%106,3

**4.2.2. Aurrekontuen banaketa, kapituluaren arabera**

Euskadiko 2007ko aurrekontu orokorren esparruan, hau izan zen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren hasierako aurrekontua, kapituluaren arabera sailkatuta:

**Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren hasierako aurrekontuaren urte batetik besterako bilakaera, kapituluaren arabera, mila eurotan.**

Kapitulua		2006	2007	2008	Δ 07/06	Δ 08/07
1	Langileen gastuak	922.639	989.184	1.055.804	%7,2	%6,7
2	Funtzionamendu-gastuak	112.006	132.542	151.138	%18,3	%14,0
4	Diru-laguntza arruntak	891.108	992.090	1.074.610	%11,3	%8,3
6	Inbertsioak ikastetxe publikoetan	83.043	88.126	91.295	%6,1	%3,6
7	Kapital-laguntzak	58.155	58.714	67.012	%1,0	%14,1
8	Langileen aurrerakinak eta maileguak	4.808	4.808	4.808	%0,0	%0,0
Guztira		2.071.760	2.265.464	2.444.667	%9,3	%7,9


Batez beste baino gehiago hazi dira funtzionamendu-gastuak eta diru-laguntza arruntak (2. eta 4. kapituluak). Zehazki, hau da erabilitako aurrekontuaren banaketa:

**Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erabilitako aurrekontuaren urte batetik besterako bilakaera, kapituluaren arabera, mila eurotan.**

Kapitulua		2006	2007	2008	Δ 07/06	Δ 08/07
1	Langileen gastuak	960.314	1.050.560	1.136.388	%9,4	%8,2
2	Funtzionamendu-gastuak	159.385	183.883	205.915	%15,4	%12,0
3	Gastu finantzarioak	264	229	126	-%13,3	-%45,0
4	Diru-laguntza arruntak	903.501	1.028.674	1.089.191	%13,9	%5,9
6	Inbertsioak ikastetxe publikoetan	67.723	71.890	93.343	%6,2	%29,8
7	Kapital-laguntzak	45.335	64.834	61.344	%43,0	-%5,4
8	Langileen aurrerakinak eta maileguak	3.860	3.091	2.864	-%19,9	-%7,3
Guztira		2.140.383	2.403.160	2.589.172	%12,3	%7,7

Ondoko grafikoak garbi erakusten duenez, aurrekontuaren %80 inguru osatzen dute Hezkuntza Administrazioaren zerbitzura dauden langileen gastuak eta diru-laguntza arruntek (1. eta 4. kapituluek). Bestalde, funtzionamendu-gastuak (2. kapitulua) hazi dira gehien.

**Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren hasierako aurrekontuaren urte batetik besterako bilakaera 2004 eta 2006 artean, kapituluaren arabera, milioi eurotan.**



#### 4.2.3. Aurrekontuen banaketa, programen arabera

Aurrekontua programen arabera banatuta, gastuaren helburuen ikuspegi funtzionala izan dezakegu.

Aztertutako aldiari, aldaketak izan dira aurrekontuaren programen arabera banaketan. Batetik, *Helduen hezkuntza* azpiprograma *Araubide bereziko irakaskuntzak* programatik atera eta programa berri batean sartu da: *Etengabeko ikaskuntza eta helduen hezkuntza* programan.

**Ekitaldiaren amaierarako erabilitako aurrekontuaren banaketaren urte batetik besterako bilakaera, programen arabera, mila eurotan.**

Programa	2006	2007	2008	Δ 07/06	Δ 08/07
Egitura eta laguntza	41.061	48.293	60.067	%17,6	%24,4
Haur eta Lehen Hezkuntza	760.166	848.251	934.102	%11,6	%10,1
Bigarren Hezkuntza, Osabidezkoa eta Lanbide Hez.	840.599	878.533	934.335	%4,5	%6,4
Unibertsitateko irakaskuntza	261.965	321.047	329.661	%22,6	%2,7
Araubide bereziko irakaskuntzak	72.188	53.913	56.224	-%25,3	%4,3
Etengabeko ikaskuntza eta helduen hezkuntza		68.027	73.112		%7,5
Hezkuntza berritzea eta irakasleak etengabe prestatzea	26.713	37.436	39.303	%40,1	%5,0
Hezkuntza-sustapena	85.535	94.773	102.372	%10,8	%8,0
Hezkuntza-sistemaren euskalduntzea	30.985	31.163	32.719	%0,6	%5,0
Informazio-gizartea	4.878				
Ikerketa	16.292	21.723	25.377	%33,3	%16,8
BERC* zentroyen azpiegiturak eta egiturak			1.900		
Guztira	2.140.383	2.403.160	2.589.172	%12,3	%7,7

\*Oinarritzko ikerkuntza- eta bikaintasun-zentroak

Bestetik, 2007ko ekitaldian, *Etengabeko ikaskuntza* azpiprograma sortu zen; aurreko ekitaldian, *Lanbide Heziketa* programaren barnean sartzen zituzten haren kredituak.

Bi aldaketok zuzeneko eragina izan dute aurreko taulako aurrekontuaren (programen arabera aurrekontuaren) bilakaeran, aldaketa handiak izan baitira *Araubide orokorreko irakaskuntzak* programan –aurrekontua %25 txikiagotu zen 2007an– eta *Hezkuntza berritzea eta irakasleak etengabe prestatzea* programan –aurrekontua %45 hazi da bi urtean–. Ildo berean, *Egitura eta laguntza* eta *Ikerketa* programak nabarmenki hazi dira 2006 eta 2008 artean: hurrenez hurren, %42 eta %50.

#### 4.2.4. Programen helburuak eta azpiprogramen arabera banaketa

- **Egitura eta laguntza**

Programaren helburua da Hezkuntza Administrazioaren egitura eta funtzionamendu arrunta (nagusiki, langileen gastuak eta mantentze-gastuak) finantzatzea. Azken hiru urteotan, hirukoiztu egin da aplikazio informatikoetarako aurrekontua.



**Egitura eta laguntza programarako aurrekontuaren erabilera, mila eurotan.**

	2006	2007	2008	Δ 07/06	Δ 08/07
Erabilitakoa, guztira	41.061	48.293	60.067	%17,6	%24,4
Erabileraren %	%104,7	%102,8	%113,1		

- **Haur eta Lehen Hezkuntza**

Azken urteotan, helburu hauek erakarri dute bereziki finantzazioaren arreta: Haur Hezkuntzako 1. zikloak eta ikasle etorkinentzako laguntzak. Bestalde, eskolako biztanleria programa hau osatzen duten etapetan hazi da gehien, jaiotzak haztearen ondorioz, eta, hori dela eta, etapa hauetako aurrekontua gehiago hazi da Bigarren Hezkuntzako eta unibertsitateko irakaskuntzako baino. Hala ere, behin eta berriz, behar baino nabarmenki txikiagoak dira hasierako aurrekontuak programa honetara bideratzen dituen zenbatekoak, eta horren adierazgarri da erabilitako aurrekontua %14 handiagoa izatea hasierako baino –batez besteko aldea %6koa da–.

**Haur eta Lehen Hezkuntza programarako aurrekontuaren erabilera, mila eurotan.**

	2006	2007	2008	Δ 07/06	Δ 08/07
Erabilitakoa, guztira	760.166	848.251	934.102	%11,6	%10,1
Erabileraren %	%112,0	%112,9	%114,6		

- **Bigarren Hezkuntza, osabidezkoa eta Lanbide Heziketa**

DBHn, aniztasunari erantzutearen ingurukoak dira helbururik bereizgarrienak: orientabidea, curriculum-aniztasuna eta hezkuntza indartzea. Lanbide Heziketan, berriz, aipagarriak dira *Kalitatea kudeatzeko sistemak* eta *Euskal Erkidegoko Koalifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema Integratua*.

**Bigarren Hezkuntza, osabidezkoa eta Lanbide Heziketa programarako eta programaren barneko azpiprogrametarako aurrekontuaren erabilera, mila eurotan.**

	2006	2007	2008	Δ 07/06	Δ 08/07
DBH	273.034	282.937	299.343	%3,6	%5,8
Batxilergoa	295.622	314.970	335.237	%6,5	%6,4
Lanbide Heziketa	260.077	266.479	283.862	%2,5	%6,5
Beste sail batzuk	49	147	140		
Erabilitakoa, guztira	840.599	878.533	934.335	%4,5	%6,4
Erabileraren %	%103,4	%104,5	%104,3		

- **Araubide bereziko irakaskuntzak**

Programa honen aurrekontua ere hazi da batez beste baino gehiago. Bestalde, musika-irakaskuntzaren esparruan, Goi Mailako Musika Ikastegia sortu da, eta, hizkuntza-irakaskuntzaren esparruan, hizkuntza-eskola ofizialetan, eskaintza handitu dute.

**Araubide bereziko irakaskuntzak programarako eta programaren barneko azpiprogrametarako aurrekontuaren erabilera, mila eurotan.**

	2006	2007	2008	$\Delta$ 07/06	$\Delta$ 08/07
Arte-irakaskuntza (arte- eta musika-irakaskuntza)	30.152	34.610	35.015	%14,8	%1,2
Hizkuntza-irakaskuntza	15.493	19.302	21.210	%24,6	%9,9
Erabilitakoa, guztira	45.645	53.913	56.224	%18,1	%4,3
Erabileraren %	%115,1	%112,7	%107,2		

- **Etengabeko ikaskuntza eta helduen hezkuntza**

Erabilitako aurrekontua askoz ere handiagoa da hasierakoa baino, aurrekontua hainbat azpiprogrametarako esleipenean izandako aldaketetara egokitu ez izanaren ondorioz. Bestalde, programa hau zabaldu egiten ari da argi eta garbi.

	2007	2008	$\Delta$ 08/07
Etengabeko ikaskuntza	34.172	36.884	%7,9
Helduen hezkuntza	33.855	36.228	%7,0
Erabilitakoa, guztira	68.027	73.112	%7,5
Erabileraren %	%155,3	%160,2	--

- **Hezkuntza berritzea eta irakasleak etengabe prestatzea**

Hezkuntzaren bi alor nagusi biltzen ditu programa honek: hezkuntza-sistema (irakasleak eta ikastetxeak) berritzea, hezkuntza berritzeko eta ikertzeko proiektuen bidez, eta irakasleak prestatzea, irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko.

**Hezkuntza berritzea eta irakasleak etengabe prestatzea programarako eta programaren barneko azpiprogrametarako aurrekontuaren erabilera, mila eurotan.**

	2006	2007	2008	$\Delta$ 07/06	$\Delta$ 08/07
Irakasleak etengabe prestatzea	6.182	10.977	10.843	%77,6	-%1,2
Laguntza-zerbitzuak (ISEI eta Berritzeguneak)	20.531	26.458	28.460	%28,9	%7,6
Erabilitakoa, guztira	26.717	37.436	39.303	%40,1	%5,0
Erabileraren %	%77,3	%93,9	%98,1		

- **Hezkuntza-sustapena**

Programaren helburua da gizarteko berdintasunik eza arintzeko eta hezkuntza-sisteman sartzeko aukera emateko jarduerak sustatzea, eta, ildo horretan, hauek dira jarduera nagusiak: unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzarako bekak eta laguntzak, eta ikastetxe publikoetako garraioaren finantzazioa eta jangelak erabiltzeko laguntzak. Bada beste sail txikiago bat, gurasoek elkarrean, federazioen eta konfederazioen bidez parte hartzea sustatzekoa. Nolanahi ere, txikia da aurrekontuaren erabilera, %80tik beherakoa.

**Hezkuntza-sustapena programarako aurrekontuaren erabilera, mila eurotan.**

	2006	2007	2008	Δ 07/06	Δ 08/07
Garraioa eta jangela	34.977	36.157	38.900	%3,4	%7,6
Bekak eta laguntzak.	48.889	56.596	61.329	%15,8	%8,4
Guraso-elkarteen jardueretarako laguntzak	1.670	2.021	2.143	%21,0	%6,0
Erabilitakoa, guztira	85.535	94.773	102.372	%10,8	%8,0
Erabileraren %	%80,1	%76,7	%78,7		

- **Hezkuntza-sistemaren euskalduntzea**

Programa honen xedea da elebitasuna ezartzeko beharrezko giza baliabideez, baliabide ekonomikoez eta materialez eta antolamendurako baliabideez hornitzea hezkuntza-sistema. Ez da izan aldaketa esanguratsurik aurrekontuan, eta oso txikia da haren erabilera, %70etik beherakoa.

**Hezkuntza-sistemaren euskalduntzea programarako eta programaren barneko azpiprogrametarako aurrekontuaren erabilera, mila eurotan.**

	2006	2007	2008	Δ 07/06	Δ 08/07
Irale	24.205	23.150	24.265	-%4,4	%4,8
EGA	2.110	2.547	2.496	%20,7	-%2,0
Nolega	4.228	5.138	5.586	%21,5	%8,7
Glotodidaktika	392	328	371	-%16,3	%13,1
Guztira	30.985	31.163	32.719	%0,6	%5,0
Erabileraren %	%68,3	%66,4	%67,3		

**4.2.5. Itunpeko sare pribatuaren finantzaketa Sailaren aurrekontuetan****a) Ituntze-modulua**

Funtsean, hezkuntzako itunen bidezkoa da sare pribatuaren finantzazioa, eta, urtero, itunpeko ikastetxeak mantentzeko modulu ekonomiko osoa onartzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren esparruan.

Hauek osatzen dute modulu orokorra:

- Irakaskuntzan diharduten eta ez diharduten langileen gastuek eta, tartean, enpresek Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kuotek (kotizazioek).
- Funtzionamendu-gastuek.
- Mantentze- eta kontserbazio-gastu arruntek.
- Inbertsio errealak berritzeko gastuek.

Zenbateko hauek osatu dute urte bakoitzeko modulua, irakaskuntza-mailen arabera sailkatuta:

**Itunpeko ikastetxeak mantentzeko modulu ekonomiko osoaren bilakaera, unitateen arabera, eurotan.**

	2006	2007	2008	Δ 07/06	Δ 08/07
Haur Hezkuntza (2. zikloa)	54.148	56.211	58.849	%3,8	%4,7
Lehen Hezkuntza	55.948	58.700	61.752	%4,9	%5,2
Lehen Hezkuntza bereziko gela irekiak	46.766	48.823	51.245	%4,4	%5,0
Hezkuntza berezia (garapenaren arazo orokorrak)	111.058	114.899	124.769	%3,5	%8,6
Hezkuntza berezia (arazo psikikoak)	80.437	84.032	93.509	%4,5	%11,3
Hezkuntza berezia (mugimenduaren gabezia larriak)	110.605	114.634	127.922	%3,6	%11,6
Hezkuntza berezia (zentzumenen arazoak)	72.208	74.158	76.768	%2,7	%3,5
DBH (1. zikloa)	69.692	72.940	77.576	%4,7	%6,4
DBH (2. zikloa)	85.787	89.789	95.551	%4,7	%6,4
Bigarr. Hezkuntzako indartzea eta curriculum-aniztasuna	44.476	46.275	48.465	%4,0	%4,7
Bigarren Hezkuntza bereziko gela irekiak	48.948	51.123	54.313	%4,4	%6,2
LOGSE Batxilergoa	88.227	92.320	98.200	%4,6	%6,4
Zereginen ikaskuntza (ikastetxe arruntak)	96.901	100.364	104.971	%3,6	%4,6
Zereginen ikaskuntza (helduarora bideratzea)	96.506	98.196	96.342	%1,8	-%1,9
Lanbide Hastapena. Gizarte-garantia (1. maila)	72.744	75.639	78.880	%4,0	%4,3
Lanbide Hastapena. Gizarte-garantia (2. maila)	50.051	52.070	54.307	%4,0	%4,3

2006 eta 2008 artean, %8 eta %11 artean hazi da modulu nagusien (Haur hezkuntzako 2. zikloko, Lehen Hezkuntzako eta DBHko moduluen) zenbatekoa, hau da, KPIren hazkunde baina %1 -%2 gehiago urteko.

**b) Itunpeko gelen kopuruaren bilakaera**

Urtetik urtera, pixka bat hazten da itunpeko gelen kopurua, eta, 2006 eta 2008 artean, zehazki, 41 gelatan hazi da: 78 gelak itun osoa egin dute, eta 37k, berriz, partezko ituna desegin.

Jaiotzen bilakaeraren ildoan, hazi egin da itunpekoak diren hasierako etapetako gelen kopurua: Lehen Hezkuntzan, 49 gela bihurtu dira itunpeko; Haur Hezkuntzan, 39; eta, hezkuntza berezian, 27 gela ireki. Aitzitik, Bigarren Hezkuntzan, txikiagotu egin da itunpeko gelen kopurua.

**Modulu osoa edo partezkoa duten maila guztietako itunpeko gelak 2005-06 ikasturteetik 2007-08 ikasturtera bitartean.**

	2005-06		2006-07		2007-08		Bi ikasturteen arteko $\Delta$	
	Osoa	Part.	Osoa	Part.	Osoa	Part.	Osoa	Part.
Haur Hezkuntza	1.215	0	1.238	0	1.254	0	39	0
Lehen Hezkuntza	2.312	0	2.336	0	2.361	0	49	0
Lehen Hezkuntza bereziko gela irekiak	180	0	193	0	202	0	22	0
Lehen Hezkuntza bereziko gela itxiak	117	0	117	0	116	0	-1	0
DBHko 1. zikloa	839	0	826	0	810	0	-29	0
DBHko 2. zikloa	855	0	851	0	849	0	-6	0
Bigarren Hezkuntza bereziko gela irekiak	205	0	209	0	210	0	5	0
Batxilergoa	240	347	237	345	236	341	-4	-6
Zereginak ikasteko hezkuntza bereziko gelak	13	0	12	0	14	0	1	0
EMLH	38	225	38	216	38	213	0	-12
GMLH	90	390	12	381	85	371	-5	-19
Lanbide Hastapena. Gizarte-garantia	117	0	124	0	124	0	7	0
Guztira	6.221	962	6.264	942	6.299	925	78	-37

#### 4.2.6. Hezkuntza-sustapena programaren banaketa

Gizarteko berdintasunik eza berdintzea da programa hau osatzen duten jardueren helburua.

- **Garraioa**

Sailak kudeatzen du eta, lehiaketa publiko bidez, eskolako garraio-zerbitzua osatzen duten bideak esleitzen eta zuzenean finantzatzen ditu, baita laguntza-zerbitzua ere.

Gainera, banan-banan, garraioa ordaintzeko kopuruak ematen dizkie egunero edo astero beren eragin-eremuaren esparruan dagokien ikastetxera bidaiatu behar duten ikasleei.

Itunpeko ikastetxeei, berriz, ez die ematen halako laguntzarik.

**Unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzan garraioan erabilitako aurrekontua, mila eurotan.**

	2006	2007	2008	$\Delta 07/06$	$\Delta 08/07$
Hezkuntza Sailak alokatutako bideak	16.737	17.421	18.608	%4,1	%6,8
Garraio-zerbitzuko laguntza-zerbitzua	2.865	3.207	3.793	%11,9	%18,3
Garraioa ordaintzeko banakako laguntzak	1.188	1.217	1.253	%2,4	%3,0
Guztira	20.790	21.845	23.654	%5,1	%8,3
Erabileraren ehunekoa		%95,1	%99,3		

- **Jangelak**

Sailak 2. kapituluaren bidez finantzatzen ditu nagusiki jangelak; zehatz-mehatz, kapitulu horren esparruan, zuzenean kudeatzen dituen jangelak finantzatzen ditu. Gainerakoa, berriz, 4. kapituluaren bidez finantzatzen du eta, haren esparruan, laguntzak ematen dizkie ikastetxe publikoetako jangelei. Itunpeko ikastetxeei ez die ematen halako laguntzarik. Bestalde, batez beste baino nahiko gehiago hazi da programa hau, baina desagertu egin dira ia garraio-zerbitzua erabiltzen duten ikasleek jangela ordaintzeko laguntzak, Sailak zeharka kudeatzen zituen jangelentzako laguntzekin batera.

**Ikastetxe publikoetako ikasleek jangela ordaintzeko laguntzak, mila eurotan.**

	2006	2007	2008	Δ07/06	Δ08/07
Ikastetxe publikoetako jangelak ikuskatzeko laguntzak (2. kap.)	88	90	92	%2,3	%2,2
Sailak zuzenean kudeatzen dituen jangelentzako laguntzak (2. )	18.274	25.451	27.186	%39,3	%6,8
Garraio-zerbitzua erabiltzen duten ikasleek jangela ordaintzeko laguntzak (4. kap.)	1.144	362	72	-%68,4	-%80,1
Erabilitako aurrekontua	19.506	25.903	27.350	%32,8	%5,6
Erabileraren %	%99,5	%99,9	%100,3		

Ekitaldi bakoitzaren amaierako likidazioetan, 2. kapituluaren esparruan, Sailak zuzenean kudeatzen dituen jangelen gastuak ez dituzte *Hezkuntza-sustapena* programaren barnean kontabilizatzen, *Haur eta Lehen Hezkuntza* eta *Bigarren Hezkuntza* programen barnean baizik; izan ere, Sailak ikastetxei igortzen dizkie zenbateko horiek, eta haiek justifikatu behar dituzte, urteko kontuen azken likidazioetan.

- **Bekak eta laguntzak**

Bost laguntza-mota bereizten ditugu: irakaskuntzakoak, bidaiak edo egoitza ordaintzekoak, material didaktikoa ordaintzekoak, jangelakoak eta osabidezkoak. Aurreko ikasturtean beka izan duten ikasleei automatikoki berritzen diete laguntza, hezkuntzako ziklo berean jarraitzen badute eta ezarritako eskakizun ekonomikoak eta akademikoak betetzen dituztela egiaztatzen badute. Bestalde, hau izan da beketarako prestatutako eta erabilitako aurrekontua unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzako etapetan:

**Unibertsitatetik kanpoko etapetarako bekak.**

	2005-06	2006-07	2007-08	Δ 07/06	Δ 08/07
Laguntza-kopurua	138.648	144.769	158.375	%4,4	%9,4
Bekadun-kopurua	93.379	96.553	104.100	%3,4	%7,8
Erabilitako aurrekontua, mila eurotan	31.728	34.435	39.895	%8,5	%15,9
Erabileraren %	%108,0	%99,9	%100,3	--	--

Guraso-elkarteentzako laguntzei dagokienez, berriz, hainbat laguntza-mota banatzeko deialdiak egiten dituzte urtero:

1. Ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako familia-elkarteen federazioek eta konfederazioek proiektuak eta jarduerak egitekoak.

2. Ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako familia-elkarteek eskolaz kanpoko jarduerak egitekoak.
3. Kooperatiba-federazioek eta irakaskuntzako kooperatibek eskolaz kanpoko jarduerak egitekoak.

**Guraso-elkarteentzako laguntzen bilakaera 2005-06 ikasturtetik 2007-08ra bitartean, eurotan.**

<i>Laguntzak</i>	2005-06	2006-07	2007-08	<i>Bi ikasturteen arteko <math>\Delta</math></i>
Ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako guraso-elkarteen federazioentzako eta konfederazioentzako laguntzak	515.357	555.357	568.607	%10,3
Ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako guraso-elkarteek eskolaz kanpoko jarduerak egitekoak	654.701	694.401	718.523	%9,7
Irakaskuntzako kooperatibek eskolaz kanpoko jarduerak egiteko	29.602	29.602	36.002	%21,6

Hau da lehenengo sailaren banaketa:

**Ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako guraso-elkarteen federazioentzako eta konfederazioentzako laguntzak, eurotan.**

<i>Ikastetxe-mota</i>	2006-07	2007-08	<i>Azken ikasturteko <math>\Delta</math></i>
Itunpeko ikastetxeak	124.773	128.639	%3,1
Ikastetxe publikoak	355.059	359.680	%1,3
Kooperatibak eta irakaskuntzako kooperatibak	36.425	38.636	%6,1
Besteak	39.101	41.652	%6,5
Guztira	555.358	568.607	%2,4

#### 4.2.7. Azpiegiturak eta ekipamendua

Hauek dira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurrekontuko 6. kapituluaren helburuak: ikastetxe publikoetako eraikuntza-lanak; makineria, instalazioak, tresneria, altzariak eta lanabesak; eta informazioa prozesatzeko ekipamendua. Kapitulu horren banaketa azalduko dugu jarraian, programa nagusien arabera.

Haur eta Lehen Hezkuntzan, ikasleen kopurua handitu izanak ekarri du eraikin berriak egiteko lanak areagotzea –udalak bihurtzen dira eraikinon titular–, eta, 2008an, gainera, Sailak ekipamendu informatikoaz hornitu ditu ikastetxeak.

**Haur eta Lehen Hezkuntza programaren esparruan egindako inbertsioak, mila eurotan.**

	2006	2007	2008	$\Delta$ 07/06	$\Delta$ 08/07
Eraikuntza-lanak Sailaren titulartasuneko ikastetxeetan	470	130	-	-%72,3	
Eraikuntza-lanak udalen titulartasuneko ikastetxeetan	23.633	26.960	38.183	%14,1	%41,6
Eraikuntza-lanak, guztira	24.103	27.090	38.183	%12,4	%40,9
Instalazioak, makineria eta tresneria	2.046	2.701	2.395	%32,0	-%11,3
Altzariak	2.983	4.307	5.269	%44,4	%22,3
Informazioa prozesatzeko ekipamendua	589	606	4.071	%2,9	%571,8
Inbertsioak beste ibilgetu material batzuetan	2,5	0	2	%0	%0
Ekipamendua, guztira	5.621	7.613	11.737	%35,4	%54,2

*Bigarren Hezkuntza* programaren esparruan, motelagoa izan da eraikuntza-lanen hazkundera, eta, II. Premia planaren barnean, 2007tik aurrera, hazi egin da ekipamendu informatikoaren hornikuntza.

**Bigarren Hezkuntza, osabidezkoa eta Lanbide Heziketa programaren esparruan egindako inbertsioak, mila eurotan.**

	2006	2007	2008	Δ 07/06	Δ 08/07
Eraikuntza-lanak Sailaren titulartasuneko ikastetxeetan	13.850	13.623	19.179	-%1,6	%40,8
Eraikuntza-lanak udalen titulartasuneko ikastetxeetan	4.316	5.574	3.533	%29,1	-%36,6
Eraikuntza-lanak, guztira	18.166	19.197	22.712	%5,7	%18,3
Instalazioak, makineria eta tresneria	6.108	5.141	5.172	-%15,8	%0,6
Altzariak	2.400	2.853	3.280	%18,9	%15,0
Informazioa prozesatzeko ekipamendua	3.088	6.834	6.084	%121,3	-%11,0
Inbertsioak beste ibilgetu material batzuetan	3	97	33	%3.133,3	-%66,0
Jabetza industrial eta eskualdatze-eskubideak	354				
Ekipamendua, guztira	11.954	14.925	14.570	%24,9	-%2,4

**Araubide bereziko irakaskuntzak programaren esparruan egindako inbertsioak, mila eurotan.**

	2006	2007	2008	Δ 07/06	Δ 08/07
Sailaren titulartasuneko ikastetxeetako eraikuntza-lanak, guztira	1.762	1.447	555	-%17,9	-%61,6
Ekipamendua, guztira	1.629	552	563	-%66,1	%2,0

- **2008-2012 aldirian ikastetxe publikoen azpiegiturak hobetzeko ezohiko plana**

Eraikin berriak egiteko eta ikastetxeak hobeto kontserbatzeko eta beharrezko ekipamenduaz hornitzeko gero eta behar handiagoa dagoela ikusirik, azpiegiturak hobetzeko bost urteko (2008-2012 aldirako) ezohiko plan bat prestatu du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak.

Udalekin elkarlanean, udalenak diren eraikinak (Haur eta Lehen hezkuntzako ikastetxeak) egoera onean mantentzeko plan bat da plan horren esparruko lehenbiziko ekintza, eta, VIII. legealdirako koalizio-hitzarmenarekin bat, gastuen %60 ordainduko du Sailak, eta udalek ordainduko dute gainerako %40a.

Plan orokorrari dagokionez, bost azalpen bereizi dituzte, eta aurrekontuko sail hauek esleitu dizkiete:



**2008-2012 aldiaren ikastetxe publikoen azpiegiturak hobetzeko ezohiko planaren esparruan, lanak egiteko plana osatzen duten azalpenak eta aurrekontuan finkatutako zenbatekoak, milioi eurotan.**

<i>Azalpena</i>	2008	2009	2010	2011	2012
1 Irakaskuntza arautuaren eskaintza publikoaren plangintza egitea	11,10	37,37	59,22	64,20	49,75
2 Eraikinen egoera hobetzea	5,77	10,70	6,61	4,21	1,11
3 Bizigarritasun-, segurtasun- eta funtzionaltasun-egoerara teknikoki egokitzea	1,3	6,40	6,42	6,23	9,10
4 Indarrean den irakaskuntzako araudira egokitzea (ikastetxeen gutxieneko baldintzak)	2,93	14,96	12,14	7,48	4,13
5 Matrikula gehitzeagatik, premiaz eskolatzea	4,02	1,73	1,92	0,55	0,74
Aurreko aurrekontuetan hitzartutakoa	45,07	17,51	0,50	0,50	0,80
Guztira	67,92	88,67	86,81	83,17	65,63

Lehen azalpenari, irakaskuntza arautuaren eskaintza publikoaren plangintza egiteari dagokio zenbatekorik handiena; alegia, ikasleen kopurua handitzea aurrez ikustetik sortzen diren beharrei. Hain zuzen ere, azpiegiturak hobetzeko planak aurrez ikusten du, bost ikasturteko epean, 550 gelatan haziko dela Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako gelen kopurua, eta 1.000 baino gehiagotan irakaskuntza guztietakoa.

### 4.3. Titulartasun pribatuko haur-eskolentzako laguntzak

2006/12/01eko EHAAAn argitaratu zuten 2006-07 ikasturtean laguntza horiek banatzeko deialdia egin zuen agindua, eta berrikuntza bat ekarri zuen. Ordura arte, ekipamenduak eta profesionalek baimena lortzeko eskakizunez gain, beste eskakizun bat bete behar zuten eskolek laguntza horiek eskuratzeko: 2003ko urtarrilaren 1erako abian egotea.

Orduan, aginduak beste baldintza bat jarri zuen aurrekoaren orde, laguntzak eskuratzeko beste aukera bat emateko: “2003ko urtarrilaren 1az geroztik hasi baziren zerbitzuak ematen, baldin eta 0 eta urte 1eko adin-tarte bakoitzean jaiotako % 40ari eta 2 urteko adin-tartean jaiotako % 100ari zerbitzua emateko moduko eskaintzarik ez duten udaletan kokatuta badaude, eskaintza publikoa eta pribatua kontuan hartuta” (3.b art.).

0 eta 2 urte bitarteko haurren hezkuntzan, txosten honetako 1. kapituluarekin bat, guztira, 2 urtetik beherako haurren %33rentzako adinakoa da Euskadiko eskaintza publiko eta pribatua. Biztanleriarik handieneko udalerriei begiratzen badiegu, ikusiko dugu Donostiak soilik gaintzen duela guztira %40ko eskaintza egiteko muga –han, %43koa da eskaintza– eta alde nabarmena dagoela Donostiaren eta beste udalerrien artean. Bestalde, Gasteizen eta Donostian izan ezik, 0 eta 2 urte bitarteko haurrentzako eskaintza publikoa oso eskasa edo ezdeusa da biztanleriarik handieneko Euskadiko udalerrietan.

2 urteko haurren hezkuntzan, berriz, badira guztira %100eko eskaintza egiten duten udalerrriak, betiere, kontuan izanik matrikula erreala %92koa dela batez beste Euskadin. Nagusiki, eremu hauek ez daude egoera horretan: beste mailetan ere toki-eskasia orokorra dutenak eta ikasleen zati bat beste udalerrri batzuetan kokatutako ikastetxeetan eskolatuta dutenak.

Titulartasun publikoko tokiak sortzeko behar gehien dagoen udalerrietan, Aginduak eragin du titulartasun pribatuko haur-eskola guztietara zabaltzea laguntza osoak.

#### **4.4. Balorazioak eta proposamenak**

---

Atal honetan egingo ditugun zortzi proposamenak planteatzeko, Euskadiko Eskola Kontseiluak kontuan hartu ditu sarreran aipatutako kalitate- eta ekitatearen printzipioak.

Lehenengoa txostenaren kalitateari buruzko baldintza bat da, eta bigarrena, hezkuntza-sistema osoaren kalitateari buruzko baldintza bat.

Jarraian, ekitaterako hiru baldintza jarriko ditugu: sare publikoari buruzkoa da bat, eta eskaintza benetako eskariaren araberkoa izatea du helburu; beste biak, berriz, titulartasun pribatuko ikastetxeen finantzazioari buruzkoak dira.

Azken hiru gomendioak sistema osatzen duten ikastetxe guztiei buruzkoak dira: lehen biak hizkuntza-ikaskuntzaren eta haur-hezkuntzaren kalitateari buruzko baldintzak dira, eta hirugarrena, ekitaterako baldintza bat.

- **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari informazio zehatzagoa emateko eskaera**

Unibertsitatetik kanpoko etapetako hezkuntzarako gastu publikoaren %90 osatzen du Euskadiko aurrekontu orokorrek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari esleitzen dioten aurrekontuak.

Aurrekontuaren banaketari buruzko informazioa zehatza da, hasierako aurrekontua kontuan hartzen badugu, baina ez, ordea, erabilitakoa kontuan hartzen badugu. Alde horretatik, azkenaldian, hasierako aurrekontua baino %6 handiagoa izan da erabilitako aurrekontua, baina, datu absolutuak hartzen baditugu aintzat, balio hori baino gehiago desbideratu izan da kapitulu eta programa askotarako erabilitako aurrekontua, hasierako aurrekontutik gora zein behera.

*Jakiteko zer gaitan behartzen dugun aurrekontua gehien eta, informazio horretan oinarrituta, aurrekontuei buruzko analisia, ebaluazioa eta proposamena egiteko, Kontseiluak eskatu nahi dio Sailari ahalik eta*

*zehaztuen bidal diezaion datozen ekitaldietan erabiltzen dituen aurrekontuei buruzko dokumentazioa.*

- **Euskadiko hezkuntzaren finantzazioari buruzko oinarritzko adierazleak**

Kontraesana dago Euskadiko hezkuntzaren finantzazioari buruzko adierazleen artean. 2005-2006 aldiko txostenaren ildoan, konparazio absolutua egiten badugu, ikusiko dugu Euskadiko ikasleko edo gelako kostua handi samarragoa dela Espainiako batez bestekoa baino, eta handiagoa Europakoa baino; nolana ere, aldeak daude etapa batzuen eta besteen artean.

Aitzitik, hezkuntzarako gastu publikoak barne-produktu gordinaren aldean osatzen duen ehuneko konparatzen badugu, ikusiko dugu Euskadiren gastua txikiagoa dela Estatukoa eta nazioartekoa baino. Izan ere, oso garapen ekonomiko handia lortu du Euskadik, baina gizarte-zerbitzuetarako aurrekontuak eskasak dira horren aldean, eta BPGren %4 baino gutxiago erabiltzen du hezkuntzaren gastu publikorako. Ehuneko hori txikiagoa da Espainiako autonomia-erkidegoen batez bestekoa baino, eta askoz ere txikiagoa 27 kideko Europaren batez bestekoa (%5etik gorakoa) eta ELGERena (%5,4koa) baino. Balio horiek nabarmenki handitzeko gomendatu dute Europako agintariak.

*Euskadiko Eskola Kontseiluaren ustez, hezkuntza da herrialde baten garapen sozialaren eta ekonomikoaren oinarria eta, horregatik, eskatu nahi du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak kontuan har dezan adierazle hori eta, hezkuntzarako gastu publikoak barne-produktu gordinaren aldean osatzen duen ehunekoaren ikuspegitik, ELGERekiko aldea era progresiboan murriztu dezan.*

- **Behar bezalako azpiegitura-plana**

2005-2006 aldiko txostenean, Kontseiluak adierazi zuen aurrekontuen lehentasunetako bat zela ikastetxe publiko berriak egitea toki publikoen eskaintzaren aldetik gabezia gehien zeuden eremuetan, eta, orduetik, azpiegitura-plan bat jarri du martxan Sailak, ordura arteko gastuaren aldean, eraikuntza-lanetarako gastua neurrian handitzea dakarrena.

Planak, ordea, ez ditu kontuan hartzen Bilbo, Barakaldo eta beste leku batzuk. Han, hasierako mailetakoa gelak beteta daude, eta aldi berean jaiotzak nabarmenki hazten dira.

Bestalde, gobernu berriak finkatu duenez, legealdi honetako lehentasunetako bat izango da ikastetxe berriak eraikitzea, baina krisialdi ekonomikoak mugak ezarri ditu aurrekontuan, eta Eusko Jaurlaritzak kapitulu horretarako gastuen aurrekontua murriztu behar izan du eta 2008-2012 aldirako azpiegitura-planak –berez, eskasaxedatutako hainbat lan atzeratu ere egin du.

*Euskadiko Eskola Kontseiluak uste du beharrezkoa dela azpiegitura-plan berri bat prestatzea, ikastetxe publikoetako egungo eta etorkizuneko toki-eskariari erantzuteko, eta, horregatik, eskatu nahi dio Sailari, lehenik eta behin, eskola-mapa egin dezan, egiteko gelditu baitzen aurreko legealdian.*

Haur Hezkuntzako 1. zikloan bereziki, eskaintza publikoa handitzeko beharra sumatu dugu, Haurreskolak partzuergoaren edo beste formularen baten bidez, udalerrri ertain eta handi guztietan eskariaren araberako eskaintza dagoela ziurtatzeko.

*Kontseiluak nahi du kontuan hartzea, azpiegitura berrien ikuspegitik, Haur Hezkuntzako 1. zikloko eskaintza publikoa handitzeak aurrekontuan dituen ondorioak.*

*0 eta 2 urte bitarteko haurren hezkuntzan, berriz, matrikularen kostua handia dela ikusirik, Kontseiluak nahi du familiek laguntzak eskuratzeko ezarritako diru-sarreraren gehieneko mugak igotzeko, onuradunen kopurua handitze aldera.*

- **Titulartasun pribatuko haur-eskolen finantzazioa**

Titulartasun pribatuko haur-eskolen finantzazioari dagokionez, 2006-07 ikasturteko aginduak xedatzen du baimena lortzeak diru-laguntza eskuratzeko dakarrela ia egoera guztietan. 2005-2006 aldiko txostenean adierazi genuenez, laguntza-sistemaren antolaketa kontuan izanik, gehieneko diru-laguntza eskuratzeko, kuota jakin batzuk kobratu behar dituzte titulartasun pribatuko haur-eskolek. Era berean, kontratuak egiteko gutxienezko hainbat eskakizun ezarri zituen dekretuak, hala nola Lanbide Heziketako titulua duen profesional bat kontratatzea gelako, eta horrek dakartzan gastuak nabarmenki txikiagoak dira diru-sarrerak baino.

*Euskadiko Eskola Kontseiluak berriro eskatu nahi dio Sailari begiratzeko titulartasun pribatuko haur-eskolen diru-sarrerak zerbitzu horretara itzul daitezkeen osorik.*

Hartara, gastuari ezarritako helburua beteko genuke eta, aldi berean, udal-barrutian haur-eskola pribatuen eskaintza oparoa dutela-eta, udal jakin batzuek Haurreskolak partzuergoari lokal egokiak eskaintzeko prestasun eskasa izateko arriskua txikiagotuko genuke.

- **Oinarriko Hezkuntzako irakaskuntzaren doakotasuna**

Kontseilua kezkatuta dago Oinarriko Hezkuntzako irakaskuntzaren doakotasunik eza dela eta. Izan ere, derrigorrezko hezkuntzako etapetan doan eskolatzeko eskubidea aitortzen die legediak haurrei eta nerabeei, baina, praktikan, eskubide hori ez dago bermatuta. Alderantziz, itunpeko ikastetxeek kuotak kobratzen dituzte sistematikoki etapa horietako irakaskuntza kontzeptupean, Eustaten arabera, eta Kontseiluak aurreko txostenetan hala nabarmendu du. Kristau Eskola itunpeko ikastetxeen elkartearen irizpidean, kobraketa horiek funtzionamendu eta

mantenimendu kuotak dira moduluaren finantzazioa nahikoa ez delako. Interneten, jendaurrean dago kuota horien zenbatekoa, ikastetxe batzuen web orrian.

Eskaintza publikoa urria den egoeretan, kuotaren ondorioetako bat da hezkuntza-sare bateko eta besteko ikasleen jatorri sozialaren arteko aldea handitzea. Izan ere, itunpeko ikastetxeetan kuota ordaindu beharrak ikasleak aukeratzea dakar zuzenean, eta, gainera, diru-sarrera gehien dituzten familiak dira seme-alabak ikastetxe publikoetan eskolatzea lortzen ez dutenak, matrikula egiteko araudiak xedatzen duenari jarraiki. 2003 eta 2006 artean, joera hori (Euskadiko hezkuntza-sareek gizartea areago sailkatzekoa) berretsi du PISA programaren ISEC adierazlearen bilakaerak.

Derrigorrezko hezkuntzako etapetako irakaskuntzaren trukean kuotak kobratzearen ondorioz, baliteke ikastetxeen finantzazio orokorra eta, zehazki, finantzazioaren zati publikoa kontrolatzerik ez izatea. Bestalde, finantzazio gehiago izateak hezkuntzako zerbitzu gehiago emateko aukera ematen die ikastetxeei, baina sistemaren ekitatearen printzipioaren aurkakoa da hori.

*Azken batean, Euskadiko Eskola Kontseiluaren ustez, gizartean kohesio handiagoa izateko bermea da doakotasun-araua, eta derrigorrezko hezkuntzako etapetako irakaskuntzaren trukean kuotak kobratzea ez dator bat legediak xedatzen duenarekin. Horregatik guztiagatik, eskatu nahi dio Sailari ziurta dezan bete egiten dela derrigorrezko hezkuntzako etapetako irakaskuntza doakoa izateko xedapena.*

*Edonola ere, Kontseiluaren ustez, beharrezkoa da kontabilitatearen gardentasuna bermatzea funts publikoek sostengatzen dituzten ikastetxe guztietan.*

- **Hizkuntzen ikaskuntza hobetzea**

Urtez urte, ikusten ari gara euskalduntze-programarako aurrekontuaren oso ehuneko txikia erabiltzen ari garela, hasieran aurrez ikusitakoaren %70ekoa ere ez baita.

*Legediak finkatzen dituen helburuak lortze aldera, Kontseiluak uste du beharra dagoela modu eraginkorrean, baliabideak erabiliz babesteko ikastetxeek euskara jarduera osagarrietan eta eskolaz kanpoko jardueretan indartzeko sortzen dituzten ekimenak (batez ere, helburu hori lortzetik urrunen dauden ikasleentzakoak).*

*Halaber, Kontseiluak uste du aurrekontuaren ehuneko handiagoa erabili behar dela Irale ikastaroetan (irakasleek hizkuntza-gaitasunak hobetzekoetan) eta euskarazko material didaktikoen ekoizpenean eta egokitzapenean.*

Bestalde, Sailak adierazi du asmoa duela ingelesaren ikaskuntza hezkuntza-sistema osoan indartzeko, eta horren helburua da, derrigorrezko ikasketak amaitzen dituztenean, ikasleek egiaztatzea hizkuntza horretan ere dutela oinarrizko gaitasuna.

Alde horretatik, Kontseiluaren aburuz, ikastetxeetan hirueletasun-esperientziak zabaltzeko gabezia nagusia da beste irakasgai batzuk ingelesez emateko behar adinako prestakuntza duten irakasleen eskasia.

*Kontseiluak eskatu nahi dio Sailari jardunean dauden irakasleek ingelesa ikasteko behar adina bitarteko eskain ditzan.*

- **Hezkuntzako lehen etapen kalitate-baldintzak**

Kontseilua ohartu da sare publikoko Lanbide Heziketako edo Batxilergoko toki baten kostua Haur Hezkuntzako 2. zikloko edo Lehen Hezkuntzako toki baten kostua halako bi baino handiagoa dela. Neurri batean, horren arrazoia da, Haur Hezkuntzako 2. zikloan eta Lehen Hezkuntzan, gelako ikasleen batez besteko ratioa handiagoa izatea DBHko azken mailetakoa edo LHkoa baino.

2007an, ikastetxe publikoetako Lehen Hezkuntzako gelen batez besteko finantzazioa txikiagoa izan da itunpeko ikastetxeetakoa baino. Gainera, kontuan izan beharra dago, oro har, itunpeko ikastetxeetan eskolatzen diren ikasleek maila sozial, ekonomiko eta kultural altuagoa dutela oro har eta, hortaz, aukera gehiago dituztela aurrez ikasketetan arrakasta izateko.

Kontseiluaren iritziz, gastuen banaketak ez du aintzat hartzen garapenaren autonomian oinarritutako printzipio pedagogikoa; harekin bat, banan banako arreta askoz ere beharrezkoagoa da lehenengo etapetan aurreragokoetan baino.

*Bai emaitzen ikuspegitik, bai hezkuntzaren ikuspegi hutsetik, Kontseiluak uste du beharrezkoa dela plangintza ekonomiko berri bat egitea, garapenaren lehen etapetan dauden ikasleei zuzendutako baliabideak era koalitatiboan areagotzeko.*

Bereziki, Euskadiko Eskola Kontseiluaren ustez, 2 eta 3 urteko haurren gelako gehieneko ratioa (sare publikoan, hurrenez hurren, gelako 18 eta 23 ikaslekoa) handiegia da, eta gelako irakasleen ratioa, berriz, txikiegia.

*Horregatik, ikasleen gelako ratioa aldatzen ez den bitartean, Kontseiluak uste du beharrezkoa dela, funts publikoek sostengatzen dituzten ikastetxe guztietan, Haur Hezkuntzako etapako irakasleen gelako ratioa handitzea eta, ikastetxe publikoetan, lanpostuen zerrenda organikoak hazkunde hori adieraztea.*

- **Ekitaterako baldintza**

Azkenik, eskola-porrota ahal bezainbat txikiagotzeko helburuari eusten diogun artean, beharrezkoa da jakitea zer ikastetxetan metatzen diren behar handiagoak dituzte ikasleak eta, baliabide osagarriak erabiliz, jardunbide espezifikoak aplikatzea haien hezkuntzan.

Oinarriko Hezkuntzako curriculuma sortzeko eta ezartzeko dekretuko 6. xedapen gehigarriak dioenez, “maila sozioekonomiko eta kulturalako indizeen sistema bat prestatuko du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, abiatze-baldintza txarrak dituzten ikasleen egoera konpentsatzeko hezkuntza-politika bat egin eta euskal hezkuntza-sistemari ikuspegi inklusiboa emateko”.

*Bi urte igaro dira dekretu hori argitaratu zutenetik, eta Euskadiko Eskola Kontseiluak eskatu nahi dio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari Oinarriko Hezkuntzako curriculuma sortzeko eta ezartzeko dekretuko 6. xedapen gehigarria bete dezan.*

Bilbon, 2010eko urtarrilean

## ERANSKINAK

## 1.1. eranskina. Jaiotze-tasaren bilakaera Euskadi osoan eta hiru lurralde historikoetan, 1994tik aurrera. Eustat

Lurraldea	94-95	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	12 urtean hazkuntza
Araba	2.082	2.106	2.249	2.226	2.249	2.321	2.487	2.436	2.491	2.694	2.809	2.792	2.918	3.027	3.179	%52,7
Bizkaia	7.890	7.832	8.148	8.333	8.216	8.599	8.818	9.040	9.372	9.806	9.996	10.122	10.087	10.416	10.810	%37,0
Gipuzkoa	5.328	5.378	5.590	5.766	5.648	5.867	6.011	6.171	6.270	6.767	6.789	6.801	7.038	7.153	7.184	%34,8
Euskadi	15.300	15.316	15.987	16.325	16.113	16.787	17.316	17.647	18.133	19.267	19.594	19.715	20.043	20.596	21.173	%38,4

## 1.2. eranskina. Jaiotze-tasaren bilakaera biztanle gehien duten Euskadiko 40 udalerrietan (10.000 biztanle baino gehiago), 1996 eta 2008 artean. Eustat

	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Euskadi	15.987	16.325	16.113	16.787	17.316	17.647	18.133	19.267	19.594	19.715	20.043	20.596	21.173
Bilbo	2.537	2.583	2.554	2.586	2.718	2.683	2.874	2.799	2.886	2.930	2.926	3.071	3.219
Gasteiz	1.780	1.763	1.725	1.821	1.917	1.879	1.920	2.050	2.118	2.131	2.165	2.243	2.397
Donostia	1.470	1.472	1.448	1.504	1.511	1.542	1.533	1.646	1.568	1.497	1.533	1.528	1.544
Barakaldo	596	599	618	614	643	649	655	729	737	734	838	895	926
Getxo	640	668	591	704	674	653	636	702	690	675	673	652	605
Irun	494	469	491	495	513	532	532	677	636	660	651	652	651
Portugalete	356	337	344	351	326	349	342	361	379	354	378	324	377
Santurtzi	343	337	346	326	350	350	373	409	369	414	424	439	414
Basauri	277	332	331	323	342	381	363	403	379	331	363	316	303
Errenteria	291	337	308	310	333	390	407	389	349	382	383	396	--
Sestao	230	247	205	239	257	252	249	245	235	257	236	237	--
Galdakao	277	247	243	256	243	244	265	246	275	237	218	238	--
Leioa	259	257	256	292	281	325	305	314	308	333	230	274	--
Eibar	194	192	168	184	224	182	172	238	216	236	243	263	--
Durango	203	211	222	227	291	247	292	301	260	299	316	298	--
Arrasate	168	140	148	186	146	141	189	182	181	175	194	182	--
Erandio	157	147	143	156	174	172	200	247	218	237	267	267	--
Zarautz	196	205	201	257	234	236	238	262	264	256	259	221	--
Laudio	126	134	147	133	149	136	136	150	164	123	146	144	--
Hernani	173	179	189	205	189	191	184	193	205	212	175	193	--
Tolosa	151	159	148	148	184	172	166	164	182	182	177	155	--
Lasarte-Oria	132	132	155	126	128	140	158	163	161	209	185	186	--
Bermeo	101	112	111	145	135	142	150	165	164	156	127	154	--
Ermua	125	151	121	131	144	161	134	142	149	118	125	114	--
Amorebieta-Etxano	124	139	124	129	140	137	153	161	161	180	166	163	--
Pasaia	129	162	124	121	141	152	136	161	152	139	147	151	--
Gernika-Lumo	125	132	124	136	119	141	121	127	144	159	168	156	--
Hondarribia	150	127	130	131	136	136	146	186	159	169	187	162	--
Bergara	134	153	117	127	122	127	111	114	138	116	120	128	--
Andoain	85	110	113	129	105	107	117	118	133	141	159	183	--
Mungia	124	147	133	124	136	150	170	153	161	181	185	189	--
Azpeitia	122	138	130	124	137	155	146	153	157	142	156	144	--
Valle de Tráp-Trapagaran	87	101	79	99	81	100	107	113	119	118	115	91	--
Beasain	90	101	104	101	117	123	112	131	130	139	168	179	--
Arrigorriaga	132	109	104	89	79	113	105	124	148	171	150	143	--
Sopela	121	114	136	116	119	120	131	136	132	136	152	176	--
Oñati	85	88	94	95	104	93	74	90	104	102	114	97	--
Elgoibar	71	61	89	71	91	80	91	67	98	103	113	103	--
Azkoitia	81	94	83	94	97	83	107	103	113	115	114	138	--
Zumarraga	61	77	95	89	93	87	80	94	93	114	97	99	--



**1.3. eranskina. 0-3 zikloko matrikulen banaketa, mailen, lurraldeen eta sareen arabera, eta horiek dagokien jaiotze-urtearekiko duten estaldura-indizea 2007-08 ikasturtea.**

	<i>Ikastetxe publikoetako matrikulak</i>	<i>Ikastetxe pribatuetako matrikulak</i>	<i>GUZTIRA 2 sareetan</i>	<i>Jaiotzak</i>	<i>Zentro publikoetako ehunekoa</i>	<i>Zentro pribatuetako ehunekoa</i>	<i>Estaldura guztia</i>
0 URTE				2007. urtea (8 hilabete*)			
Araba	267	109	376	2.018	%13	%5	%19
Bizkaia	548	902	1.450	6.944	%8	%13	%21
Gipuzkoa	1.006	715	1.721	4.769	%21	%15	%36
Euskadi	1.821	1.726	3.547	13.731	%13	%13	%26
URTE BAT				2006. urtea			
Araba	859	309	1.168	2.918	%29	%11	%40
Bizkaia	1.081	2.435	3.516	10.087	%11	%24	%35
Gipuzkoa	1.666	1.281	2.947	7.038	%24	%18	%42
Euskadi	3.606	4.025	7.631	20.043	%18	%20	%38
2 URTE				2005. urtea			
Araba	1.690	784	2.474	2.792	%61	%28	%89
Bizkaia	5.281	3.903	9.184	10.122	%52	%39	%91
Gipuzkoa	3.469	3.064	6.533	6.801	%51	%45	%96
Euskadi	10.440	7.751	18.191	19.715	%53	%39	%92

(\*) Tarte horretako (0 urte) lehenengo mailan, artatuko den ehunekoa kalkulatzean, erreferentzia-urteko 12 hilabeteetatik 8tan jaiotzen den pertsona-kopurua hartzen da ustezko eskaeratzat (bi heren), ez baitira haurtzaindegian sartzen 5 hilabete izan baino lehen.

**1.4. eranskina. 0-2 tarteko matrikula-kuotak biztanle gehien duten Euskadiko udalerrietan, sareen arabera. 2005-06 eta 2007-08 ikasturteen arteko bilakaera.**

2005-06 ikasturtea	<i>Ikastetxe publikoetako matrikulak</i>	<i>Ikastetxe pribatuetako matrikulak</i>	2004 eta 2005 urteetako jaiotzak (8 hilabete*)	<i>Zentro publikoetako ehunekoa</i>	<i>Zentro pribatuetako ehunekoa</i>
Bilbo	222	912	4.826	%5	%19
Gasteiz	609	235	3.541	%17	%7
Donostia	284	525	2.628	%11	%20
Barakaldo	71	253	1.234	%6	%21
Getxo + Leioa	0	411	1.670	%0	%25
Irun	116	82	1.067	%11	%8
2005-06 ikasturtea			2006 eta 2007 urteetako jaiotzak (8 hilabete*)		
Bilbo	323	887	4.973	%6	%18
Gasteiz	790	314	3.660	%22	%9
Donostia	377	727	2.552	%15	%28
Barakaldo	57	279	1.435	%4	%19
Getxo + Leioa	0	497	1.520	%0	%33
Irun	114	136	1.086	%10	%13

(\*) Tarte horretako (0 urte) lehenengo mailan, artatuko den ehunekoa kalkulatzean, erreferentzia-urteko 12 hilabeteetatik 8tan jaiotzen den pertsona-kopurua hartzen da ustezko eskaeratzat (bi heren), ez baitira haurtzaindegian sartzen 5 hilabete izan baino lehen.

**1.5. eranskina. 2 urteko mailako matrikulen kuotak biztanle gehien duten Euskadiko udalerrietan, sareen arabera. 2005-06 eta 2007-08 ikasturteen arteko bilakaera.**

2005-06 ikasturtea	<i>Ikastetxe publikoetako matrikulak</i>	<i>Ikastetxe pribatuetako matrikulak</i>	2003ko jaiotzak	<i>Zentro publikoetako ehunekoa</i>	<i>Zentro pribatuetako ehunekoa</i>
Bilbo	1.097	1.256	2.799	%39	%45
Gasteiz	1.157	506	2.050	%56	%25
Donostia	744	865	1.646	%45	%53
Barakaldo	423	231	729	%58	%32
Getxo + Leioa	409	567	1.016	%40	%56
Irun	245	195	677	%36	%29
2007-08 ikasturtea			2005eko jaiotzak		
Bilbo	1.198	1.242	2.930	%41	%42
Gasteiz	1.224	581	2.131	%57	%27
Donostia	662	963	1.497	%44	%64
Barakaldo	454	278	734	%62	%38
Getxo + Leioa	422	524	1.008	%42	%52
Irun	236	211	660	%36	%32

**1.6. eranskina. 2 urteko mailako gelen okupazioa Bilboko zentro publikoetan, 6 matrikulazonen eta hizkuntza-ereduen arabera. 2007-08 ikasturtea.**

Zonak	<i>Eredua</i>	<i>Ikastetxe kopurua</i>	<i>Ikasgela-kopurua</i>	<i>Eskaintako plazak</i>	<i>Matrikula</i>	<i>Okupazioaren %</i>	<i>Behar baino okupazio handiagoa duten zentroak/ikasgelak</i>	<i>Beteta dauden zentro eta ikasgelak</i>
Bilbo		35	70	1.260	1.198	%95	5 / 10	17 / 34
Deustu	D	5	11	198	185	%93	1/2	2/4
Uribarri	D	3	5	90	68	%76	--	--
Txurdinaga	A	3	3	54	37	%69	1/1	--
	D	6	13	234	234	%100	1/2	3/8
Alde Zaharra*	A	2	2	36	25	%69	--	--
	D*	3	6	108	122	%113	1/3	2/3
Abando	A	1	1	18	18	%100	--	1/1
	B	1	2	36	33	%92	--	--
	D	7	16	288	277	%96	--	6/14
